MUGARRIAK

AIARALDEA 2010-2020

AIARALDEA *hemen*

Aiaraldea Ekintzen Faktoriarena

Aiaraldeak

10 URTE

Etengabe berritzen

#Aiaraldeak10urte

Bizi-bizirik zuri esker!

www.aiaraldea.eus

10 urte, hamaika mugarri

Aiaraldea Hedabidea

Berde geunden, genioen duela 10 urte Aiaraldea Komunikazio Leihoa zabaltzear geundela. Hamarkada bat igaro da, baina berde jarraitzen dugu, loratzen. Beldarra tximeleta bihurtu da, ordea. Orduko urrats txikiak, jauzi erraldoi bilakatu dira: "Aiaraldea.com" izeneko atari hura, eskualdearentzat eta mundu guztiarentzat etxe dugu orain. Oinarria, baina, ez da aldatu: euskarazko komunikazio tresnak eta proiektuak sortzen dihardugu, 400 bazkide baino gehiagori esker, eta Aiaraldea Komunikabidea egunero elikatzen duzuen 50 boluntarioren laguntzarekin. Zuekin eta zuentzat. Denentzat.

Atzean geratu dira Aiaraldea Irratia pizteko astindutako uhinak, urruti mami berriak ateratzeko jotako intxaurrak. Hala ere, guztiok jarraitzen dugu izaten intxaur bat poltsikoan, denon eskutik ezean, eta bultzadarik gabe, ezinezkoa baita mamiari heltzea. 10 urtez euskaraz informatzeko eta komunikatzeko ohiturak bizi-bizirik mantendu ditugu, eta aurrerantzean ere, espero dugu beste horrenbeste pauso gehiago elkarrekin egitea! Beti dago bidea, begiak zabalik dituenarentzat.

Berde zeuden zelaiak duela 10 urte, baina hamaika proiektu loratu dira geroztik lurrotan. Euskaran, kulturan, jendartean, sozioekonomian, politikan, kirolean, hezkuntzan... Edonondik begiratuta ere, aurrera egin du bideak. Argitalpen honek 2010-2020 urteetan jazotako egitasmoen zertzeladak ekarri nahi ditu mahaigainera. Izan ginena ez dezagun ahaztu, eta zergatik ez, egindako bidea hitzez eta argazkiz badagoelako nola marraztu.

Zu ere Aiaraldeko historiaren eta hedabidearen zati bat zarelako, jarrai dezagun bizitzeko eta komunikatzeko faktoriak denon eskutik denon eskura jartzen. Mugak, mugarri bilakatzen. Etorkizuna, euskaratik eta euskaraz idazten.

Argitalpen data: 2020ko abendua · Inprenta: Graficas Irudi · Tirada: 2.500 ale · Lege gordailua: BI-1230-2013 · Diseinua: Maialen Ginea · Hizkuntza zuzenketa: Leire Martinez de Marigorta · Publizitate arduraduna: Iera Garaio · Esker bereziak: Aiaraldea Kooperatiba Elkarteko bazkide guztiei

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Aurkibidea

Jendartea

Ekologismoa. 8-13
Errefuxiatuak 14-17
Pantailen eragina 18-21
Feminismoa 24-31
Gune autogestionatuak. 34-37
Demografia 40-41
Kultur aniztasuna 42-43
Sexu eta genero aniztasuna 44-46
Irisgarritasuna trenean. 48-50
Auzolanak 54-57

Euskara

Euskalgintza. 60-65
Euskararen erabilera 66-67
Aiaraldea ekintzen faktoria 70-75

Sozioekonomia

Bilakaera sozioekonomikoa. 78-81
Lan gatazkak 82-91
Elikadura burujabetza 92-95
Pentsiodunak 96-97

Denden bilakakera. 98-101
Ekonomia Sozial Eraldatzailea 104-105

Kultura

Kultur azpiegitura berriak. 110-113
Arte eszenikoak 114-115
Zinema 116-117
Autoekoizpenak 120-121
Ekimen erraldoiak 124-127
Historia eta memoria 130-135
Jaiak 136-139
Bideo-jokoak 140-141

Hezkuntza

Hezkuntza ez-formala. 144-146
Hezkuntza borrokak 148-153
Eskola jantokiak. 154-156

Kirola

Futbolaren nagusitasuna. 160-163
Kirolari esanguratsuak 164-169
'Runner' fenomenoa 170-171
Kirol erronka bitxiak 172-173
Kirol proba eta ekimenak 174-186

Politika

Alderdi berrien agerpena. 190-191
Gatazka politikoaren jarraipena 192-195
Erabakitzeko eskubidea eta herri galdeketak 196-198

Jendartea, geroari so

Zenbat aldatu dira gure eguneroko bizitzak eta gizarte ohiturak? Pantailen agerpenak eta Internetak harremantzeko modu berriak eragin dituzte -irudian, hainbat bizilagun Pokemon Go jokoan jokatzen-. Populazio -alegia, biztanleria- datuak ere aldatu dira; oro har, herrietako bizitzak. Horrez gain, kultura berriak hurbildu dira gure lurretara, eta aniztasuna jendarteratzeko ekimenak burutu dira. Eskualdearen bilakaera ikusi nahi?



AZOKA bizi

Naturaren defentsan

hamarkada bizia Aiaraldean

Borroka ugari abiatu ditu Aiaraldeko mugimendu ekologistak azken hamarkadan, eskualdeari zuzenean eragingo lioketen proiektuak geldiarazteko.

Testua: Aitor Aspuru Saez
Argazkiak: Aiaraldea.eus eta Saratxoko Administrazio Batzarra

Industriak Aiaraldean aztarna handia utzi badu ere, eskualdeak baditu hamaika txoko polit eta, nolabait, aiaraldearrek badute harreman berezia inguruko mendiekin eta haranekin. Gorobel eta Gorbeia hormak izanik, naturzale amorratu askoren etxea da bailara.

Jendeak lurrarekiko sentitzen dituen sustraiak bistan geratu dira maiz igarotzear gauden hamarkadan. 10 urte horien lehen mugarria eolikoen kontrako borroka izan zen. 2010ean Eusko Jaurlaritzak -garai horretan PSE-EEren eskumena- hainbat parke eoliko eraikitzeko asmoa iragarri zuen: Zanpazun, Jesurin, Ganekogortan, Kolometan... eta horrek inguruko hainbat herritarren kezka piztu zuen.

Ardura hori Zanpazu eta Jesuri Bizirik plataformen osaketan islatu zen. Euren diskurtsoa ez zen energia eolikoaren aurka bereziki zentratu, baizik eta energia hori eskuratzeko proiektatutako egitasmo erraldoi eta txikitzaileetan. Kolektiboek mendi ibilaldi ugari antolatu zituzten eta euren mezuak gizartea zipriztintzea lortu zuten.

Horrez gain, 2011n Orozkon herri galdeketa gauzatu zen ADIEren eskutik eta gehiengo zabalak egin zuen azpiegituren kontra. Hurrengo urtean Laudio, Amurrio eta Orozkoko udal gobernu taldeek agerpen bateratua deitu zuten parke eolikoen aurkako jarrera azaltzeko. Azkenean, 2011ko udan hasi beharreko lanak ez ziren inoiz

2013. urtean iritsi zen 'fracking'-aren aurkako borroka eskualdera.

abiatu eta ekologismoak garaipen garrantzitsuarekin ireki zuen hamarkada.

2013an, eolikoen gatazka itzalirik zegoenean, beste erronka handia heldu zitzaien naturaren aldeko tokiko ekintzaileei, 'fracking'-aren eskutik. Zehazki, urtarrilean bertan hasi ziren horri buruz eztabaidatzen udalbatzetan eta handik eta hilabete gutxira, bilerak hasi ziren Fracking Ez Aiaraldea plataforma sortzeko.

Hilabeteko tarte horietan eragileak abiadura bizia hartu zuen, eta gai izan zen eskualdera heltzear zeuden ikerketa sismikoen kontrako oposizioa antolatzeko. Gasa ustiatzeko enpresen eta mugimendu herrikoiaren arteko talka puripurian egon zen ekainean. Alde batetik, Fracking Ez Aiaraldeak eskatu zien udalei eta jabe pribatuei baimenik ez ematea probak egiteko, eta Orozkon, bereziki, bat egin zuten deialdiarekin.

Egun horietan giroa nabarmen berotu eta gaiztotu zen 'fracking'-aren sustatzaileen kalterako eta SHESAk -proiektua bultzatzen zuen enpresa publiko-pribatuak- salatu zuen makinariak sabotajeak sufritu zituela, gehienbat Orozkon.

Hala ere, Fracking Ez Aiaraldeak deitutako bilerak zein mobilizazioak guztiz baketsuak eta publikoak izan ziren, Orozkon, Luiaondon zein Laudion.

Eolikoen aurkako borroka izan da hamarkada honetako lehen mugarria. Eusko Jaurlaritzak hainbat parke eoliko eraikitzeko asmoa zuela jakinarazi zuen eta horrek kezka sortu zuen hainbat herritarren artean.

Obren aurkako mugimendu indartsua egon arren, jadanik hasi dira Saratxoko saihesbidea eraikitzeko lanak.

Ibilbidearen hasiera tenkatu horrek aurreratu zuen gero etorriko zena: erregai fosilak eskuratzeko teknika txikitzaile horren aurkako mozioak udalbatzetan, espeleologia eta mendi talde zein elkarteen babesa oposizioari eta, azkenik, sinadura bilketa erraldoia EAEn 'fracking'-a debekatzeko.

103.000 sinadura eskuratu zituen 'fracking'-aren aurkako mugimenduak Euskal Autonomia Erkidegoan; horietako 5.000 Aiaraldean. Babes horri esker, egitasmoak aurrera egin zuen Eusko Legebiltzarrean eta legea onartu zuten teknika hori ez baimentzeko, nahiz eta Espainiako Epaitegi Konstituzio-

2013. urtean, parke eolikoaren proiektua itzalita zegoenean, beste erronka bat sortu zitzaion Aiaraldeko mugimendu ekologistari: 'fracking'-a.

103.000 sinadura eskuratu zituen 'fracking'-aren aurkako mugimenduak Euskal Autonomia Erkidegoan; horietako 5.000 Aiaraldean.

nalak testuaren bi artikulu bertan behera utzi. Edonola ere, askok ez dute guztiz arnasa hartu Eusko Jaurlaritzak aurten iragarri duen arte ez duela Aiaraldean gasa ustiatzeko baimena erabiliko.

Edonola ere, ingurumena erdigunean jarri duten borroka guztiek ez dute garaipena eskuratu. Esaterako, urte askoan talkak eta polemikak eragin ditu Saratxoko errepideak. Hango herritarrek azpiegitura hobe baten beharra aitortzen bazuten ere, ez dute bat egiten aurreikusitako proiektuarekin: 19,1 milioiko obra eta 78.651 metro koadroko lur okupazioa. Horren ordez, bestelako proiektua prestatu zuen Administrazio Batzarrak, ingeniari taldea kontratatuta. Azkenean, Arabako Foru Aldundiak %1ean bakarrik aldatu zuen egitasmoa, eta lanak jadanik hasi dira. Bitartean, hori bai, saratxoarren ahaleginak handiak izan dira, errepide "zentzudunagoa" lortzeko: mobilizazioak, mendi ibilaldiak, agerpenak erakunde publikoetan...

Bukatzear dagoen hamarkadak eremu grisak ere utzi ditu. Adibidez, Espainiar Gobernuak konpromisoa hartu du Aiaraldeko araztegiak eraikitzeko Markixana eta Basaurben. Azkenean, badirudi urak garbi helduko direla Nerbioira, urte luzez saneamendu egokirik gabe funtzionatu eta gero. Edonola ere, horrek ez ditu orain arte eginiko kalteak konponduko. Besteak beste, 2017an milaka arrain hil zituen Amurrion enpresa batek eginiko isurketak, eta beste zonalde batzuetan ere jazo dira antzeko gertaerak, Aretan kasu.

2017an milaka arrain hil ziren Amurrion, enpresa batek ibaira botatako elementuen ondorioz. Ordutik hona antzeko beste hainbat isurketa jazo dira eskualdean.

Garapenkeria

Jabi Isasi

RAPIN
KERIA
TRAPITXEO ANITZAK
CLASIFICE
RATXO
IRIK
TSUNAMI MOTORS
TESL

Errefuxiatuak laguntzeko
sare ikusezinak

Errefuxiatuen krisialdiak hainbat herritar aktibatu ditu Aiaraldean, elkartasun ekimenak sortzeko eta bideratzeko.

Testua: Aitor Aspuru Saez
Argazkiak: Aiaraldea.eus

Nazio Batuen kalkuluen arabera, mundu osoko populazioaren %1 da errefuxiatu, ia 80 milioi lagun. Prozesu hori azkartu egin da azken hamarkadan Siriako, Yemengo, Afganistango edo Irakeko gatazka armatuen ondorioz, eta gure telebista eta hedabideetara egin zuen salto, bereziki, 2014an eta 2015ean, Siriako Gerrak milaka lagun mediterraneora bultzatu zituenean. Horietako askok ez zuten lortu Europara bizirik heltzea; eta, tamalez, famatua bihurtu zen Alan Kurdiren irudia. Siriako Kurdistango Kobane hiriko umearen gorpua itota agertu zen kostaldean.

Alberto Gracia mediku amurrioarra errefuxiatuen kanpalekuetan egon zen.

Errealitate horiek, Europako Batasunak mugetan eta Greziako uharteetan prestatutako neurri zapaltzaileek edota periferiako errepresio politikek -Hungarian, Mazedonian...- herritar askoren

Laudio Ikastolako hainbat ikaslek HesiHes kooperatiba sortu zuten Greziara joan eta laguntzeko.

kontzientzia hauspotu zuten. Aiaraldean hori bistakoa izan da. Errefuxiatu gutxi etorri dira eskualdera eta, egin dutenean, herritar sareak sortu dituzte laguntzeko. Hala ere, distantzia ez da aitzakia izan elkartasuna adierazteko, eta aiaraldearrek bide anitzak topatu dituzte gerraren ondorioz etxea eta aberria galdu dutenak babesteko.

Esaterako, jaiak antolatu dituzte dirua biltzeko eta zenbait elkartetara edo Gobernuz Kanpoko Erakundeetara bitarteko ekonomikoak bideratzeko. Horrelako ekimenak jaso zituen Luiaondok, Orozkok edota Laudiok, zeinetan dantza eta musika ikuskizunak nagusitu ziren elkartasuna ahalbidetzeko. Tankera horretako deialdi batean, adibidez, 3.868 euro batu zituzten.

Edonola ere, laguntza adierazpenak unean uneko egoeretara moldatu dira. Esaterako, 2015ean Amurrion ekin zioten mantak jos-

Errefuxiatuen krisialdiak hamaika elkartasun ekimen eragin ditu Aiaraldean, jende ugariren ekarpena jaso dutenak modu anitzetan: arropa, elikagaiak, dirua...

Urduñan ere ekimen jendetsua egin zuten errefuxiatuak babesteko.

Laudion eta beste herri batzuetan egun osoko jaialdiak antolatu dituzte dirua biltzeko.

teari, zuzenean Siriara bidaltzeko. 2020an Morian izandako sute ikaragarriak bertako errefuxiatu kanpalekua kiskali zuen; nahiz eta praktikan, aire librean zegoen kontzentrazio esparrua zen. Bertako biztanleak ezer gabe geratu ziren; eta berriro ere, Zaporeak elkarteari sostengua emateko, elikagai eta diru bilketa antolatu zituzten eskualdeko hainbat puntutan: Amurrion, Aiaran edota Orozkon. Bestelako deialdiak

Greziako errefuxiatuak laguntzeko bide ezberdinak landu dituzte Aiaraldean. Bitartekoen bilketak bultzatzeaz gain, zenbait herritar Lesbos edo Idomenira joan dira zuzenean.

egon ziren aurretik, ordea. Adibidez, 2016an Laudion botak jaso zituzten. Helburua zen Cherson -Greziako iparraldean- zeuden errefuxiatuei eskaintzea, bertako hotzagatik oinak izozteko arriskuan baitzeuden. 2017an arropa eskuratzeko egin zen deialdia, Lesboseko errefuxiatuek neguari aurre egiteko. Azken ekimena 2020ko abenduan bertan amaitu zen, Aita Mari itsasontzirako 300 arropa kit osatzeko, Mediterraneoan erreskatatzen dituzten lagunak hornitzeko. Besteak beste, Urduñan ehunka txandal eskuratu zituzten.

Gainera, ez dira falta Greziara joan direnak zuzenean laguntzera. Batzuk Idomenin aritu dira eta beste batzuk, aldiz, Lesbosen. Laudio Ikastolako hainbat gaztek HesiHes kooperatiba sortu zuten eta astebete igaro zuten Atenasen, bertan dauden ume errefuxiatuak laguntzen.

Tokiko erakundeak ere euren ekarpena egiten saiatu ziren, baina nazioarteko testuinguruak ez zuen lagundu. Amurrio eta Laudioko Udalek jakinarazi zuten prest zeudela bi dozena errefuxiatu hartzeko, baina Europako Batasunak adostutako harrera kupoak ez zirenez bete Espainiako Estatuan, gaitasunetik oso urrun geratu zen konpromisoa. Ekialde Hurbileko errefuxiatuek arreta piztu arren, Aiaraldean ez da ahaztu beste gatazka izoztu bat: Saharakoa. Autodeterminazio erreferenduma egiten ez den bitartean, milaka saharar daude kanpalekuetan bizitzen. Elikagai bilketa antolatzen da urtero, baita umeen harrera udan, esaterako.

Ekialde Hurbileko gerrek elkartasuna erakarri dute, baina Saharako herriaren egoera ez da ahaztu Aiaraldean.

Pantailetara
egin dute salto gure bizitzek eta heziketak

Pantailen agerpenak zer nolako eragina izan du gure heziketa prozesu eta harremanetan? Teknologia berriek aukera adina arrisku dituzte.

Testua: Izar Mendiguren Cosgaya
Argazkia: Aiaraldea.eus eta Argia.eus

Ume eta gazteen artean bideojokoak, Youtubeko bideoklip edota material andana, telefono bidezko mezularitza programak (Whatsappa, Telegrama...), eskolak, ikas materiala edota bilerak partekatzeko bideo konexioak (Drive, Meet, Zoom...). Skype bezalako programen erabilerarekin hasi zen (nazioarteko lagun edota erabiltzaileen artean ahots edo irudiz konektatzeko plataforma) teknologia berrien agerpena gure eguneroko bizitzetan txertatzen. Geroztik, jauzi handiak eman dituzte ordenagailu, telebista edota sakelako bidezko aplikazioek. Urte gutxian, kioskoetan edota kutxazainetan tarteka lagunartean SMS mezuak bidaltzeko saldoa ordaintzetik, doako aplikazioetan uneoro eskura eta "aktibo" egotera igaro gara. Horrek, ordea, aukera adina arrisku eragin ditu. Menpekotasuna da horien artean nagusiena.

Pantailetan lelotuta

Zer nolako harremana daukagu gailu informatikoekin? Zenbat ordu ematen ditugu pantailei begira? Zer nolako ondorioak ditu

Zenbat ordu igarotzen ditugu egunero pantaila aurrean? Menpekotasuna edo gehiegizko erabilera bihurtu dira arazo nagusi gaur egun herritar gehienen artean.

horrek pertsona baten identitatean?

Kokoriko Hezkuntza Faktoriako Aritz Lili Lekandak argi du: pantailek gauza asko ahalbidetzen dituzte, baina gehiegizko erabilera ematen zaie: "Hezkuntzan eta bestelako esparruetan areagotzen ari da joera, baina inguruan bada modurik pantailarik gabe hezteko ere. Abereak ikasteko baserrira jo daiteke, edota matematika abako bidez ulertu daiteke pantaila bitartez beharrean. DBH arte atzeratu egin beharko litzateke baliabide horien erabilera".

Norbanakotasuna

Pantailek gure burmuinetan serotonina sortzen dute, "drogen antzera, plazera ematen diote gure burmuinari". Arriskuak, baina, oso zailak dira identifikatzen; *cyberbullyinga* kasu. "Autismo digitalaz ere hitz egiten dute adituek: txikitatik, zenbaitek, pantailen erabilera handiagatik autismoa garatzen dute", erantsi du. Oso ohikoa da haurrek bazkaltzeko, jolaserako edo entretenimendurako erabiltzea, adibidez. "Helduok askotan umeak geratzeko erabiltzen dugu, janaria nahi beste sartzeko. Telebista aurrean ere antzekoa gertatzen da: burmuinak ez du prozesatzen ekintza, eta horregatik jaten da horrenbeste, ia konturatu gabe".

Miopia da beste albo kalteetako bat, "naturak ez ditu begiak horrenbeste enfokatzera behartzen; horregatik, munduko beste naturgune batzuetan ez dago horrenbeste ikusmen arazo". Identitateari begira, aldiz, norbanakotasuna sustatzen dute pantailek. "Haurrak, gazteak edo helduak askotan egoten dira pantailetara begira, banaka eta bakarrik". Benetako beharra, umeen kasuan, jolastea eta esperimentatzea da, "eta pantailek guzti hori blokeatu egiten dute". Azken urteetan nabarmen hazi da pantailen erabilera jendartean ere. Horrek, bizimodua aldatuko duelakoan dago Kokoriko Hezkuntza Faktoriako kidea: "Oraindik ez dago ikerketarik, ez baita denbora asko igaro, baina nik uste dut hurrengo belaunaldiak guztiz baldintzatuko dituela gure komunikazio edo harremantzeko moduak, eta iruditzen zait beste jendarte eredu bat



Sakelakoak, telebistak edota ordenagailuek mende hartu gaituzte.

"Beste jendarte eredu bat sortuko da pantailen erabilera anitzagatik. Hurrengo belaunaldiak guztiz baldintzatuko ditu gure komunikazio edo harremantzeko moduak".

"Autismo digitalaz hitz egiten dute adituek: txikitatik, zenbaitek, pantailen erabilera handiagatik autismoa garatzen dute".

sortuko dela pantailen erabilera anitzagatik". Izan ere, telebistak eta Internetek zeharo irauli dute gure bizitza. "Haur eta gazteek Instagramerrak, Youtuberrak... kontsumitzen dituzte egunero", azpimarratu du. Are, lanbide berriak sortu dira hortik. Lili Lekandaren hitzetan, pantailen erabilera mugatzeko badira alternatibak: Montessori eskola eta beste. "Harritzekoa da, Google eta antzerako teknologiak saltzen dituzten arduradunen alaba-semeak pantaila gabeko eskola ereduetan matrikulatzen dituzte.Pentsatzekoa da, beraz, zergatik ez den aproposa are eurentzat ere".

Hezkuntzan ere nabarmena izan da pantailen agerpena.

Telebista eta Internet

Telebista eta Internet haur eta helduen egunerokotasunaren zati handi bilakatu dira, zernahi gisaz. "Kontrolatuak dauden tresnak dira, egunero hori kontsumitzeko", dio. Bi tresna horietako edukiak hain dira zabalak, ezen eta adin eta gustu guztietako arreta eurenganatzen baitute. Horren adibide dira azken urteetan hedatutako Internet Telebistak, edota filmak zein telesailak kontsumitzeko Netflixen antzerako plataforma digitalak. Heziketatik harago, ordea, bestelako ohiturak ere errotu dira azken hamarkadan, sare sozialak kasu. Hezkuntza arautuan, aldiz, klarionadun arbelak digitalengatik ordezkatu dira, eta Drive edota posta elektronikoak bihurtu dira ikasteko edota lanerako karpeta berri. Horrenbestez, hamarkada berriaren atarian ingurune digitalaren bilakaera ikusteke badago ere, teknologien olatua indartsu dator.

Hezkuntzan edota aisialdian nabarmen eragin dute pantailek. Horren adibide dira lanerako plataforma digitalak, Internet Telebistak edota Youtube zein Netflixen kontsumo handia.

Okondo
berdintasunaren alde

Jarduera ugari egin dira Okondon berdintasuna, ahalduntzea eta indarkeria matxistaren aurkako borroka egunerokotasunean barneratzeko.

Testua: Izar M. Cosgaya
Argazkia: Aiaraldea.eus

Laia Jabekuntza Eskola, Okondo Berdintasunaren Alde foroa, topaketak... Ugariak dira azken urteetan Okondon bizikidetza hobetzeko egindako ekimenak. 2016an egituratu zuten Berdintasun Zerbitzua udalean, eta geroztik makina bat ekimen gauzatu dira. Miren Urresti teknikariaren esanetan, lau ardatzetan finkatu dituzte lan lerroak, Aiarako Kuadrillako Berdintasun Plana zehaztu ondotik. Hala, genero ikuspegia jardueretan txertatzeko

udaleko zein elkarteetako baliabideak egokitu dituzte. Okondoko taldeekin, adibidez, berdintasuna ekintzetan barne hartzeko prozesua abiatu zuten duela 2 urte, “hizkera eta irudi inklusiboak erabiltzeko, besteak beste”.

Emakumeen ahalduntze eta saretzeari begira Laia Eskola eta topaketak antolatu dituzte, eta jendartea eraldatzeko hezkidetza proiektuak sortu: “Okondoko Eskolan, adibidez, Haur Hezkuntzan hezkidetza proiektua dute; Euskal Herriko zentro bakarretakoa da hori duena, eta lehena izan zen abiatzen”. Ekofeminismoa ere jorratu dute azken aldian.

Edozelan ere, indarkeria matxistaren aurkako protokoloa da berrikuntza handienetako bat, Beldur Barik Guneak antolatzetik harago, erakundeen arteko koordinazioa eta elkarlana ahalbidetuko baitu.

Okondo Berdintasunaren alde Foroaren sorrera, Laia Eskola, diru-laguntzetan berdintasun klausulak sartzea... Udalak lan handia egin du berdintasunaren esparruan.

Feminismoa bogan

Greba Feminista izan da 2010-2020 hamarkadan gailurra jo duen ekimena. Milaka emakume* atera ziren kaleetara euren eskubideak aldarrikatzera. Feminismoaren olatuak loraldi berria ekarri du Aiaraldera. Horren adibide dira sortutako neska gazteen talde andana, edota hainbat herritan saretutako Aiaraldeko Mugimendu Feministaren ekimenak.

Feminismoa,
helmuga eta abiapuntu

Urte batzuetako etenaldiaren ondoren, talde feminista ugari errotu dira bailaran, Aiaraldeko Mugimendu Feminista kasu.

2020ko martxoaren 8an Laudion eginiko argazkia.

Testua: Izar Mendiguren Cosgaya
Argazkiak: Aiaraldea.eus

Gorabeheratsua izan da Aiaraldean feminismoaren agerpena. 1970eko hamarkadan hasi ziren bailaran lehenbiziko pausoak. Ia mende erdiko bidean, 20 talde baino gehiago egituratu dira; aisaialdiarekin lotutako jarduna duten emakume elkarteak aintzat hartu gabe.

2018. urtean izandako Greba Feminista izango da ziurrenik feminismoaren adierazpenik indartsuena Aiaraldean. Izan ere, milaka emakume atera ziren kalera mota ezberdinetako zapalkuntzak eta aldarrikapenak lau haizetara zabaltzera. Urtebete beranduago, 2019an, egun osoko greba deitu zuten, lehen edizioan planto egiteko ordu bakan batzuk zehaztu baitziren bakarrik. Edozelan ere, bi deialdietan egundoko oihartzuna izan zuen deialdiak.

Neska taldeen sorrera

Azken bost urteetan, baina, 5

neska talde baino gehiago sortu dira; horrek bistaratzen du feminismoak bailaran irekitako bidea: Amurrion Otsemeak eratu zen 2015ean, Laudion Bagara Nor taldea, Arrankudiaga-Zollon Kallera, Artziniegan Otsati Feminista eta Urduñan Sorgin Moreak.

Greba Feminista izan da hamarkada honetako mugarri nagusiena. Milaka emakume atera ziren kalera, egun osoko mobilizazioekin bat eginez.

Martxoaren 8ko ekimenetatik harago, ordea, bestelako kanpainak ere bideratu dira. Horien artean daude, jaien testuinguruan antolatutako kalejirak, `jaiak gureak ere badira´ lemapean. Ildo beretik, protokolo bereziak osatu dira festei begira eragile ezberdinekin, jai giroan gertatu daitezkeen erasoak ekidite eta kudeatze aldera. Hala, 24 orduko telefono bidezko arreta eskaini izan dute Orozkoko, Urduñako, Amurrioko eta Laudioko jai egunetan mugimendu feministatik. Urduñan eta Orozkon, berriz, Tartekariak izeneko emakume boluntarioen sareak sortu ziren, indarkeria matxista jasandako emakumeak laguntzeko.

Bigarren greba feministako amaiera ekitaldia, Urduñan.

Saretzeko ekimen ugari

Dena dela, sareatzea da azken bost urteetan handitu den fenomenoetako bat. Mugimendu feministak ez ezik, bestelako eragileek ere eman dituzte pausoak feminismoaren alorrean.

Orozkon, adibidez, Zapatu Morea ekimena abiatu zuten 2016an herriko hainbat kolektibok, eta egun osoko egitaraua prestatzen dute ordutik hona urtero Udalak, Gazte Asanbladak, Matxintxuk eta Supelaur elkarteak elkarrekin.

Jaien testuinguruan manifestazio eta ekimen ezberdinak egin dira eskualdeko herri nagusienetan. Horrez gain, erasoak salatzeko protokoloak, telefono txandak eta brigada moreak antolatu dira.

Aiaran, berriz, Emakumeen Gela atondu zuten 2017.urtean, espazio feministak areagotzeko. Berriki, gainera, panel eta buzoiak kokatu dituzte Menagarain eta Aiarako beste herrietan.

Amurrion, aldiz, bertako emakumeen historia biltzeko liburua argitaratu zuten iaz, Inma Roiz idazle okondoarraren eskutik. Otsemeak taldearen Akelarrea ere aski ezaguna egin da, baita udako solstizioan erretzen zen sorginaren lapurreta ekimena ere.

Aiaraldea Ekintzen Faktoriak, bestalde, 2018.urtean antolatu zuen lehenbizikoz Aiaraldeko emakumeen lehen Topaketa Feminista, Laudion. Bigarren edizioa Orozkon izan zen (2019), eta hirugarrena digitalki ospatuko da, COVID-19aren ondorioz.

Etxe feministen aldarriek ere markatu dute hamarkadaren amaiera, Amurrion eta Laudion proiektuen lehen zirriborroa aurkeztu dutelarik.

Azken bost urteetan, mobilizazio asko deitu ditu Aiaraldeko Mugimendu Feministak eskualdean emakumeek jasandako erasoak salatzeko.

Iruñean gertatutako bortxaketaren epaia salatzeko herri guztietan egin ziren mobilizazioak, 'Manada gu gara' lemapean.

2020ko konfinamendu garaia medio, balkoiak bihurtu zituzten protesta leku, lapiko jotze deialdiekin.

Amagoia Elezkano orozkoarra eraila izan zen 2013ko maiatzaren 23an, Laudioko bere etxean. Urduñan, Amurrion, Laudion, Aretan, Orozkon... herri gehienetan salatu dira eraso matxistak.

Sare sozialen agerpena eta kontrola

Floren Usia



Pausoka, gaur arte

Ainhoa Barbara eta Maiteder Aramendi
Pausokako kideak

2013an, Amurrioko zenbait emakume oso zoriontsu izan ginen, Pausoka jaioarazi genuelako. Gurea, propioa, izendatzeko irrika genuen, eta hortik, irakurketa soziala egitekoa, komuna. Finean, topaguneak bilatu nahi genituen, errepika zitezkeen gidoiak; izan ere, Kate Milletek esan zuen bezala, "pertsonala politikoa da". Eta hori izan zen gure fokua, ardatza, hain zuzen: zaintza eta segurtasuna parteka genezakeen burbuila bat osatzea, non gure esperientzia eta bizipenek, gure inguruneak, irakurketa politikoa egin ahal izatea ahalbidetuko zuen; eta, aktibismora eramatea, herrira, kalera. Nazkatuta geunden ikusezin izateaz, nazkatuta eskubide gutxiago edukitzeaz.

Nahiz eta pertzepzioa eta momentu soziala agian feminismoarentzat ez ziren bereziki ilusionagarriak, gu neskatila eta emakumeen artean espazio inklusiboagoak sortzeko saretu ginen, femeninoa izendatzeko askotan testuinguru androzentrista zuenari. Pausokak, topaketa espazioa ekarri zuen, gogoeta egitea, afera sozialak lantzekoa, herrian elementu berri bat jarri nahi genuen, ikuspegi berri bat neskatila eta emakumeentzat osagai atseginagoak edukitzeko. Elkarte erradikala ginen, erroari erreparatuz gero; superfizialaren aurkakoak, tradizio kaltegarriak bilatzen genituen alternatibak alaitasunez, sormenaren bidez eta giro onean proposatzeko, bestelako mundu bizigarriagoa sortzeko. Ezarria zegoena aldatzeko gogoak indartsu bihurtu gintuen, eta amorruarekin zein borrokarako gogoekin egin genion aurre emakume izate hutsagatik inposatutako guztiari.

Gure jarduna lau urte beranduago bukatu zen, munduan barrena hedatu ginenean. Baina zortez, duela bost urte, borroka eta ekintza gogoa berriro iritsi ziren Amurriora Otsemeak talde feministarekin. Emakume gazte eta energiadunak ziren/dira, eta duela 3 urtetik hona, protagonismo globala lortu dute berrezaugarritutako mugimendu feministek. Egun, belaunaldi guztietako emakumeek hartzen dituzte kaleak, eta politikoki armatzen dira kausa komunen alde, diskurtso feminista anitzei eskerrak. Lortuko dugu! Ikusiko duzue!

Aurrera begira, kolektibizazio eta antolatze feminista ezinbestekoa da. Gure bizitzeko moduak libreak izan behar dira, beldurrik gabeak, eta tentu egon behar dugu beti sistema patriarkalaren erantzun errepresiboaren aurrean. Erne, eskubide globalen lorpenean urrats bakarra ere atzera ez egiteko. Emakume borrokalari askori esker izan ginen, gure borrokak egiten gaitu, eta etorkizunaren alde borrokatzeagatik izango dira! Feminista naiz eta harro nago!

Gune okupatu
eta autogestionatuen loraldia Aiaraldean

Lau gune autogestionatu berri sortu eta mantendu dira Aiaraldean azken hamar urteetan: Amurrioko Gaztetxea, Jentilzulo Kulturgunea, Urduñako Gaztetxea eta Txondor Gaztetxea.

Testua: Txabi Alvarado Bañares
Argazkiak: Amurrioko, Arrankudiaga eta Zolloko eta Orozkoko Gazte Asanbladak

Gune okupatu eta autogestionatuen loraldia bizi izan du Aiaraldeak azken hamar urteetan. 2010. urtean mota horretako hiru espazio baino ez zeuden Gaztetxean: Laudioko Gaztetxea, Orbeko Etxea eta Amurrioko La Kuadra. Azken gune hori 2011. urtean desalojatu zuten, baina Goya etxeak (La Kuadrari lotuta zegoen baserriak) hamarkada honen amaierara arte iraun du ia zutik, hainbat musika talderen entsegu lokal gisa.

Hamarkada hasieran zeuden hiru espazio horiei beste hainbat batu zaizkie azken urteetan. 2012an okupatu zuen Urduñako Gazte Asanbladak gaur egun gaztetxea den eraikina, lokalik gabe ia bost urte eman ostean. Auzolan maratoia egin zuten lehen urteetan, eta espazioa goitik behera birmoldatzea lortu zuten. Indusketa ere egin zuten, hiriko harresiaren zati bat berreskuratzeko.

Amurrioko borroka

Amurrion korapilatsuagoa izan zen gaztetxea lortzeko prozesua. Lokal baten beharra hainbat urtez

Amurrioko La Kuadra espazioa 2011. urtean desalojatu zen, baina Goya Etxeko entsegu lokalek 2018. urtera arte funtzionatu zuten, etxea eraitsi zen arte.

Bi okupazio eta epaiketa baten ostean lortu zuen Amurrioko Gazte Asanbladak gaztetxea irekitzea.

aldarrikatzen egon ostean, Landazuri etxea okupatu zuten gazte asanbladako hainbat kidek. Ertzaintzak berehala desalojatu zuen eraikina, eta udalak salaketa jarri zuen, eraikina tokiko erakundearena zelako. Horren ondorioz herriko 9 gazte auziperatu zituzten, eta isuna jarri zieten azkenean. Epaiketa horren sententzian oinarritu zen, urte batzuk beranduago, Auzitegi Nazionala Julen Ibarrola gaztea urtebetez espetxeratzeko, berrerortzea argudiatuz.

Gazte asanbladako kideek protesta dinamika luzea jarri zuten abian epaiketa salatu eta lokal baten beharra aldarrikatzeko. Matias Landaburuko lokaletako bat hainbat egunez okupatu zuten. Azkenean, 2014. urtean jaio zen Amurrioko Gaztetxea, San Jose auzoko kultur etxeko eraikinean, asanbladaren eta udalaren arteko hainbat negoziazioren ostean.

Orozkoko esperientzia

Orozkoko esperientzia ere gorabeheratsua izan da, beste modu batean izan arren. Hamarkada hasieran sortu zen Zubiaurreko Gazte Asanblada, gerora Orozkoko Gazte Asanblada izango zena. Herriko gazteentzako espazio baten beharraz jabeturik, lokal bat alokatu zuten asanbladako kideek 2013an, Gaztetxea irekitzeko.

Lokala ia urtebete egon zen funtzionatzen, udalak zigilatu zuen arte, segurtasun irizpideak betetzen ez zituela argudiatuta. Gazte asanbladak elkarretaratze ugari

Amurrioko Gazte Asanbladak 2012. urtean okupatu zuen Landazuri etxea. Udalak salaketa jarri zuen eta 9 gazte auziperatu zituzten.

Jentilzulo kulturgunearen irekiera jaiko irudi bat.

egin zituen, eta eraikinera berriz sartzera iritsi zen, baina tokiko erakundeak berriro itxi zuen gunea. Handik urtebetera Gaztetxe zaharretik metro gutxira zegoen beste lokal bat eskuratu zuen gazte asanbladak, Jentilzulo kulturgunea sortuz. Hainbat auzolanen ostean ireki zuten espazioa, eta gaur egun hori da herrian gaztetxe funtzioa betetzen duen espazioa.

Txondor Gaztetxea

Arrankudiaga eta Zolloko Gazte Asanblada duela sei urte inguru sortu zen, Basakoetxen eginiko kanpaldi batean. Handik gutxira okupatu zuten udal igerileku zaharren eraikina, 13 urte hutsik

Arrankudiaga eta Zolloko Gazte Asanbladak udal igerileku zaharrak okupatu zituen Txondor Gaztetxea sortzeko.

Orozkoko Gazte Asanbladak lokal bat alokatu zuen gaztetxea irekitzeko, baina udalak urtebetean zigilatu zuen, segurtasun irizpideak betetzen ez zituela argudiatuta.

zeramatzana. Hiru urteko auzolanaren ostean espazioa goitik behera atontzea lortu zuten asanbladako kideek, gaur egun Txondor Gaztetxea dena irekiz.

Bestelako guneak

Zaila da "gune okupatu eta autogestionatuen" etiketaren barruan zer proiektu sartzen diren eta zeintzuk ez ebaztea. Terminoak ez dira oso zehatzak eta ez dira gutxi izan horren gainean egon diren eztabaidak, baita eskualdean bertan ere.

Dena dela, ohiko gaztetxe eta gune okupatuez gain, egon dira bestelako proiektu interesgarriak Aiaraldean azken urteetan, aipatzea pena merezi dutenak. Amurrion 'Hauspoa' proiektua jaio zen 2011. urtean, Sasien Sehaska izeneko kolektiboko kideen eta La Kuadran ibilitako hainbat pertsonaren eskutik. Lokala ireki zuten, liburutegi alternatiboarekin eta beste hainbat gunerekin. Bizpahiru urte iraun zuen egitasmoak.

Egon dira, halaber, ibilbide oso laburreko proiektuak ere. Gazte talde batek Laudioko Kultur Etxeko gune bat okupatu zuen 2018ko udaberrian, ikasketa gela bat edukitzeko, helburuarekin. Baina proiektuak ez zuen asko iraun, Kultur Etxeko obrak hasi zirenean desalojatu baitzuten.

Burubio Kultur Elkartearen proiektua ere bada aipatzekoa. 2016. urtean ireki zituzten pabilioiko ateak, eta ordutik hona makina bat kontzertu eta dinamika antolatu dituzte, eskualdeko hainbat musika talderi entseatzeko tokia eskaintzeaz gain.

Goitik behera, Txondor Gaztetxeko auzolanak eta Urduñako Gaztetxea.

Aiarako emakumeak, memoriak eta aztarnak

Aiarako emakumeen historia jasotzeko liburua plazaratuko du Aiarako Udalak urteetan egindako lana bistaratzeko, Inma Roiz idazlearen eskutik.

Testua: Izar Mendiguren Cosgaya
Argazkia: Aiaraldea.eus

Aiarako emakumeak, memoriak eta aztarnak izenburua izango du Aiarako Udalak argitaratzear duen liburuak. Doakoa izango da argitalpena, eta euskaraz zein gazteleraz jasoko ditu Aiarako emakume anitzen bizipenak eta pasarteak. 2021eko martxoan aurkeztuko dute alea, prozesua abiatu zutenetik urtebetera hain zuzen.

Hala azaldu du Miren Urresti Berdintasun Teknikariak: "Iazko martxoan Aiarako emakume ezberdinak bildu genituen proiektuari forma emateko, eta handik atera zen ideia". Aiarako emakume antolatuak -taldeak- zein norbanakoak bilatu dituzte horretarako, alor ezberdinetakoak: abeltzainak, artzainak, batzar administratiboetakoak, kirolariak... "Nolabait esateko, arlo soziala eta publikoa" islatu dituzte, "denen artean hari bat egotea bilatu dugu, gaur egunerartekoa". Urrestiren hitzetan, anitzak dira emakumeak, eta hori erakutsi nahi izan dute liburuan.

Idazketa prozesua Inma Roiz idazle okondoarraren esku utzi dute. Izan ere, Amurrioko andreen historia jaso zuen iaz, 12 amurrioar elkarrizketatuta. "Helburua Aiarako emakumeak bistaratzea da, herriko historian egindako ekarpenak jasotzea, eta egindakoaren aitortza egitea. Horrez gain, gaur egun Aiaran emakume izatea zer den ere kontatu nahi izan dugu", erantsi du teknikariak. Finean, "iragana, oraina eta geroaren arteko zubia egitea; eta liburuan hori guztia islatzea" da asmoa, ordezkariaren hitzetan.

Egitasmoak, halaber, keinu berezia egin die Aiarako Emakumeen Gelari eta Etxaurren Ikastolari, "Aiarako emakumeen historia landu dute beti eta".

Aitortza, liburu bidez

Aiaraldeko biztanleria

geroz eta handiago eta nagusiagoa

Azken hamar urteetan bi joera nagusitu dira Aiaraldeko biztanlerian: geroz eta herritar gehiago bizi dira eskualdean eta geroz eta gehiagok dituzte 65 urte baino gehiago.

Testua: Txabi Alvarado Bañares
Argazkiak: Aiaraldea.eus

Aiaraldeko demografiak gorabehera ugari bizi izan ditu azken hamar urteetan. Ia herri guztietan igo da populazioa: Amurrion 2010ean baino 265 biztanle gehiago daude orain, Arakaldon 60 gehiago dira, Arrankudiaga-Zollon 91, Artziniegan 85, Aiaran 124, Okondon 108, Orozkon 179 eta Urduñan 18 gehiago.

Herri horietako populazio igoerek joera orokorra eusten dute. Euskal Autonomia Erkidegoan 2.169.038 biztanle zeuden 2010ean eta 2.199.711 dira orain; hau da, 30.673 biztanle gehiago.

Laudio, salbuespena

Laudio da salbuespen bakarra Aiaraldean. Duela hamar urte baino 95 pertsona gutxiago bizi dira orain herrian, 18.351 guztira. Bilakaera hori ez da azken hamar urteetakoa soilik. XXI. mendea hasi zenetik, Laudio populazioa galtzen joan da, oso-oso apurka bada ere. Hala ere, eskualdeko gainontzeko herrietan kontrako joera eman da, modu nabarmenagoan gainera. Gauzak hala, Aiaraldeko balantze demografikoa positiboa dela esan daiteke: 2001. urtean 39.583 pertsona bizi ziren eskualdean, 2010ean 41.951 ziren eta aurten, aldiz, 42.756.

Biztanleriaren zahartzea

Dena den, populazioaren igoera orokorra ez da demografiaren aldetik azken hamarkadan egon den aldaketa bakarra. Beste fenomeno batean ere sakondu du eskualdeak: biztanleriaren zahartzean. Ia herri guztietako adin azterketan ikusi daiteke hori. Amurrion 1.763 pertsona zeuden 2010ean 65 urte edo gehiagokoak, orain 2.278 dira. Arrankudiaga-Zollon 21 biztanle gehiago daude orain adin-tarte

Iazko Amurrioko Jaietako edadetuen egunean eginiko argazkia.

horretan, Artziniegan 85, Aiaran 57, Laudion 889, Okondon 25, Orozkon 58 eta Urduñan 117. Arakaldo da kontrako bidea hartu duen bakarra. 65 urtetik gorako 27 herritar zeuden udalerrian erroldatuta 2010ean, eta orain 20 dira.

Gauzak hala, Aiaraldean 2010ean zeuden 41.951 biztanleetatik 7.044k (%16,79) 19 urte edo gutxiago zituzten, 26.953k (%64,24) 20 eta 64 urte artean zituzten eta 7.954 (%18,96) ziren 65 urte edo gehiagokoak. Orain aldiz, 8.039 herritarrek (%18,8) dituzte 19 urte edo gutxiago, 25.003 bizilagun daude 20 eta 64 urte arteko adinarekin (%58,47) eta 9.714, aldiz, 65 urte baino gehiagorekin (%22,71). Egia da, 19 urtetik beherakoen adin tartean ere igoera txiki bat eman dela, baina 65 urtetik gorakoen artean eman dena bikoitza izan da, ia lau puntukoa.

Gauzak hala, joera horrek erronka handi bat jarriko du mahai gainean datozen urteetan, COVID-19aren pandemiak are agerikoagoa egin duena: geroz eta ugariagoak diren pertsona nagusi horiek modu egokian zaindu ahal izateko sistema eraikitzea.

Ia herri guztietan igo da populazioa azken 10 urteetan. Laudio da salbuezpen bakarra. 2010ean baino 805 pertsona gehiago bizi dira Aiaraldean orain.

Kulturen ohiturak
etxetik kalera

2010-2020 hamarkadan kulturartekotasuna normalizatzeko hainbat ekimen eta elkarte sortu dira eskualdeko herrietan.

Testua: Izar Mendiguren Cosgaya
Argazkia: Aiaraldea.eus

Zenbat aldatu da jendartea azken 10 urteetan kulturei dagokienez? Duela zenbait urte Espainiatik Euskal Herrira etorritakoek betetzen zuten, batik bat, migratzaileen profila. Azken urteetan, baina, nabarmen handitu da beste jatorrietako bizilagunen presentzia. Elkarbizitza sozialean ere ikusten da eragina: kultura anitzen zantzuak edonon ikus daitezke. Ideia bat egiteko, eskualdean 50 kultura ezberdin baino gehiago daude, udaletako datuen arabera. Hargatik, kulturartekotasuna eta inklusio soziala sustatzeko, elkarte edo eragile ezberdinak sortu dira eskualdean. Amurrion, esaterako, Zurrumurruen Aurkako Sareak gidatu du kulturen elkarbizitzaren ontzia. Laudion, aldiz, Kulturarteko Zubiak elkartea osatu zuten xede berdinarekin.

Kulturarteko bazkariak

Gainontzeko udalerrietan ez da kolektibo propiorik eratu, baina CEAR erakundetik herrialde ezberdinetan garatutako Bizilagunak Etxera dinamikan parte hartu dute. Finean, herri berean bizi diren kultura ezberdinetako bi familia elkartzean datza dina-

Herri bat, hamaika jatorri festa, edota Bizilagunak etxera dinamika garatu dira azken urteetan kulturen elkarbizitza normalizatzeko.

Kulturarteko bazkariak antolatu dira, besteak beste.

mika, bata bestearen etxera gonbidatu eta otordu baten bueltan elkar ezagutzeko.

Dena den, ez oso aspaldi, 2014. urte inguruan, Urduñako Adi Emakumeak taldeak Munduko Janariak dinamika burutu zuen. Zehazki, hilean behin Urduñan bizi zen emakume bat gonbidatzen zuten bere kutlurako jaki eta ohiturak partekatzera.

Modu horretan, saretzea lortu zuten hein batean. Alabaina, hamarkada honen bigarren txanpan (2015-2020) bertan behera geratu da ekimena.

Urduñakoa, baina, ez da da adibide bakarra. Amurrion, Planeten jaia egin zuten. Arrankudiaga-Zollon, aldiz, *Herri bat, hamaika jatorri* festa antolatu zuten 2013.urtean, herriko eskola komunitateak abiatuta.

Zernahi gisaz, bestelako formatuak ere baliatu dira aniztasuna bistaratzeko. Lamuzako Guraso Elkarteak bultzatuta, esaterako, *Nor-Nori-Nork* laburmetraia ekoitzi zuten, eta sari asko jaso ditu ikus-entzunezko festibal ezberdinetan. Hain zuzen, eskola eremuetan ematen dira gaur egun kulturarteko harreman gehienak. Hargatik, kulturartekotasuna txikitatik barneratu eta normalizatzeko estrategiak garatu beharko dira, munduko koloreek bizirik luzaro iraun dezaten.

Urduñan, Amurrion, Arrankudiaga-Zollon zein Laudion ekimen edota tailer propioak burutu dira bizikidetza indartzeko.

Sexu eta genero

aniztasuna, bidea egiten oraindik

Feminismoaren eskutik, bestelako sexu eta genero nortasunak azaleratu dira gizartean eta Aiaraldean ere nabaritu da horren isla.

Testua: Aitor Aspuru Saez
Argazkia: Aiaraldea.eus

XXI. mendeko bigarren hamarkadak balio izan du feminismoaren garrantzia mahai gainean jartzeko, duda barik. Horrek lagundu du bestelako sexu eta genero identitateen aldarrikapenerako eta LGTBI+ kolektiboaren beharrak ikusarazteko.

Izan ere, maiz ahazten da heterosexualitatera egokitzen ez diren aukerak adieraztea arriskutsua izan daitekeela. Esaterako, Laudioko gazte batek erasoa jasan izan zuen Bilboko Jaietan 2011n, bere bikotearenganako maitasun adierazpenak ez zituztelako gogoko izan erasotzaileek.

Edonola ere, gizarteari aitortu behar zaio zenbait urrats positibo eman dituela azken urteetan aniztasuna aitortzearen norabidean, nahiz eta helburutik oraindik oso urrun egon. Kasurik adierazgarriena herritar transexualena da, gehien-gehienek oso modu pribatuan bizi behar izan baitute euren egoera, publikoki estigma ez baita desagertu. Ordea, euren presentzia ikusezina izateak ez du esan nahi Aiaraldean iden-

Eskualdeko hainbat guraso antolatzen hasi dira, nerabe transexualen eskubideen alde.

Apurka-apurka transexualitatea azaleratzen ari da gizartean.

titate hori duten herritarrik ez dagoenik. Alde batetik, gazteek gero eta ausardia gehiagorekin jakinarazten dute "gizonezko" edo "emakumezko" rolek euren generoarekin bat egiten ez dutela. 2017an Aiaraldea Hedabideak erreportajea idatzi zuen horri buruz. Zenbait guraso euren seme-alaben ordezkari izan ziren; eta azaldu zituzten egunerokoan topatzen dituzten oztopoak, bai osasun erakundeekin, bai gizartean. Dena den, guztiak ez ziren gazteak, eta aspaldi bere bidea hartu zuen gizonezko batekin mintzatu zen Aiaraldea. Bere kasuan, lehenengo aldiz baliatu zuen Osakidetzak bularrak txikitzeko ebakuntza sexu aldaketarako prozesuan. Hedabideek horren berri izan zuten, eta polemikaren erdian topatu zuen bere burua, bat-batean.

Zorionez, gero eta modu naturalagoan zabaltzen ari da transexualitatea, Aiarako Susana Mendez Lertxundi bezalako ekintzaileei esker. Susanaren semeak adierazi zionean berak sentitzen zuen genero izaera zein zen, mundua hankaz gora jarri zen familian. Hala ere, errealitate hori ezkutatu ordez, behin barne mailan landuta, hitzaldia eskaini zuen Luiaondon, aldaketa azaltzeko eta auzokideen babesa jasotzeko.

Sexu aniztasuna gero eta naturalizatuagoa badago ere, transexualitateak oraindik ere tabua eta estigmaren zama ezin izan ditu gainetik kendu.

Transexualitatea
hizpide

Susana Mendez Lertxundi
Naizen elkarteko kidea

Azkenaldian, sexu aniztasuna pil-pilean egon da gizartean eta politikan, bereziki, LGTBI+ kolektiboko talderik zaurgarriena: transexuala.

Alde batetik, eta historian lehengo aldiz, jaiotzean ezarri zieten sexuarekin bat egiten ez duten adingabeak dituzten familiek sustatu dute kontzientziazioaren beharra gizartean, barneratzeko alua duten mutilak eta zakila duten neskak existitzen direla, eta beti gertatu dela hori. Adingabe transexualen familien elkarteak (Naizen Euskal Herria) sekulako ahalegina egiten ari dira errealitate hori azaleratzeko, ez baitugu nahi gure seme-alabak irainduak, mehatxatuak, jazartuak edo sexualki zein fisikoki erasotuak izatea. Ez dugu nahi ere estigmatizatuak izan daitezen, aurreko belaunaldiak bezala, bazterkerian bukatzeko. Finean, soilik espero dugu beste edozein gazteren bizitza izatea, euren eskubide eta aukerekin.

Hezkuntza lana egiten ari gara hainbat aurreiritzi indargabetzeko transexualitateari buruz. Adibidez, askotan entzuten da "norbait jaio dela gorputz okerrean", karma jostagarria izango balu bezala. Zentzugabekeria da. Norbanako transexualak ez dira jaiotzen "gorputz okerretan", gizarteak ezarri baititu arauak, eta horiek mugatzen dute zer den beharrezkoa "gizonezkoa" eta "emakumezkoa" izateko.

Zehazki, norbanako transexual batek "bestearen begirada" aldatu dadin behar du, onartua izatea eta bere errealitatea ulertzea. Ez dute behar zalantzan jartzea, baizik eta babestuak izatea, bide hori ez baita apeta kontua, eta sufrimendu handia dakar, baina baita borondatea eta benetakotasuna ere.

Bestalde, azken urteotan erakunde eta gobernuei kolektiboa babestea eskatu zaie, eta legeak sortzea aldaketa erreala eragiteko gizartean, errealitate hori normalizatzeko. Nazioarteko eta Europako zenbait estatuk ez ezik, Espainiako Estatuko 8 erkidegok ere (Extremadura, Valentzia, Andaluzia, Aragoi, Madril, Balearrak, Murtzia eta EAEk) despatologizazioaren aldeko legeak onartu dituzte. Baita identitate sexualaren autodeterminazioaren aldekoak ere. Zentzu horretan, Berdintasun Ministerioak aurkeztutako trans legeari buruzko eztabaida publikorako epea ireki da. Ekintzaile transexualen artean denbora luzez itxaron den ekimena da, askatasuna eta eskubide berdintasuna bermatzeko. Jakina, bagenekien frankismoaren oinordeko politikoek kontra egingo zutela, Inkisizioa berpiztu nahiko balute bezala.

Edonola ere, zailagoa izan da ikustea feminismoaren sektore batek lege horren aurka egin duela, ez bakarrik ezberdintasun teoriko eta intelektualen bitartez, baita gorroto eta mespretxu diskurtsoa baliatuta ere, eta horrek ezinegona sortu du emakume transen artean. Testuinguru horretan, uste dut ezinbestekoa dela 'Tránsitos. Comprender la transexualidad infantil a través de los relatos de madres y padres' liburua irakurtzea, Aingeru Mayor Naizen elkarteko kideak idatzita. Espero dezagun horrelako testuek laguntzea ulertuak izan eta babesa eskuratu dezaten.

Berdetik zurira, beltzetik pasatuz

Jon Apodaka Saratxo
Ikertzailea

Tamalez, mugikortasunarekin edo energiarekin erlazionatutako azpiegituren proiektuak, gehiegitan, komunetik diru publikoa botatzeko aukera dira.

Eskualdean egin nahi zituzten hiruzpalau zentral eolikoen proiekturen mehatxuarekin ekin genion hamarkadari. Hitzek etorkizun handia zuten, baina paperak ez zuen dena jasan. Zenbaki ekonomikoak ez ziren ateratzen, ezta energetikoak ere, eta egun batetik bestera desagertu egin ziren hitzemandako dozenaka lanpostuak eta mendekotasun energetikoaren konponbidea ziren proiektu energetiko horiek.

Bien bitartean, berehala, Amerikako Estatu Batuetatik beste aukera itxaropentsu bat zetorren, gehiago aberastuko gintuena, lan anitz sortuta. Teknika berriak erabiliz, lurpetik gasa ustiatzea errentagarria omen zen, nahiz eta 1980ko hamarkadako prospekzioetan errentagarritasuna ez sumatu. Garai hartan, hainbat arazoren konponbidea izan zitekeela saldu ziguten, baina berriro ere, zenbakiak ez ziren atera, behintzat, pastelaren zati bat izango ez zuten herritarrarentzat.

Urte gutxiren buruan, berdetasunetik beltzera igaro ginen, eta, azkenean, hamarkada zuri gelditu zen, hutsik, norabiderik eta alternatibarik gabe. Orain etapa berriari ekin diogu, eta denok konturatu gara bizitzeko beharrezkoak uste genituen gauza gehienak ez direla ezinbestekoak. Ikusiko dugu etorkizunean norabidea hartzeko gai garen, krisi klimatikora moldatuta, beranduegi izan baino lehen.

Tren zerbitzua
seguru eta irisgarriagoa bihurtzea aldarri

Lurpeko pasabideak jartzeko eta irisgarritasuna bermatzeko beharra azaleratu da azken urteetan.

Testua: Txabi Alvarado Bañares
Argazkia: Aiaraldea.eus

Aiaraldear askorentzat, Renferen C-3 linea bilakatu da eskualdearen bizkarrezurra, garraio hori baliatzen dutelako herri batetik bestera joan edota Bilboraino iristeko. Baina ohikoan baino zeresan gehiago ekarri du tren zerbitzuak hamarkada honen bigarren zatian, hainbat gertakari medio.

2016an gazte bat hil zen Aretako geltokian, trenak harrapatuta. Istripuak agerian utzi zuen lurpeko pasabideen beharra. Hildakoaren gurasoek azpiegitura hori aldarrikatzeari ekin zioten, eta Espainiako Sustapen Ministroarekin biltzera iritsi ziren. Hainbat alderdi politikok bat egin zuten eskaerarekin, eta bi urte beranduago ireki zen pasabidea. Amurrioko geltokian ere antzeko azpiegitura bat eraikitzekoak ziren, baina atzeratu egin dira lanak.

Irisgarritasunaren aldeko borroka

Trenean irisgarritasuna bermatzea ere sarri eskatu dute aiaraldearrek. Maria Luisa Goikotxea urduñarrak ekin zion hori aldarrikatzeari, mugikortasun oztopoengatik Bilboraino joan ezin zuelako. Mobilizazio bat egin zuten lehenbizi hirian (2016), ehunka lagunen parte hartzearekin. Beste hainbat ekimen ere garatu zituzten. 120.000 pertsonaren sinadurak lortu zituen Goikotxeak, eta Madrilen entregatu zituen. Parapentean ere ibilaldia egin zuen irisgarritasunaren beharra lau haizetara zabaltzeko. Azkenean, Urduñako bizilagunak bere helburua lortu zuen: trenean arrapala bat jartzea.

Bestalde, Latiorro auzoa eta Laudioko erdigunea konektatzen zituen zubia kendu zuten iaz, irisgarritasun irizpideak betetzen ez zituelako. Obra ikusgarri bezain konplikatua izan zen. Bestalde, aipatzekoa da ere errepidee-

Orduña
adif
ESKUBIDEAK
=
AUKERAK
DIF
ENFE

Maria Luisa Goikoetxeak lortu egin zuen azkenean tren zerbitzuan arrapala jartzea.

tako konkorrak kentzearen alde Mateo Lafraguak eginiko lana. 'Ponle freno' saria jaso zuen artziniegarrak horregatik.

Pandemiaren eragina

COVID-19aren pandemiak tren zerbitzuaren hainbat gabezia azaleratu ditu. 2020ko irailetik ohikoa bilakatu da trenak egun batetik bestera bertan behera geratzea, langile nahikorik ez dagoelako. Ordu zehatz batzuetan bagoien barruan jende asko pilatzea eragin du horrek, koronabirusa prebenitzeko segurtasun distantziak bermatzea ezinezkoa bilakatuz.

Renfek adierazi du auarki konponduko duela arazoa, baina CGT sindikatuak salatu du enpresa nahita ari dela zerbitzua kaskartzen, pribatizazioan sakontzeko.

Bestelako gabeziak azaleratu ditu COVID-19aren pandemiak tren zerbitzuan, bidaiak egun batetik bestera kentzea kasu.



Aiaraldean egosi direnak

Gorka Belasko

Amurrio,
parte hartzearen aitzindari

Aurrekontuen prozesu parte hartzailea, auzobegiraleak... Ekimen berritzaile ugari garatu ditu azken hamarkadan Amurrioko Udalak.



Bi hamarkada daramatza Amurrioko Udalak herritarren parte hartzerako espazio eta prozesu ezberdinak gauzatzen. 2003 eta 2006an sortu zuten Arnasa Foroa, eta haren oinarriekin osatu zuten Herritarren Parte Hartzerako araudia. Hala, 2013an udalak arlo propio izendatu zuen "herritarren parte hartzea eta gardentasuna", eta pertsona espezifikoak jarri zituen lanean.

Modu horretan eratu zituzten, esate baterako, Auzo Asanbladak. Oraintsu, ordea, Nagusien Kontseilua sortu dute, adinekoekin eginiko bi urteko gogoeta prozesuaren emaitza izanik.

Dena den, Aurrekontu parte hartzailea da, ezbairik gabe, ekimenik esanguratsuena. Modu horretan, amurrioarrek aukera izan dute udal aurrekontua erabakitzeko eta eurek proposatutako proiektuei bide emateko.

Alabaina, bestelako esparruetan ere burutu dira parte hartze proiektuak, Mendiko (Lukas Rey

ohia) eta Zabaleko eskoletan kasu, Elkartoki izeneko proiektuaren bidez. “Ikastetxeetako jolastokiak espazio inklusiboak izatea bilatu dugu horrekin, ikasketa, jolas, mugimendu eta harremanetarako berdintasunean eta aniztasunean oinarritutako guneak izatea”, azaldu du Ana Izquierdo Lejardi parte hartze teknikariak.

10 urteko ibilbidearen ondoren, hausnarketan jarraitzeko premia azpimarratu du adituak: “Sustatzen ari garen eredu parte hartzailea pentsatu behar dugu, eraldaketa soziala bilatzeko”. Hain zuzen, hori dute xede, aitortu duenez: “Parte hartzea jendartea aldatzera bideratuko duen eredurantz jo nahi dugu, espazio eta une isolatuetara partaidetza mugatu ez dadin”.

Funtsean, prozesu ezberdinen bidez, herritarrak subjektu aktibo izatea nahi dute, hartzaile soiletatik haratago. Horretarako, elkarteen sarea ehuntzea izango da erronka, “eta eragileei ikusgarritasuna emateko tresnak eskaintzea, herritarren parte hartzea sustatzeko elkarlan ekintzak gauzatuz”. Izan ere, Izquierdo Lejardirentzat garrantzitsua da aztertzea nork hartzen duen parte eta nork ez, "sektore jakinek desberdintasun handia dute botere harremanetan, eta ondorioz, prozesu parte hartzaileetan ere".

Hargatik, Parte Hartze Alorrak arreta berezia jarriko du datozen urteetan zaurgarriak diren pertsona horien integrazioan, "botere edo erabakiguneetan" parte har dezaten.

Zabaleko eta Mendiko ikastetxeetan prozesu parte hartzaileak egin dituzte jolastokiak espazio inklusiboak eta errespetuzkoak izateko. Halaber, aurrekontu parte hartzaileak garatu dituzte azken urteetan.



Auzolanak, herriak zaintzeko eta garatzeko motore

Tokiko ondarea eta ingurumena auzolanean babesteko 7 egitasmo garatu dira gutxienez azken 10 urteetan Aiaraldea osoan

Testua: Izar Mendiguren Cosgaya
Argazkia: Aiaraldea.eus

Pertsonek egiten dituzte berezi momentuak, proiektuak eta txokoak. Zentzu horretan, oso aberatsa da Aiaraldea. Izan ere, asko dira auzolanean eraikitako proiektuak, oso alor ezberdinetan gainera: kulturan, jendartean, euskararen alorrean, ingurumenean...

Tertangako errota da auzolanean berreskuratutako guneetako bat. Ubiros errota konpontzeko auzolandegiak egin zituzten bertan 2013. eta 2015. urteen artean, eta udaro 20-25 gazte batu izan dira zeregin komunitarioa ardatz zuen udalekura, Tertangako aterpetxean babes hartuta.

Horrez gain, gari-jotzea bezalako ohiturak mantendu dituzte urteetan zehar.

Tertangako errota auzolandegien bidez konpondu zen 2013-2015 artean. Bertan, halaber, gari-jotzea bezalako ohiturak mantendu dituzte urteetan zehar. Urduñan, aldiz, abereak zaintzeko aterpetxea sortu dute auzolanean.

Urduñako ekimenak

Urduñan ere makina bat auzolan deitu dira. Hiriko ibaia, esaterako, Bitxobola talde ekologistak sustatutako deialdien bidez garbitzen dute, ingurumenaren mesedetan. Bestalde, oraintsu, 2020an, *El Refugio de los sabios* proiektua abiatu du, laguntza behar duten animaliei babesa emateko aterpetxea. Hala, auzolanean atondu dute Rondina industriagunean kokatutako futbol zelai zaharreko egoitza; eta orotariko abereak dituzte gaur egun, urduñarrek zaintzen dituztelarik.

Ildo beretik, Urduñako Udalak La Paul inguruko zelaiak, putzuak eta bideak hobetzeko lan egun ugari antolatu zituen 2016. urtean, eta herritar talde batek hauspotu zuen eginkizuna. Horrez gain, Urduñako bolunta-

SOS Lamuza Parkea plataformak hainbat auzolan egin zituen bere ibilbidearen hasieran.

rioei esker, Foru plazako lorategiak berritu dituzte. Adingabeen zentroko gazteek parte hartze handia izan dute ekimen horietan, eta etxebizitza proiektu bat garatzen ari dira La Antiguako santutegian.

Zollon ere, elkarlanean garbitzen dute urtero bidezidorra eta herria. Horretarako eguna zehaztu ohi du udalak, eta traktore eta guzti ibiltzen dira herriko gune ezberdinak txukuntzen, sastrakak jasotzen eta beste.

SOS Lamuza Parkea

Laudion, aldiz, Lamuza parkearen "utzikeria" salatzeko, natur-

2014. eta 2017. urteen artean ekintza ugari antolatu zituen auzolanean SOS Lamuza Parkea plataformak. Laudioko natura eta kultura babestea ditu xede eragileak.

gunea zainduz kultura hauspotzeko proiektua saretu zuen 2014. urtean SOS Lamuza parkea plataformak. Batetik, parkearen osasuna hobetzeko auzolanak egin zituzten; eta, bestetik, herriko kultura zaintzeko jarduerak proposatu. Horien artan, "kasinoa" berreskuratzeko apustua mahaigaineratu zuten, urte batzuk beranduago (2017an) Laudioko Udalak azpiegitura publiko gisa ireki zuena. Plataformaren ekimen berezienen artean "Parke Eguna" egon zen, hiru urtez ospatu zena (2014-2017 artean, hain zuzen). Kulturkon kongresua, Laudioko kultur eragileen mapa... Bestelako ekimenak ere sustatu zituen plataformak.

Lubakiak berreskuratuz

Baranbion, bestalde, boluntario eta profesionalen arteko elkarlana burutu zuten hamarkada honen amaieran, 2020an. Helburua, Arlamendiko mintegiko horma sendotzea izan zen, XVIII. mendeko aztarnak mantentzea. Hala, Amurrioko Aztarna Etnografia Elkarteak bideratu zituen lanak. Arrankudiaga-Zollo eta Laudioko lurretan, bestalde, Burdin hesia berreskuratu dute, Gerra Zibilean Bilbo babesteko eraikitako lubaki bidea.

Orozkon, ostera, Kirikiñausien ibilbidea da, ziurrenik, auzolanaren ikur handienetako bat, urtero urriaren amaieran Gaztain Eguna ospatzen dutelarik bertan, ehunka lagun elkartzen dituen zita. Modu horretan, iraganean gaztainak herrian izandako garrantzia gogoratzen dute, eta aitzakia horrekin festa egunerako bideak txukundu.

Lan egun ugari deitu dira Laudion, Zollon zein Urduñan herrietako txokoak zaintzeko. Baranbion, bestalde, Arlamendiko horma sendotzeko auzolana egin dute 2020an.

Euskara, babes aterki

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren sorrerak elkarteen eta instituzioen aliantzak ekarri ditu eskualdera. Haize-erroten dinamikatik hasita, *Aiaraldean 30 egun euskaraz* edo Euskaraldia bezalako ariketa sozialak gauzatu dira. Bestalde, Korrika edota Berbalagun gisako ekimenek euskararen erabilera sustatzeko aparteko jarduerak eskaini dizkiote hizkuntzari.

Euskalgintza Aiaraldean:
10 urtean, hamaika jauzi

Euskaraz Bizi Nahi Dut eguna, Korrika, Euskalgintza Kontseiluaren sorrera... Ahots eta ekimen ugari hartu ditu euskarak azken hamarkadan.

Testua: Izar Mendiguren Cosgaya
Argazkiak: Aiaraldea.eus

Zer lirateke euskara eta euskalgintza Aiaraldean, mugimendurik gabe? Haizerrotek bezala, herritarren erabilera zein bultzadari esker egin du gora euskarak. Horren adibide dira eskualdeko herri ezberdinetan antolatutako Euskaraz Bizi Nahi Dut egunak, Korrikarekin batera ahaldundutako euskal hiztunak, Ahobizi edo Belarriprestak.

Urteak daramatzate AEK zein udal euskaltegiek herritarrak euskalduntzeko lanean. Zeregin horretan bestelako dinamikak ere gorpuztu dira, Berbalagunak kasu. Hala, ekimen berriak garatu dira tokian toki: Berbabentura (euskara eta kirola uztartzen dituen proiektua), Eman Oxigenoa Euskarari (gazteak, mendia eta euskara lotzen dituen abentura egitasmoa) eta abar luze bat.

Euskararen bilakaera datutan

1991n eskualdean 6.000 lagun ziren euskaraz hitz egiteko gai, eta bi hamarkadaren perspektiban %73 igo da etxe giroko hizkuntzaren erabilera. Dena den, 2014ko EUSTATeko datuen arabera, bizilagunen %11.2 soilik komunikatzen dira egunerokotasunean euskaraz, nahiz eta komunikatzeko gai diren %57. 2016an ikerketa egin zuen Aztikerrek Aiaraldean, eta Ekhi Zubiria soziologoak plazaratu zuen emaitza 2016an antolatutako Aiaraldea Euskaldun jardunaldietan, Amurrion. Ikerlarien esanetan, Aiaraldean galtzear zegoen hizkuntza 1970ko hamarkadan, *Hizkuntza borroka Euskal Herrian* liburuan (Euskaltzaindia) ageri denez, "Orozkon, Arran-

2034
OTXANDIOTIK IRUÑERA

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak ekimen ugari egin ditu 2016tik gaur arte.

kudiagan eta Arakaldon euskaldun kopuru gehiago bazeuden ere". Azken 40 urteetan, ordea, euskarak jauzi izugarria eman duela bistan da: euskaldunen kopurua, egun, %30ekoa da bailaran, 1970-80. hamarkadetan %10koa zen.

Dena den, etxeko hizkuntzaren bilakaera ez da horren ona: Aiaraldeko haurren %10ek baino gutxiagok jasotzen du familian edo etxean euskara, eta umeen %70 elebidunak dira eskolaren eraginagatik. Zentzu horretan, hezkuntza da euskararen arnas-

2017an "30 egun euskaraz Aiaraldean" bizitzeko erronka luzatu zien Euskalgintza Kontseiluak herritarrei, eta 4.500 lagunek hartu zuten parte, astebeteko txandak antolatuta herrika.

guneetako bat: 1986an %75 matrikulatzen zen A ereduan, eta egun %18. Lagun arteko harremanetan, ordea, %12 da euskalduna, baina euskaraz aritzen diren taldeak %1, eta lan munduan %3-4k soilik darabilte euskara. Edozelan ere, euskararen ezagutza %30ekoa izatea lortu da.

Ekimen ugari

Euskararen erabilera sustatzeko azpimarratzekoa da Aiaraldean eginiko lana. Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren sorrera mugarria izan zen 2016an, eskualdeko 42 eragilek egin baitzuten bat euskara saretzeko beharrarekin. Hala, dinamika ugari abiatu zituzten eskualdeko 9 udalerrietan. Hain zuzen, eratu eta gutxira, Euskararen Egun bateratua antolatu zuten lehenbizikoz, Euskararen Haizerrotak dinamikarekin. Funtsean, euskararekiko konpromisoak hartzera gonbidatu zituzten herritarrak, eta Amurrio bihurtu zuten euskararen plaza. Handik urtebetera, berriz, 30 egunez Aiaraldean euskaraz bizitzeko erronka jarri zuten mahaigainean, euskara "armairutik ateratzeko" kanpaina arrakastatsua burututa. Izan ere, 4.500 bizilagunek egin zuten

"Euskararen aldeko konpromisoak eta maitasuna" zabalduz ospatu zuten Euskararen Egun bateratuta lehenbizikoz eskualdean, 2017an Amurrioko plazan.

ALNER 2000, S.L.
ASEGURU ARTEKARITZA
Zumalakarregi 53, Laudio
joserra@alner2000.com
94 672 53 85

2019an "Bai we can" kanpaina garatu zituen Euskalgintza Kontseiluak, instituzioek konpromisoak hartzeko.

bat astebetez euskaraz bizitzeko ahaleginarekin. Urduñan eman zioten amaiera kanpainari, beste ekitaldi jendetsu batekin.

2018an, aldiz, Euskaraldiak hartu zuen lekukoa, ordura arte Aiaraldean gisa, beste eskualde bakan batzuetan gauzatutako ariketa Euskal Herri mailakoa bihurtuta. Modu horretan iritsi ziren Ahobizi eta Belarripresten rolak. Eta, 2020an, bi urte beranduago, geratzeko itzuli dira, Euskaraldiko bigarren edizioarekin batera, euskararen arnasgune izateko Ariguneak gehituta. Bi edizioen artean, baina, Bai We Can dinamika garatu zuen Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak (2019). Batetik, 'Ez we can't' leloarekin euskal hiztunek bizi dituzten oztopoak salatu zituzten. Eta, bestetik, 'Bai We Can' lemarekin, instituzio eta alderdiak egunerokotasunean eta euren jardunean euskara in dartzeko konpromisoak hartzera animatu zituzten.

Pausoak udalerrietan

Horrez gain, tokian toki, bestelako egitasmoak garatu dira. 2010ean, esaterako, Laudioko Basalarrina elkarteak *Laudion euskarak pauso bat haratago* prozesua gidatu zuen, herriko elkarteen babesarekin. Amurrion, berriz, Euskaraz Bizi Nahi Dut Eguna ospatzen dute urtero; eta Urduñan, Aiaran zein Artziniegan Euskararen Egunak egiten dituzte. Udal mailan ere eman dira pausoak. Orozko, esatera-

Hizkuntza eskubideen defentsan, berriz, Bai We Can kanpaina egin zuten 2019an Aiaradean. Hala, zenbait konpromiso hartu zituzten instituzioek, egunerokotasunean eta euren jardunean euskara indartzeko.

Azken hamarkadan milaka herritar eta euskal hiztun atera dituzte kalera Korrikaren 5 ediziok eta Araba Euskarazen 3 jaialdik (2011n Laudion ospatu zen, eta 2013an zein 2020an Amurrion).

ko, UEMAn (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) sartu zen 2017an. Zernahi gisaz, urrutira heldu da aiaraldearren bidez euskara. Horren adibide da *Oxigenoa euskarari 6.000 metroan ere* ekimena, eskualdeko 3 gaztek eta Julen Reketa mendizaleak, Euskal Herriko beste zenbait lagunekin Himalayara eginiko espedizioaren aintzindari.

Horrez gain, euskararen aldeko ekimen jendetsuak egon dira. Horien artean daude Araba Euskaraz jaialdiak (2011n Laudion ospatu zena eta 2013an zein 2020an Amurrion), edota Korrikaren bost edizio. Euskararen olatuak, gora-behera baina bizi jarraitzen duenaren adierazle.

Euskararen bilakaera gorabeheratsua izaten ari da

Euskararen erabileraren bilakaera gorabeheratsua izan da azken urteetan, EUSTATen arabera. Eskualde eleanitz baterantz goazela dirudi, gaztelaniak nagusi izaten jarraitu arren.

Testua: Txabi Alvarado Bañares
Argazkia: Aiaraldea.eus

"Euskararen etorkizuna, neurri handi batean, Laudio bezalako herrietan jokatzen dela uste dut. Herri hauetan euskara ezberdin bat sortuko da. XXI. mende bukaerako Laudioko euskara euskalki ezberdin bat izango da, Laudion sortua. Seguru asko erdararen presentzia gehiago izango du, beharbada, Lizartza edo Aulestin baino, baina hemengo euskara izango da".

Kike Amonarriz umoregile, telebista-aurkezle eta soziolinguistaren hitzak dira horiek, 2016an Laudio BHI Institutuan eginiko hitzaldi batean esandakoak. Urte horretakoak dira baita ere Aiaraldeko udalerrietako euskararen erabilerari buruzko azken datu estatistikoak, Eustatek plazaratutakoak. 1991. urtetik darama erakunde horrek ikerketak argitaratzen, bost urtean behin. Datorren urtean argitaratuko dira, beraz, azken datuak, baina orain artekoek balio dute eskualdean ematen ari diren joerak aztertzeko.

Herriz herri

Euskararen erabilerak bilakaera gorabeheratsua izan du Aiaraldeko etxeetan. Amurrio hartu dezakegu adibide gisa. 2011n %2,6k soilik hitz egiten zuen euskaraz etxean udalerri horretan. Euskaraz eta gazteleraz, aldiz, %5,1 mintzatzen zen. Gainontzekoek gazteleraz soilik -gehienekedo beste hizkuntza batzuetan hitz egiten zuten bizitokiko lau pareten artean. 2016an, aldiz, %2,5ek hitz egiten zuten euskaraz soilik etxean eta %8,43k euskaraz eta gazteleraz.

Gainontzeko herrietan ere antzeko fenomenoa errepikatzen da, baina aldaerekin. Arakaldon %32,8k jarduten zuen euskaraz 2011n eta %13,6k, aldiz, bi hizkuntzetan. Bost urte berandua-

Aiarako euskararen asteburuan egiten den ekitaldiaren irudia.

go, %18,12k hitz egiten zuten soilik euskaraz eta %12,86k euskara eta gazteleraz.

Arrankudiaga Zollon %23,43k egiten zuten berba soilik euskaraz duela bederatzi urte eta %15,86k bi hizkuntzetan. Duela lau urte, aldiz, %21,08k euskaraz ziharduen eta %15,36k bi hizkuntzetan. Artziniegan %2,55 mintzatu egiten zen bakarrik euskaraz etxean 2011n, eta %5,11a bi hizkuntzetan. 2016an %3,25ek soilik euskaraz hitz egiten zuten eta %8,45ek euskaraz eta gazteleraz. Aiaran %2,91k euskara bakarrik baliatzen zuen etxean 2011n, eta %4,7k bi hizkuntzak. Handik bost urtera, aldiz, %2,9 eta %9,9 ziren, hurrenez hurren. Laudioko etxeetan %3,2 bizi zen euskaraz eta %5,7 euskaraz eta gazteleraz 2011n. Handik bost urtera %2,99 eta %8,19 ziren.

Okondon 2011n %4,8k praktikatzen zuten soilik euskara etxean eta %5,5ek bi hizkuntzak. Bost urte beranduago %3,7 eta %8,36 ziren, hurrenez hurren. Orozkon datuak ez dira asko aldatu. 2011n %20,8ek berba egiten zuten soilik euskaraz etxean eta %20,41ek bi hizkuntzetan. 2016an %20,41 eta %21,4 ziren, hurrenez hurren.

Urduñan %2,3 euskaraz mintzatzen zen etxean eta %4,5 bi hizkuntzetan duela 9 urte. 2016. urtean, aldiz, %2,4 eta %6,68 ziren, hurrenez hurren.

Ondorioak

Herri bakoitzak bere gorabehera propioak dituen arren, badaude joera batzuk ia toki guztietan eman direnak. Oro har, jaitsi egin da etxean euskaraz soilik hitz egiten dutenen ehunekoa, eta igo egin da euskaraz eta gazteleraz hitz egiten dutenena.

Gainera, ia herri guztietan igo da euskara eta gaztelera ez diren beste hizkuntza batzuk hitz egiten dituztenen ehunekoa. Eskualde eleanitz baterantz goazela dirudi, gaztelerak nagusitasuna izaten jarraitzen duen arren. Ikusteke dago etorkizuneko Aiaraldea eleanitz horretan zer nolako funtzioa beteko duen euskarak. Dena den, bost urte oso denbora gutxi da bilakaera bat aztertzeko. 2021. urteko datuak ikusi beharko dira ondorio sendoagoak izateko.

Euskara... ala ez gara?

Jabi Isasi

2021ean
aterako da eguzkia!

Asier Amondo
Korrikaren koordinatzailea

2020a ahazteko moduko urtea bihurtu da: pandemiak gogor jo gaitu guztiok eta gogor jo du euskara ere!

2020 honetan, euskararen aldeko jai guztiak bertan behera geratu dira: ikastolen jaiak, Eskola Publikoaren jaia, Sortzenek antolaturiko jaia, KORRIKA (nahiz eta 2021ean egitekoa zen)... Praktikan, euskaraz egindako kultur jarduerak desagertu egin dira, eta zerrendari tiraka jarraituko bagenu... "Zaurgarri" denari buruz asko hitz egiten ari da azken bolada honetan, eta zalantzarik ez dut euskara ere zaurgarrien artean sartu behar dugula. Pandemia honetan frantsesez eta gaztelaniaz mintzatu da nagusiki, euskara bazterrean utzita. 2020an, euskarak kaleak eta plazak galdu ditu; euskarak, zenbaitetan, etxean konfinatuta egon behar izan du, eta gehienetan etxera heldu ezinik geratu da. Horrek guztiak utziko duen ajea itzela izango da; euskalduntzea, oro har, kinka larrian geratuko da, finean, euskaltegietako leku mugatua, distantziak, maskarak, beldurrak... hortxe daudelako. Praktika-jarduerek ez dute kalerik, plazarik, euskararen aldeko erabileran eta sozializazioan eragiteko; normalizazioak, orain, ez du lekurik erakunde, enpresa eta abarretan, lehentasunak beste batzuk direlakoan.

AEKrentzat kolpe handia da KORRIKA ez egitea, KORRIKA euskararen aldeko sustapen-ekimenik handiena eta integratzaileena baita. Udaberri hau KORRIKA barik pasatuko dugu, baina euskarak kalean, errepidean, plazan egon behar du berriro ere! Eta hori horrela izatea ez dagokigu soilik herri ekimeneko erakundeoi, hori administrazioei ere badagokie! Euskarak aurrera egingo badu, elkarlanean izan behar du! Geure hizkuntza ataka horretatik atera behar dugu, baliabideez hornitu, tokian tokiko politika linguistiko egokiak abiatu...

2021ean KLIKA egin behar dugu sistema eragilean, eta EUSKAHALDUN garela aldarrikatu behar dugu inoiz baino gehiago.

Faktoria

euskaraz egituratutako proiektu eraldatzaile berrien epizentro

Komunikazio Leiho bat izatetik Aiaraldea Kooperatiba Elkartera jauzi: hezkuntza, aisialdia, elikadura burujabetza, ekonomia sozial eraldatzailea, feminismoa, kultur-sorkuntza eta komunikazioa euskaraz sustatzeko helburua du 2021. urtean ateak irekiko dituen Aiaraldea Ekintzen Faktoriaren egoitza izango denak.

Testua: Txabi Alvarado Bañares
Argazkiak: Faktoria eta Behark arkitektura estudioa

Esku artean dugun aldizkariak hamarraldi honen kronika egiten duen modu berdinean begiratu ahalko genioke Aiaraldea Ekintzen Faktoriaren historia hurbilari ere. Orrialdez-orrialde xehetzen den testuinguru horretan jaio eta garatu baita proiektua; Aiaraldea Komunikazio Leiho bezala jaio, eta bizitzako esparru guztietan euskaraz egituratuko diren proiektu eraldatzaileak sustatzeko helburua duen Faktorian bihurtu da urratsez-urrats. Ez da bide erraza izan, baina lehen harri hura jarri eta hazi horiek erein zituzten gazte eta ez hain gazte haien ausardia eta determinazioari esker, proiektua gaur egun denera arte hazi da.

Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak eskualde osoko 430 familia ditu bazkide, 15 langile egunero-egunero hamaika arlotan euskarari bide berriak zabaltzen, eta aurki bere egoitza soziala irekiko du Laudioko Industrialdean, Errotari kalean hain zuzen ere, "dabillan harriari etzaika goroldiorik lotzen" eta.

Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak 2018. urtean erabaki zuen industrialdean kokatutako 500 metro koadroko pabilioia erostea, amets

Pandemiak baldintzatutako obra-lan luze eta neketsuen ostean, ateak irekitzear da herri mugimendutik eta auzolanean sortutako proiektuaren egoitza soziala

750 metro koadroko espazioan, kultur sorkuntzarako oholtza, ikus-entzunezkoen estudioa, bulegoak, bilera gelak, sukaldea, jantokia, taberna, ekitaldi txikietarako antzokia, haurrentzako jolas eta hazkuntza gunea, elikagaien ekonomatua, kamerinoak, komunak eta dutxa, biltegiak, plaza publikoa, kanpoko atseden-guneak eta azpiegitura materialak bilduko ditu 2021eko udaberrian ateak irekiko dituen Faktoriak.

Pandemiak sortutako atzerapenen ostean, Faktoriaren erreforma lanak udaberrian amaitzea aurreikusten da.

berri bat ereiteko bertan; euskararen eta proiektu eraldatzaileen etxea eraikitzea. Kooperatibaren baliabide propioekin egin zen erosketa, bazkideen diru-ekarpen handiei esker, dependentziarik gabeko bidea urratzeko. Aterpe berriak izan behar zituen espazioak, eta baliabideak zehaztu ondoren, pabilioaren erreforma lanen proiektua Behark arkitektura estudioaren esku utzi zen helburu argi batekin: euskararen etxe modernoa, erakargarria eta erabilera anitzekoa izatea, bai eta lortu ere. 2020. urtean obra lanak bukatzea aurreikusten zen arren, COVID-

Aiaraldea Kooperatiba Elkarteko bazkideen ekarpen ekonomikoari esker erosi eta erreformatzen ari da Laudioko industrialdean kokatutako pabilioia.

Oinatz ekologikoa ahalik eta txikiena izan dadin egurra erabiliz eraiki da Faktoria, eta energia geotermikoaren bidez berotu eta hoztuko da.

19aren pandemiak dena zaildu eta atzeratu du. Hala ere, Faktoria irekitzeko eguna hurbilago dago jada, erreforma-lanak azken txanpan sartuta baitaude.

Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak sustatu nahi dituen balioekin eraiki da Faktoria, sostengarria den egurrezko egituraren eta akaberen alde egin eta zoruan zundaketak eginez, energia geotermikoa hautatu da espazio berotu eta hoztu ahal izateko.

Aterpetutako plaza ireki baten bueltan, lau espazio nagusi eta aldakor izango ditu udaberrian irekiko den Faktoriak. Euskarazko kultur sorkuntza eszenaratzeko eta sustatzeko oholtza bat izango du, erabilera anitzeko areto multimedia batekin, zeina Aiaraldea komunikabidearen ikus-entzunezko estudioa ere izango den. Bigarren espazio nagusia Ekonomatuarena izango da, tokikoak eta ekologikoak diren elikagaiak merkaturatzeko. Egunero irekita egongo da eta sukalde eta taberna zerbitzu bati lotuta egongo da. Hirugarren espazioa haurrentzako jolas-gunea izango da, bai eta hezkuntza balio eraldatzaileetan lantzeko eskolaz kanpoko ekintzak, jardunaldiak eta tailerrak garatzeko tokia ere.

Azken gune nagusia goiko solairuan kokatuko da, Kooperatibako langileen lantokiak eta bilera gelak egongo dira bertan, baita plaza ireki osagarri bat ere. Auzolanean sortutako Faktoria proiektu herritarrak 750 metro koadroko espazioa irekiko dio aurki eskualdeari, euskararentzako zeruertz berriak urratzeko.



Espazio atsegin, erakargarri eta garaikide hau erabilera anitz eta aldakorretarako pentsatua dago. Erreforma proiektua eta obra zuzendaritza Behark Arkitektura estudioaren esku egon da.

Topatu zure bidea;
bilatu eta aurkitu!

Begoñe Olabarria Astobiza
Irakaslea

Ezer ez dator zerutik. Ezebez. Esfortzu handiagoa edo txikerragoa egin beharko da, baina ahalegindu egin behar da, gura dana lortuteko. Bardin-bardin hizkuntzea edota kulturea ezagutu, barruratu, elikatu, erabili, zabaldu... gura badozu. Ezagun da horretarako bide asko dagozela: etxekoak, lagunak, alkarteak...

Etxekoak dira oinarri, eurak markatzen daurie bidea umetan eta gaztaroan. Sarritan pentsetan dogu euskierea edo kulturea transmititako euskalduna izan behar dala. Are gehiago, euskieraz berba egitea eta kulturea ondo ezagututea derrigor-derrigorra dala.

Ba, gurean, amak eta aitak ez daurie sekula euskieraz berba egin euren artean, baie seme-alabeiri beti transmititu dauskue gurea euskierea dala. Iturri horretatik edan gendun eta ikisi gendun euskierea erabilten. Gurea zalako erabilten gendun, eta dogu, harro.Nire bidea egiten hasi nintzenean, “nirea” egiten segidu gura nendun. Hori gatxa zan, baie. Izan be, erreferentzia danak, edo gehienak, kanpotarrak zirean; ingurumariko lagunen gustuko musikea, telebisiñoko serieak eta abar.

Halango baten, BERTSO ESKOLEA, KULTURA ALKARTEA! agertu zirean nire bidean, zorionekoa ni! Horreek entzun nenduzan egunean, orduan bai, topatu nendun nire bidea! Topau; bilatu eta aurkitu, baie lelengo bilatu. Bidea topatu egin behar dalako, bilatu, horretara joan. Ezer ez dator zerutik. Horretarako aukerea kultur alkarteak emon austen; Berbaz Kultura Alkarteak, hain zuzen be. Hor ikisi nendun, edo barriro ikisi hobeto esanda, geureaz inguratuta, geurea ezagutuz, barruratuz, elikatuz, erabiliz, zabalduz geu garela. Asko ikisten da kulturgintzatik, iturri emankorra da, baie horretarako beragaz bat egin behar da, beragana bildu. Topau zeure bidea, egin esfortzua eta izan zeu, eurenganatu ez zaitzaten.

Aiaraldeko
informazio itsas-argia

Lexuri Ugarte Aretxaga
Arabako Foru Aldundiko Euskara eta Gorbernu Irekiko zuzendaria

Gertu gertutik, euskara hutsean sortu eta hazi den komunikabidea. Gaztelania bakarrik ulertzen duten hainbat aiaraldearrentzat erreferente den "informazio-itsasargia". Administrazio batzar, herri, udalerri, bailara oso bat ehuntzea lortu duen proiektua. Makina bat aiaraldearri mundu digitalera salto egin eta informatuta egoteko azken bultzada eman dion abentura zirraragarria.

Orain dela hamar urte ereindako haziak enbor sendo bat du egun, eta fruitu berri ugariz betetako hamaika adar bota dituela antzeman daiteke, ez bakarrik Aiaraldean, baita Araba osoan ere.

Helburu argi batek bultzatu zuen orain handi den proiektu hura: Aiaraldean, euskara hutsean egindako komunikabide batek, argudio nahikorik bazuela etorkizunari aurrez aurre begiratzeko. Eta urteen poderioz, hala dela erakutsi digu. Komunikazioaren munduan murgilduta egon garenok jakin badakigu zein zaila den komunikazio proiektu bat aurrera ateratzea. Geroz eta berri-paper gutxiago saltzen zirenean, pantailak indartsu zetozela antzematen hasi ginenean, Aiarako zenbait euskaldun-euskaltzale ausartek, erronka polit bati heldu zioten: euskara hutsean komunikatzeari.

Euskarak, oztopoak baino gehiago, aukera berriak eskaintzen dituela erakutsiz... Euskaraz lasai asko sozializatzeko beta badagoela, euskarak asko duela esateko, azaltzeko, bizitzeko, gozatzeko ... "Euskaraz nahi izatea" dela askotan falta zaigun bakarra. Eta euren balentria hari esker, gaur, 10 urteren buruan, zorionekoak gara, ez bakarrik Aiaraldeko euskaldunok, baita beste hizkuntzetan komunikatzen diren guztiak ere.

Sozioekonomia, kolokan

Lan gatazken hamarkadara itzuli da Aiaraldea 2010-2020 urteen artean. Izan ere, fabrika eta enpresa asko itxi dituzte, eta krisi ekonomikoak gogor astindu ditu eskualdeko langile eta familiak. Lehen sektorean elikadura burujabetza proiektuak sustraitu dira, bigarren sektorean grebek eta kaleratzeek hartu dute protagonismoa, eta zerbitzuen alorrean biziraute-ko modu berriak topatzeari ekin diote.

Pikete informatibo bat, 2013ko greba orokorrean.

Egoera ekonomiko gorabeheratsua

Lan heriotzak, langabeziaren igoera, grebak, lan gatazkak, etxegabetzeak... Gorabehera ugari bizi izan ditu eskualdeak esparru sozioekonomikoan.

Testua: Txabi A. Bañares
Argazkia: Aiaraldea.eus

Ez da erraza eskualde baten bilakaera sozioekonomikoaren erradiografia egitea. EUSTATek datu ugari eskaintzen ditu, baina horien atzean ezkutatzen den errealitateak forma ezberdinak hartzen ditu sarri.

Enpleguaren bilakaerak, adibidez, olatu forma izan du eskualdean azken hamarkadan. Goranzko joera izan zuen lehen bost urteetan, krisi ekonomikoaren ondorioz. 2015ean langabezia %15etik gorakoa zen udalerri gehienetan, %19,1ekoa Urduñan eta %17,1ekoa Laudion. Baina hurrengo urteetan beherazko joera nagusitu da. 2019an Laudioko langabezia %12,1ekoa izan zen eta %14,9koa Urduñan. Hala ere, pandemiaren eraginez, gora egin du berriro enplegu gabe dauden bizilagunen kopuruak. Ikusteke dago olatu berri hau aurrekoaren tamainara iritsiko den.

Lan heriotzak

Enplegua berreskuratu dela diote datuek, baina, ze baldintzetan? 2019an Aiarako Kuadrillako eremuan egin ziren kontratuen %96,19 aldi baterakoak ziren.

Hamarkadaren erdialdean jo zuen goia langabeziak. Ordutik hona gutxitzen joan da langabetu kopurua, COVID-19aren pandemia iritsi den arte.

Lan heriotzak nabarmen ugaritu dira hamarkadako azken bi urteetan.

Prekarietatea nagusitu da lan eremuan, eta ondorio larriak eragin ditu horrek. 2007tik hona, Aiaraldean lan egiten zuten edo eskualdekoak ziren 24 behargin hil dira, azken laurak 2020an bertan. Zorroza Gestión de residuos enpresaren kasua bereziki esanguratsua da, bertan hildako gazte senegaldarraren kasuak enpresaren barruko hainbat praktika ilun azaleratu zituelako, eta, LAB sindikatuaren arabera, jabeak gorpua mugitzea agindu zuelako behargina oraindik bizirik zegoenean.

Lan istripuetan hildakoei gehitu behar zaizkie lanaren ondorioz gaixotutakoak. Azken hamarkadan hainbat bizilagun hil dira minbiziak jota, fabriketan amiantoarekin lan egiteagatik. Arazoa larriagotu egingo dela dirudi gainera, material hori mende hasieran debekatu zen arren, hamarkadak igaro daitezkeelako eragin kaltegarriak agertu arte. Arazo horri erantzun kolektiboa emateko sortu zen 2018. urtean Asviamie Aiaraldea taldea, eta hainbat ekimen burutu ditu ordutik hona.

Borrokak

Asviamie Aiaraldea ez da izan sozioekonomiaren esparruko arazoei aurre egiteko Aiaraldean sortutako talde bakarra. Stop Etxegabetzeak Aiara taldea sortu zen hamarkada hasieran, krisiaren ondorioz nabarmen zabaldu zen etxegabetzeen fenomenoari aurre egiteko, baina taldeak ez zuen oso ibilbide luzea izan. Hala ere, arazoa mahai gainean jartzea lortu zen, eta hainbat uda-

2007tik hona, eskualdekoak ziren edo bertan lan egiten zuten 24 behargin hil dira euren jardunetan, eta azken bi urteetan asko azkartu da heriotzen maiztasuna.

lek etxegabetzeen aurkako protokoloak onartu zituzten.

Oso mugitua izan zen hamarkadaren lehen zatia. 2013ra arte hiru greba orokor egon ziren, gehiengo sindikalak deituta. Hurrengo urteetan ez zen horren deialdi handirik egon, lan-gatazka ugari piztu ziren arren. Hamarkadaren amaieran, aldiz, mobilizazioak ugaritu direla dirudi. 2020ko urtarrilean Eskubide Sozialen Kartak deitutako greba orokorrean ehunka aiaraldear atera ziren kalera. Deialdi horrek, gainera, mugimendu feministaren edota pentsiodunen aldarrikapenak ere barnebildu zituen, sozioekonomia lan arlora soilik mugatzen ez denaren seinale.

Asviamie Aiaraldea sortu zen 2018an, amiantoaren aurka jarduteko.

Aiaraldeko industriaren apokalipsiaren zaldiak: Finantza krisialdia, globalizazioa eta pandemia

Azken hamarkadak Aiaraldeko industria ehuna ahuldu du. Aurreko krisialdiari gehitu behar zaio globalizazioaren eragina eta, nola ez, baita pandemia bera ere.

Testua: Aitor Aspuru Saez
Argazkia: Aiaraldea.eus

Hamarkada berriari aurrekoa hasi zen moduan helduko diogu: krisialdi gordinean. 2010ean kapitalismo finantzarioak sortutako zor jasanezinak pikutara bidali zuen eraikuntza sektorea, eta, horrekin batera, hainbat enpresa-ehun. 2020. urtea pandemiaren erdian amaituko da eta enpresa handiek egoera baliatu dute globalizazioaren eragina azkartzeko; gastuak murrizteko, langileen soldatak mugatzeko, edota ekoizpena atzerrira bideratzeko.

Hamarkadaz hamarkada, Aiaraldeko ezaugarria izan dena

Guardianeko kideek mobilizazio ziklo indartsua egin zuten kaleratzeen aurka.

-herrien oinarri ekonomikoa izandako industria ehun osasuntsua galtzen ari da, eta azken hamar urteak adibide argia zein tragikoa izan dira, ez baita ordezkorik agertu industriak utzitako hutsune hori betetzeko.

Finantza krisialdiak eskualdeko enpresen itxiera ekarri du, LIPmesa edo Vicalderena, kasu, baina lan gatazka larrienak beste konpainia batzuetan izan ziren.

Atzean uzten ari garen hamarkadaren hastapenetan, tamaina ugariko konpainiek itxi zituzten euren ateak eta mobilizazioak ekarri zituen horrek. Batzuk enpresa historikoak ziren, adibidez, Aretako LIPmesa edo Laudioko Vicalde.

Beste batzuek berriro ekin zioten euren jarduerari, baina askoz langile gutxiagorekin, Kiderren kasuan bezala. Dena den, desagertutako konpainia gehienak hutsik geratu dira, Aplican edo Norten kasu, orube edo eraikin abandonatuak lekuko mutu legez geratu



Lan gatazka ugari egon dira eskualdean azken urteetan.

direlarik. Muturreko egoera horietan, kontraesankorra badirudi ere, ez ziren protesta bereziki bortitzak sortu, agian langileak amildegiaren ertzean zeudelako. Ordea, horrek ez du esan nahi hamarkada bake sozialean igaro denik.

Greba eta mobilizazioak

Izan ere, beharginak kalera atera dira maiz eskualdean. Bi arrazoi nagusi egon dira: lan hitzarmenen negoziaketa eta kaleratzeen mehatxuak, eta askotan biak zeuden eskutik lotuta (Aiala Vidrio, Gometegui, Tubacex Taylor,

Guardianeko langileek greba luzea egin zuten 2012an, baina Koch talde amerikarrak erosi ostean, deslokalizazioa eta zenbait atalen salmenta pairatu ditu.

CEL, Tubos Mecánicos del Norte, Deguisa...). Beste batzuetan erregulazio espedientean gehiegizko erabilpena izan da gatazken pizgarria, Kimberly Clarken, adibidez.

Zenbait lan gatazka nabarmen berotu ziren. Garraio enpresa txikia izanda ere, langileen protestak entzutetsuak izan ziren Atxan. 3 hilabeteko greba hasi zuten beharginek, eta enpresako jabea jarraitzen zuten kaletik, zor zien dirua ordaintzeko.

Gainera, talkak ezusteko norabidea hartu zuen Guardia Zibilak ELAko 4 kide atxilotu zituenean. Sindikalistek enpresako jabeari eskatu zioten erakundearen esku uzteko beharginei zor zizkien dietak eta bidaia gastuak -hau da, enpresak deklaratzen ez zituen osagarriak-. Ugazabak xantaia leporatu zien, eta urtebeteko kartzela zigorra ezarri zien epaileak.

Greba luzea ekarri zuen, baita ere, Guardianeko lan hitzarmenak. Hori baino lehen, zuzendaritzak 139 langile kaleratzeko asmoa iragarri zuen, eta enpresa batzordeak greba luzearekin erantzun zion mehatxuari. Borrokak babes zabala izan zuen udalerrian; Laudioko Udalak protesta babesteko mozioa onartu zuen, eta alkateak berak eskatu zien herriko banketxeei hipoteken kobrantza atzeratzea lanuzteak iraun bitartean.

Azkenean, modu arrakastatsuan bukatu zen borroka langileen intereserako, euren artean ere sekulako tentsioa sortu zen arren. Amaieran, langileek herriari jasotako eskuzabaltasun berarekin

Lan hitzarmenen negoziaketek eta kaleratze mehatxuek greba luzeak sortu dituzte batzuetan konpainia txikietan, Atxa garraio enpresan bezala.

Tubacexen gatazka ugari piztu dira hamarkadaren amaieran.

erantzun zioten, eta zenbait elkartera bideratu zuten elkartasun jaietan batutako dirua.

Garaipena, aldiz, ez zen behin betikoa izan, nolabait. Izan ere, Guardian taldeak 2020an ibilgailuen beira ildoa saldu dio Parter Capital inbertsio funts suitzarrari. Orain 209 langile baino ez ditu Laudion. Aintzat hartu behar da duela 10 urte 600 inguru zirela. Hau da, eskualdeko ikurra izandako taldearen presentzia %60 baino gehiago murriztu da azken urteetan.

Globalizazioaren ondorioa argia izan da Guardian taldean. 2010ean 600 behargin zituen Aiaraldean, eta, egun, 200 inguru.

Globalizazioaren itzala dago horren atzean, berriro ere. Guardianek 2016an saldu zion bere kapitala Koch talde estatubatuarrari. Amerikarrek interesgarritzat jotzen ez dituzten ekoizpen lerroak kendu dituzte, eta deslokalizazio politikak ezarri. Tuteran, langileen baldintzak okerragoak direnez, hara eraman dute produkzioaren zati bat, kostuak arintzeko.

Bestalde, Autoglaseko langileek -Guardianek kapital suitzarrari saldutako atala- espero dute jabe berriek zenbait inbertsio egitea, egungo lanpostuak bermatu ahal izateko. Printzipioz, 2021ean bukatuko da zenbait makinaren instalazioa.

Tubacex, egoera berean

Tubacex da globalizazioaren zamaren presioa sumatzen ari den Aiaraldeko enpresa garrantzitsuenetakoa. Laudion, Amurrion, Murgan eta Artziniegan ehunka langile ditu kontrataturik, eta azken hamarkadan bi joera nabarmendu dira.

Alde batetik, milioika euroko inbertsio estrategikoak eta garrantzitsuak egin dituzte; Indian (28 milioi euro), Austrian (40 milioi euro) eta Italian (40 milioi euro).

Bestalde, eskualdeko lan baldintzak prekarizatu dituzte azpikontratak edo langile gutxiago baliatuta. Izan ere, hamarkada bakarrean 3 behargin hil dira bere lantegietan. Azken heriotzak 2019an izan ziren eta sindikatuek gogor salatu zuten prekarietatea sustatzearen ondorio zuzena izan zirela.

Tubacexek hainbat lantegi erosi ditu atzerrian, baina, aldi berean, tokiko baldintzen prekarizazioa bultzatu du.

Artiacheko zenbait langilek mobilizazioak egin zituzten kaleratzeen aurka, eta irabaztea lortu zuten.

Gauzak horrela, 2019an eta 2020an giroa asko gaiztotu da lantegietan. Tubos Mecánicos Nortek greba luzea abiatu zuen, eta Amurrio eta Laudioko beharginek mobilizazioekin erantzun zieten zuzendaritzak hartutako diziplina neurriei. Pandemiak sutan jarri zuen berriro tentsioa eta ekoizpena eten zuten langileek.

Hala eta guztiz ere, gorabehera horiek guztiak gatazka zakarrenaren hitzaurreak besterik ez dira izan: udan Tubacexek iragarri zuen 150 soldata aurrezteko as-

Tubos Reunidoseko zuzendaritzak 170 milioi euroko kreditua eskatu zuen 2007an, eta gero, diru hori, enpresa baten erosketa egitera bideratu ordez, akziodunen artean banatu zuen. Orain 350 milioi euroko zorra du, eta langileek hainbat enplegu espediente izan dituzte.

moa zuela Aiaraldean. Modu batean edo bestean. Hau da, langileek ez badiete uko egiten zenbait eskubideri, kaleratuak izango dira.

Tubos Reunidos, larri

Tubos Reunidos enpresak ere hamarkada gorabeheratsua izan du. 2012. urtean greba mugagabea egin zuten lan hitzarmenaren sinaduraren alde, hain zuzen, Mariano Rajoyren Gobernuak lan erreforma egin eta gutxira.

Protestak hasiera gogorra bizi izan zuen. Bi langile zauritu zituen Ertzaintzak eta beste bi atxilotu eta 5 identifikatu. Gerora absolbituak izan baziren ere, epaiketa izan zuten.

Azkenean, mobilizazioak balio izan zuen beharginek lan erreformaren eragin latzenei aurre egiteko, baina horrek ez du euren etorkizuna guztiz bermatu.

Izan ere, sute ikusgarriak eta suntsikorrak gertatu dira Amurrioko azpiegituretan eta, garrantzitsuena, zuzendaritzak konpainiaren kontuak *cul de sac* batean utzi ditu. Zehazki, 2020an, enpresak 350 milioi euroko zorra metatu zuen eta bankuekin, besteak beste, negoziatu behar izan zuen horren ordainketa.

Zulo ekonomiko horren iturria da, sindikatuek salatzen dutenez, zuzendaritzak 2007an 170 milioi euroko kreditua eskatu zuela beste konpainia bat erosteko. Baina, eragiketa hori gauzatu ordez, akziodunen artean banatu zuten dirua. Erabaki horren ondorioek egoera zail batera eraman dute taldea, eta azken urteetan enplegua erregulatzeko espedienteak pairatu dituzte beharginek, bata bestearen atzetik.

Berriak eta Artiach enpresetan borroka luzeak burutu dituzte, gehienbat emakumezkoek, euren lan eskubideak aldarrikatzeko eta bermatzeko.

Emakumeen borrokak

Feminismoaren agerpenak bizitza sozial eta politikoaren erdigunean jarri ditu emakumeen aldarrikapenak, eta ez esparru sinbolikoan soilik. Zentzu horretan, emakumeek pairatzen dituzten soldata eta lan baldintza kaskarrak -are gehiago gizonekin alderatuta- izan ziren eskualdeko bi gatazkaren protagonista 2019an.

Alde batetik, Berriak supermerkatuen kasua gertatu zen. Beharginek, emakumezkoak gehienek, lanuzteak abiatu zituzten urtean bi zubi izateko. Exijentzia hain oinarrizkoa zen ezen bezeroen babesa erakartzea lortu baitzuten euren borrokan.

Ez zen arraroa denden kanpoaldean egiten zituzten elkarretaratzeetan bezeroen elkartasun keinuen lekuko izatea. Maiz, pankartaren atzean jartzen ziren ere. Hala ere, borrokaren lehen fasea besterik ez zen izan hori. Eskaerak behin eskuratuta, ez zuten amore eman Berriakeko langileek, eta zorrozki ekin zioten salatzeari bete ez zirenean edo kaleratzeak jazo zirenean.

Artiachen ere gatazka erabat feminizatua bizi izan zen. Behin-behineko hainbat kontratu pila-

tu eta gero, emakume talde bat langabezian geratu zen. Gainera, euren lana ez zutela behar bezala betetzen argudiatu zien enpresak. Prekarietate egoera hori onartu ordez, ahotsa altxatu zuten beharginek diskriminazio kutsua azpimarratuta.

Salaketa oso gordina izan zen eta tantaka eta nekez izan bazen ere, hainbat hedabideren eta herritarren babesa lortu zuten. Artiach enpresako lankide ohiek ere parte hartu zuten mobilizazioetan: auto karabanetan, elkarretaratzetan eta manifestazioetan. Presio horri uko egin gabe, epaiketara eraman zuten enpresa. Azkenik, euren lanpostuetara itzuli ziren, lehen baino ahaldunduago.

Beste hainbat lan gatazka ere piztu dira azken hamar urteetan: Aplica, Construcciones Pagolar, Ramon de Urquijo, Jez, Sunrise Medical, Bañueta kiroldegia, Gometegui, Bizkaiko Dia Supermerkatuak, Tubacex Taylor...

Garai modernoak

Rubi

Toki ugaritan hartu dute lekua jaki ekologikoek. Irudian, Ekonomatua.

Elikadura sektorea, bertatik bertara

Tokiko produktuak eta elikagaiak indartzeko programa eta proiektu ugari sortu dira Aiaraldean azkenaldian. Eskola jantokiak, ekoizle sareak edota Ekonomatua dira horren adibide.

Testua: Izar Mendiguren Cosgaya
Argazkia: Ekonomatua.eus

"Proiektu txikien gorakada" nabarmena izan da azken urteetan Aiaraldean. Orain arte, lehen sektoreari lotutako kontua izan da elikadura burujabetza, baina narratiba eta ulerkera aldaketa izan ditu kontzeptuak, Marijo Imaz Ekoizpeneko arduradunaren aburuz. Izan ere, elikadura transbertsala bihurtu da, egunerokotasunaren zati handi bat ez ezik, lurra zein pertsonen bizi kalitatea baldintzatzen dituelako.

Frutagintzan eta ortugintzan ekoizle berri asko agertu dira, abeltzaintzan zentratzeko baldintzak ez direlako horren errazak: lur sailak eduki behar dira, tresneria eta abar. Edozelan ere, garapen handia izan dute tokiko ekoizleek. Horren adibide garbia, herriko dendetan euren produktuak saltzeari ekitea da, edota tokiko ekoizleekin azokak antolatzea. Hala ere, jauzi are handiagoaren lekuko izan da Aiaraldea: Urduñan 2018an heldu zioten Herri Eskolako jantokian elikadura burujabetzaren filosofia txertatzeari, eta Amurrioko Aresketa Ikastolan urtebete beranduago ireki zuten bide bera.

"Horrez gain, merkatu eta kontsumoaren aldetik aldatu egin da egoera", Ekoizpeneko kideak azpimarratu duenez. Egun, adibidez, balio erantsia ematen zaio tokiko produkzioari merkatuak antolatzean, "eta ekoizpen ekologikoaren ikuspuntua zabaldu egin da eskualdean, denon buruan dagoen ekoizpen eredua da. Garaiko jakien kontsumoa ezaguna zaigu gaur egun, eta hori pauso handia da". Zero kilometroko filosofiak ere eragin du horretan, "guztion buruan dago azoka bat egitean bertako ekoizleei tokia egitea, edota euren produktuak erabiltzea, duela 10-15 urte lehentasunak ez ziren horiek". Udal eta erakundeetan ere eman dira gogoetak, Imazen esanetan. 2015-2016 urtean eskualdean elikadura burujabetza lantzeko Kontseilua eratu zen, eta diagnostikoa osatu zuten. "Inpaktua neurtzea ez da erraza, baina badoaz gauzak pixkanaka aurrera".

Elikadura lehen sektoreko kontua izatetik, jendartearen kezka izatera igaro da. Kontsumo taldeak, tokiko ekoizleen azokak, eskola jantokiak... Garapen handia izan du ildoak.

Lehen sektoreak abiatu zuen filosofia. "Ekoizpen ekologikotik elikadura sistemara heldu da balioen katea, ekoizpenetik kontsumitzaileraino", Marijo Imaz Ekoizpeneko kidearen hitzetan.

Ekoizpenaren kateak

"Elikadura burujabetzan aurrera egiteko gure buruetan eman behar da aldaketa, eta talde ezberdinen agendetan egotea lortu dugu, mahai politikoetan barne", erantsi du Imazek. Lehen sektoretik atera zen ideia, baina bestelako eremuak hartu ditu bere gain denborarekin: "Ekoizpen ekologikotik elikadura sistemara heldu da balioen katea, ekoizpenetik kontsumitzaileraino doana".

Ekoizpen katearen parte dira baserritarrak, kontsumitzailea zein merkatua, "indibidualki zein kolektiboki". Guzti hau landuta, bertako ekonomia dinamizatzeko eta lanpostuak sortzeko aukera ikusten du Imazek, "ez da enpresa edo industria baten parekoa, baina kate osoa kontuan hartuta aktibitateak finkatzea lortu da".

Urduñan ez ezik, ireki egin diren komertzio txikiek bertako produktuen alde egin dute, "duela 10 urte bakoitza bere aldetik zihoan". Aliantza dinamika horrek indar edo garrantzi handia du, haren ustez, "horren aldeko

jarrera nagusitzen da, denetariko adibideak ditugu: dendetako erakusleihoek eskualdeko produktuei eskaintzen diete tokia askotan".

Elikadura burujabetza edo sistemaren katea oso luzea da, ezbairik gabe: "Dena da elikadura sistema: industria, merkataritza, turismoa, eskualdeko bizi kalitatea... Beste maila batzuetan, baina instituzioetan ere ideia hauek txertatuta egoteak lagundu egiten du. Elikadura burujabetzaren apustuak herritarren elikatzeko eredu eta beharrei erantzuten die".

Elikadura burujabetzaren oinarria agroekologia da: "Ez da elikadura kontu soila, horrek zaborren kudeaketa, energia kontsumoa eta abar ere barne hartzen ditu; beraz, trantsizio ekologikoa da". Administrazioek ere hartu dute guzti horren kargu, horren adierazle da erakundeetan arlo horiek egituratu izana.

Urduñako edadetuen egoitzak elikadura ardatzak aldatu zituzten 2015ean.

"Dena da elikadura sistema: industria, merkataritza, turismoa, eskualdeko bizi kalitatea... Elikadura burujabetzaren apustuak herritarren elikatzeko eredu eta beharrei erantzuten die".

Kontsumo taldeak

Kontsumo taldeek egin dute euren garapena eskualdean. 2006. urte inguruan sortu zen lehenbiziko taldea bailaran: "Hasiera batean kontsumitzaile asko zeuden. Gaur egun ez dago talderik, baina badira kontsumitzaileak. Hau da, gertuko produktu ekologikoak zuzenean ekoizleari erosteko ohitura mantendu da, eta geroz eta gehiago indartu da gainera". Ekoizleek, oro har, euren kontsumo taldeak dituzte orain Marijo Imazen iritziz, eta zuzeneko banaketa edo salmenta sistema baliatzen dute nagusiki. Horrez gain, badira produktu ekologikoak eta tokikoak sustatzen dituzten guneak ere, Aiaraldea Ekintzen Faktoriaren Elikadura burujabetza ildoak abiatutako Ekonomatua kasu. 2020. urtearen hasieran jarri zen abian proiektu hori Laudioko Basalarrina Euskal Topagunearen lokalean, eta Laudioko Industriagunean irekiko den Faktoriara egingo du salto datorren urtean.

Kontsumitzaileak gora

Hargatik, kontsumitzaileek gora egin dutela sinetsita dago Imaz, baina kontsumo taldeen dinamika aldatu egin dela dio: "Oso exijentea zen baserritar eta eroslearen aldetik, antolaketa handia behar du eta beharrak aldatu egiten dira". Alabaina, egokitzeko gaitasunak bestelako bilakaera ekarri du: "Kontsumo taldeetan hasi ziren ekoizleak merkatuetan, denda edo gune espezializatuetan integratuta daude orain;

kontsumitzaile kopuruak ere gora egin duela esango nuke". Baserritarren artean ere sortu dira sareak, halaber, "bakoitzak bere sarea berregin du".

Elkarte ezberdinak eratu ziren, zentzu horretan, elikaduraren beharrari erantzuteko, Laudioko Baratze edo Laudion Egin kasu. Produktu aniztasuna da Aiaraldeko ezaugarri nagusia: ogiak, barraskiloak, barazkiak, zukuak, mermeladak, haragiak, arrautzak... "Eskualdean bertako produktuak zein ekologikoak kontsumitzeko aukera asko daude", azpimarratu du Marijo Imazek, "eta bakoitzak bere tokia bilatu du".

Jantokietan eraldaketa

Jantoki kolektiboak dira proiektuetan sendoenak, ziurrenik. Urduñako nagusien egoitzako sukaldeak 2015ean erabaki zuen jaki katea eraldatzea, eta Herri Eskolak 2018an. Ildo beretik garatu zen egitasmoa Amurrioko Aresketa Ikastolan ere. "Asko ikasteko balio izan du horrek. Eskola jantokietan zer nolako menuak eta kuotak daude? Mugak ekonomikoak izan daitezke, baina eskualdeko ekoizpen batzuek ez dute tokirik zerbitzu horietan", erantsi du.

Dena den, beharrak identifikatzeko lagungarria izan da, "eta horien arabera ekoizpena planifikatzeko". Modu horretan jakin baitaiteke zenbat kilo barazki behar den, esaterako, "eta hori laguntza handia da sektorearentzat. Ez da lehengaiak aldatzea bakarrik, eraldaketak sakonagoa izan behar du". Garrantzitsuena, baina, helburuak argi izatea da, Marijo Imazen ustez: "Tokikotasuna, produktu ekologikoak izatea... Bestela, oso erraza da eskualdean eragiteko gaitasuna galtzea".

Urduña, Amurrio eta Laudioko eskoletan tokiko jakiak darabiltzate.

"Eskola jantokietan abiatutako proiektuek garrantzi handia dute. Haurrak dira askotan familietako aldaketen eragile edo motoreak, baina kontua ez da lehengaiak aldatzea bakarrik; eraldaketak sakonagoa izan behar du".

Izan ere, eskualdeko ekonomia garatzea izan behar da erronka. "Proiektuak gauzatzea inportantea da eskualdean ikus dadin egitasmo hauek posible direla".

Elikadura ohiturak

Osasungarriak al dira gure elikadura ohiturak? Eskualdean garatutako eskola jantokien proiektuek eta bestelako ekimenek jendartearen kontzientziazioa iraultzea dakarte. "Eskola jantokiko gazteak, hemendik urte batzuetara, sentsibilizatuta egongo dira. Haurrak dira askotan familietako aldaketen eragile edo motoreak". Aurrera begira, baikorra da Imaz: "Aldaketa asko eman dira, eta testuinguruak lagundu egiten du".

Pentsiodunen mugimenduaren historia laburra

Laudioko Pentsiodunen Mugimendua
Gutun kolektiboa

2010eko eta 2012ko lan erreformen eta 2011ko eta 2013ko pentsioen erreformen ondoren, hainbat greba orokor egin ziren Hego Euskal Herrian. 2012. eta 2013. urteetan, pentsioak %0 igo ziren. Hurrengo urteetan, % 0,25. Horrek "sumindura orokorra" eragin zuen pentsiodun gehienen artean, eta mobilizazioak hasi ziren.

Baina 2018ko urtarrilaren 15era arte ez ziren elkarretaratze masiboak egiten hasi herrietako eta hirietako plazetan. Egun horretan, WhatsApp bidez, pentsiodun guztiei dei egin zitzaien 12:00etan estatuko herri guztietako plaza guztietan batzera. Lehen elkarretaratzeak egin ziren, inor ez zen deialdiaren erantzule egin, eta gaur egun oraindik ez dakigu nork zabaldu zuen deialdia.

Elkarretaratze indartsuenak Hego Euskal Herrian egiten dira. Bilbok 2.000 pertsona baino gehiago biltzen ditu, Gasteizek 500 eta Donostian eta Irunen ere masiboak dira manifestazioak.

Laudion 2018ko urtarrilaren 22an hasi ziren elkarretaratzeak. Lehena behatzeko izan zen. Inor ikusi ez genuenez kontzentrazioa zuzentzen, bi pertsona arduratu ziren, eta gaur egun ere hala egiten jarraitzen dute.

Hasieran, joera politiko guztietako pentsiodunak etortzen ziren. Ordura arteko ildoari eustea lortu genuen, hemen inor soberan ez dagoela nabarmenduta. Baina lana, garapena eta koordinazioa beti pertsona berberen ardurapean geratzen ziren. Ha-

sieran askok eman zuten izena herrian lan egiteko, baina gaur egun ia bakarrik geratu dira. Kontzentrazioen antolaketa pertsona berdinek egiten dute beti.

2018ko otsailetik martxora bitartean bildu zen jende gehien plazan, Lan Ministerioaren gutuna jaso zutenean, pentsioak %0,25 igo zirela jakinarazteko. Haserrea izugarria eta orokorra izan zen. Gutunak erre ziren Gasteizen eta Bilbon, eta Laudion hautsi eta zakarrontzira bota ziren.

Laudio, Amurrio, Urduña eta Artziniegako taldeak sortu ziren eskualdean. Gaur egun, azken biak ia desagertuta daude.

Azken bi urte hauetan hainbat mobilizazio masibo egin dira, Hego Euskal Herrian zein herrialde edo eskualdeetan: Bilbon, Gasteizko Legebiltzarrean, Laudion, Amurrion, Urduñan...

Hego Euskal Herrian Pentsiodunen Mugimenduak gorakada eta indar handia lortu zuen, eta eskumen-eskaera propioak egiteari ekin zion: hemengo pentsioei buruzko erabakiak eta arauak, mendekotasun-lege propioa, lan-harremanetarako eta gizarte-segurantzako euskal esparrua...

Presio gogorrak jaso ziren mugimendua hausten saiatzeko PSOE-Podemos-PNV alderdien eta CCOO-UGT sindikatuen aldetik. Eurekin lerrokatutako taldeek, COESPE eta Nagusi kasu, plataforma guztien koordinazio organo nagusira jotzen zuten, gehiengoak eginiko akordioak boikoteatzera.

Barakaldon, Sestaon eta beste udalerri batzuetan hausturak gertatzen ziren, baina ez zen gorabehera handirik egon. Desados zeuden kideek bilera eta kontzentrazioetara joateari utzi zioten. Gaur egun, elkarretaratzeak egiten dituzte asteazkenetan.

Azkenaldian gure eskualdeko elkarretaratzeetara doan jende kopurua jaitsi egin da, hainbat arrazoi medio: uda, pandemia, zubiak, kontu pertsonalak. Batez besteko asistentzia 250 pertsonakoa izatera iritsi da, 120 pertsonakoa izatera pasa zen bigarren fasean, eta 50-60 pertsona artean biltzen gara orain. Borrokan jarraitzen dugu.

Artziniega, Urduña, Amurrio zein Laudion elkarretaratze jendetsuak egin dituzte.

Pagotxen merkatu ugari egiten dira eskualdean tokiko merkataritza sustatzeko.

Zenbat eta zertan aldatu da herriko denden bizitza?

Establezimenduek, barrualdean saltzetik kalerako jauzia eman dute azken hamarkadan. Horren adibide dira Pagotxen Merkatuak, Herri Desfileak edota bidalketa sistemak.

Moda desfileak izan dira merkatari elkarteek antolatutako ekimen arrakastatsuenetako batzuk.

Testua: Izar Mendiguren Cosgaya
Argazkiak: Zuriñe Alava, Aitor Burgoa eta Antonio Muñoz

Opari bonoak, Pagotxen Merkatuak... makina bat ekimen jarri dituzte abian eskualdeko merkatari elkarteek azken urteetan.

Duela 10 urte pentsatuko luke inork, herritarrek modelo lanak egingo zituztela tokiko denden jantzi zein produktuekin? Hamaika dira eskualdean sortutako dinamikak hirugarren sektorea bultzatzeko. Tokian toki, formatu, espazio eta izen ezberdinak hartu dituzte promozioa eta salmenta sustatzeko jarduerek. Urduñan zein Amurrion, adibidez, Aukeren Merkatua izendatu zuten dendak kalera ateratzeko asteburua. Laudion, aldiz, Pagotxen Merkatua deitu zioten asteburu batez produktuak karriketara atera, eta beherapenak eskaintzeari. Alabaina, batzuek zein besteek antzeko datetan gauzatzen dute ekimena: iraileko asteburuetan.

Moda ekimenak

Horrez gain, bestelako jarduerak ere abiatu dituzte saltokiei ikusga-

rritasuna emateko helburuarekin. Horien artean dago Laudiomoda desfilea, zeinetan herriko denda gehienek hartzen duten parte herritarrak modelo bilakatuta. Finean, denboraldi berriko jantziak erakustean datza ekintza.

Hain zuzen, 2012. urtean sortu zuten proiektua, eta geroztik herritar andanaren arreta piztu du. Horren adierazle da, azken urteetan karpa barnealdean garatzea desfilea, eta aldamenean –Aldai plazan- pantaila erraldoiak jartzea eserlekuetan kabitu ezin diren ikusleek "ikuskizunaz" goza dezaten.

Ordainketa moduen aldaketa

Bestalde, salmentarako joerak nabarmen aldatu dira. Tokiko dendek (eta bestelakoek, bidenabar) eremu fisikotik harago hedatu dute negozioa. Batetik, sare sozialetan edota espazio digitaletan atondu dituzte txokoak (Facebooken edo Instagramen kasu). Eta, bestetik, saltzeko moduak eta ordaintzekoak ere aldatu dira.

Batetik, opari bonoak gisako planteamenduak abiatu dira. Eta, bestetik, ordaintzeko erak modernizatu dira: "Gaur egun, txartelarekin ordaintzen dira erosketa gehienak. Orain, jendeak bizuma eskatzen dizu, batzuetan", dio Rakel Valle Tesorero dendariak. Erantsi duenez, badira gailu mugikorrekin edo erlojuekin ordaintzen hasi direnak ere, *contactless* programari esker.

Internet bidezko salmentak eragin du, hala ere, estuasun gehien dendarientzat: "Sareen bidezko eskaintza handitzearen ondorioz,

Herritarren moda desfileak antolatzen dituzte merkatari elkarteek, tokiko saltokietako kontsumoa sustatzeko.

artikuluen arteko alderaketak erosketa askoz ere zehatzagoa eskatzen du. Duela urte batzuk jendea dendetara joaten zen; gaur egun bezeroek badakite zer bilatzen duten, eta gauza zehatzagoak nahi dituzte".

Internet bidezko salmentak eragina izan du kontsumo ohituretan, merkatariek nabarmendu dutenez.

Bizirauteko gakoak

Bizirauteko gakoen artean, online salmentari aurre egiteko beharra azpimarratu du Valle Tesorerok: "Saltoki tradizionalek beste kanal horietan baino hobeak diren gaiak sustatu behar dituzte; bezeroarekiko tratua, alegia. Denda fisikoen hurbiltasuna, aholkularitza eta berehalako eskuragarritasuna dira horrelako saltokiekin aurrera jarraitu ahal izateko gakoak".

MAPFRE
AMURRIO

BIZITZA-ASEGURUAK, KOMUNITATEAK ETA AUTONOMOENTZAKO ASEGURUAK...

· ISTRIPU- ETA BAJA-ASEGURUAK
· MEDIKU ASEGURUAK
· AURREZKI ASEGURUAK
· B.G.A.E. (Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak)
· BIZIARTEKO ERRENTAK
· ENPRESEN DIBISIOAK
· ETXE ASEGURUAK
· HILETA ASEGURUAK

Jose Madinabeitia 5, behea AMURRIO Araba / www.mapfre.com/oficinas/0114 Tel. 945 39 31 31 Fax. 945 89 35 54 casteca@mapfre.com

Elikadura
jatea baino gehiago da

Marijo Imaz
Ekoizpenen koordinatzailea

Dena da elikadura sistema. Ez lehen sektorea bakarrik. Elikadurak denoi eragiten digu, baina tokiko ekoizleak gizartearen ehuneko oso txikia dira. Elikadurarekin lotuta daude zaborren kudeaketa edo ikuspegi energetikoa ere, esaterako. Pandemia garaian gertatu dena ez al da esanguratsua izan? Elikadura burujabetzaren aldeko apustuak aukera asko sortu ditu herrietan, baserritarren proiektuek aurrera egiteko. Itxialdiak antolaketa maila handitzea ekarri du, eta kontzientzia areagotzea.

Zeintzuk izan beharko liratezke, orduan, aurrera begirako erronkak? Lehenbizi, abian dauden proiektuak zabaltzea, proiektu berriak errazago martxan jartzeko (Urduñako eta Amurrioko eskoletan, adibidez, 500 menu ekologiko banatzen dira egunero). Bestalde, egiturak behar dira elikaduraren sistemaren ekoizpen mapa zabaltzen joateko, merkaturatzerainoko bidea irekitzeko sektoreari. Merkatua ez badago antolatuta (baserritarren azokak, tokiko komertzioak, kontsumo kolektiboak...) zaila da jendearengana iristea. Produktuek, gainera, eraldatze maila bat behar dute (hiltegiak behar dira, eta transformaziorako azpiegiturak; barazkiak ontziratzeko kasu). Askotan, urrunetik ekarri dira lehengaiak Euskal Herrira bertan transformatzeko, baina hori, oso industriala izateaz gain, ez dago ekoizle txikiei irtenbidea emateko pentsatuta. Horregatik, agenda politikoetan eta plan estrategiko ezberdinetan ezinbestekoa da argi izatea elikadura sistemaren garapena. Pixkanaka, elikadurari ematen zaion garrantzia berreskuratu behar da: lehen, ikasketak eta elikadura ziren familien lehentasunak, baina orain aldatu egin dira. Ezin zaigu ahaztu gure bizi kalitatearen eta osasunaren oinarria dela elikadura. Eta hor denok dugu asko egiteko.



LAUDIO,
ZURE PLAZA MERKATARITZA, KULTURA ETA AISIALDIRAKO

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Ekonomia
antolatzeko bestelako moduak

Aiaraldeko I. Azoka Sozialak hainbat egitasmo hurbildu zituen 2018an eskualdera, ekonomia sozial eraldatzailea sustatzeko asmoz.

2018ko otsailean ospatu zen Aiaraldeko I. Azoka Soziala, Aiaraldea Ekintzen Faktorian. 'Kontsumitzen duguna gara, bizitzeko alternatibak' izan zen lema, eta asteburu batez (otsailak 24 eta 25) ekonomia saretzeko bestelako praktikak jarri ziren martxan. Horren adibide da "Aiko" txanpona, herritarrek errentaren araberako balioa jasotzen zutelarik eroskетak egiteko. Dena den, ez zen tokiko moneta sortu zen lehenbiziko aldia izan; aurrez, Aiarako merkatari elkarteak "Ogerleko" izeneko txanpona plazaratu zuen, 2013an hain zuzen, ibilbide motza izan bazuen ere.

Hala, Euskal Herriko eta beste lurralde batzuetako 33 eragile sozioekonomiko ezagutzeko parada egon zen, bi egunetan postuak jarri baitzituzten informazioa emateko. Horrez gain, hitzaldiak, ekonomia eraldatzailean motore izandako egitasmoen aurkezpenak, mota askotako tailerrak, truke azoka... egon ziren. Ildo beretik, ekologikoan jarduten duten eskualdeko ekoizleen produktuak dastatu eta erosteko aukera eskaini zuen Faktoriak. Modu horretan, energia berriztagarria sortzeko moduak, arropa nola birziklatu, egurrezko jostailuen tailerra, garagardoa egiteko ikastaroa edota *Eskualde baten autoeraketa ekonomia sozial eraldatzailearen eta elikadura burujabetzaren norabidean* mahainguruaren bidez esperientzia eta alternatiba ezberdinak ezagutzeko parada izan zuten aiaraldearrek.

FAK TO RIA
FAK TO RIA
FAK TO RIA
FAK TO RIA
NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
Zergatik?
HANKAZ GORA DU AMAK MUNDUA
HISTORIAKO EMAKUMEAK
TATTOOS

Arakaldo:
toki zaharretan espazio berriak

Arakaldoko parkea da ziurrenik azken hamarkadan aldaketa gehien jasan duen eremua. 2019an jarri zioten estalkia, eta ordutik mahaiak eta lorategia gehitu dizkiote.

Abiadura handian ez bada ere, herri txikiek ere nabarmen egin dute aurrera. Arakaldo da horren adibideetako bat: azken urteetan espazio ugari berritu dituzte herrian.

2011n Arakaldoko historia eta ibilbideak barne hartzen dituzten panelak kokatu zituzten zenbait gunetan, herritar zein kanpotarren intereserako, “tokiko ondarea” ezagutarazteko. Mapa toponimikoa ere osatu zuten informazio panelak ezartzeko. 2014/2015ean, aldiz, frontoia berriztu zuten. Batetik, horma konpondu zuten, eta bestetik margotu. Halaber, goiko zuloa estaltzeko obra egin zuten. Ildo beretik, herriguneko parkeari estalkia jarri zioten, eta mahaiak eta lorategia gehitu zizkioten iaz.

2020 hasieran, berriz, Arakaldoko zubiak espaloia edukitzeko lanei ekin diete, irisgarritasun planaren baitan. Herriko Etxea ere egokitu dute, erabilera anitzeko aretoarekin eta txokoa erabiltzeko aukerarekin. "Laster, gainera, goiko solairuan etxebizitza bat alokatzeko aukera egongo da", aurreratu du Jabi Asurmendi alkateak.

Proiektu berriak, prest

Aurki, bolatokian egingo dute obra: "Zuloa estaliko dugu egurrarekin, espazio osoa erabili ahal izateko egunerokotasunean, eta nahi denean -oholak kenduta- bolatokia mantentzeko". Txokoaren inguruko errekan egingo dute hurrengo proiektua, "prozesu parte hartzailea egingo dugu haurrekin, espazio horretan zer egin nahi duten erabakitzeko".

Txokoaren pareko bolatokian zuloa estaltzeko oholak jarriko dituzte, espazio bera bestelako jardueretarako ere erabiltzeko. Bestalde, frontoia berriztu zuten 2014/15 ikasturtean.

Aiaraldea, kultur oholtza

Kultur diziplina ugariren lekuko izan da Aiaraldea azken urteetan. Jaialdi erraldoiak, liburu edota disko berrien sorkuntza, zinemarako grabaketak... Asko izan dira eskualdea erakargune bihurtu duten jarduerak. Ildo beretik, kultur azpiegitura eta areto berriak eratu dira, tokian toki kultura eskaintza handitzeko helburuarekin. Kulturak, babes gutxi baina bizitza asko duenaren adierazle.

VALERA
SKAL
RAREN
PLAZA
BILTARIA

Kultur azpiegitura berriak eskualdean

Hamarkada batean zer nolako kultur espazio edo proiektuak garatu dira? Tokiko antzoki edo aretoez gain, Kulturgune berriak sortu dira, Burubio eta Alondegia kasu.

Testua: Izar M. Cosgaya
Argazkia: Aiaraldea.eus

Nola hazi da kultura Aiaraldean azken hamarkadan? Eragileek zein instituzioek, ekimen eta espazio ugari bultzatu dituzte tokian toki kulturari tarte zabalagoa eskaintzeko.

Amurrio da, edozelan ere, kultur programazioaren erreferentzia leku nagusiena. Batetik, Amurrio Antzokiak orotariko diziplinak ekarri dituelako herrira, eta aiaraldear ugari bertaratu direlako aretoko ekitaldietara. Horren adibide da aretoak 15 urtez gau-

Berri Txarrak taldeak Burubion jo zuen bere agur biran.

zatutako jarduna. Edozelan ere, azpimarratzekoa da herriko beste zenbait guneren lana: La Casona eraikineko hitzaldi eta erakusketa andana edota Burubio Kultugunearen sorrera.

Hain zuzen, 2016an sortu zuten zenbait lagun eta bazkidek Burubio espazioa. Elkarteak musikari tokia egitea izan du hastapenetatik xede, eta entsegu lokalak, kontzertuetarako aretoa edota grabaketa estudioa ditu bere baitan, besteak beste. Ordutik hona, makina bat proiektu eta ekitaldi jaso dituzte. Gainera, Euskal Herri mailan sona lortu du: Berri Txarrakek bere agur birako kontzertuetako bat bertan egitea erabaki zuen, eta Durangoko Azokak Burubion kokatu ditu zenbait emanaldi.

Urduña izan da, bestalde, betidanik, "musikaren hiria". Elkarteen eta norbanakoen inplikazioari esker bizitza oparoa eman diote kulturari bertan, jaialdi edo dinamika berezien bidez, Urdufolk edota Musika Astea kasu. Azpiegiturei dagokienean, or-

Burubio Kultur Elkarteak makina bat kontzertu antolatu ditu 2016. urtean sortu zenetik. Aiaraldea Ekintzen Faktoria, bere aldetik, euskarazko sortzaileen emanaldi zikloak eskaintzeari ekin dio.

Orduña Hiria erakusketa gunea atondu dute auzolanean.

dea, Alondegia espazioaren irekiera izan da giltzarrietako bat, 2015ean inauguratua, herritarren topaleku izateko asmoarekin. Horrez gain, Orduña Hiria erakusketa gunea ere ireki dute, hainbat bizilagunen ekimenez. Orozkon, Donibane Aretoa estreinatu zuten hamarkadaren hasieran. Arrankudiaga-Zollon, berriz, proiektua abiatu dute Oxinburu erabilera sozial eta kulturalerako espazio bihurtzeko, eta hamarkada berrian ekingo diote eraikitzeari. Lantenoko eskolek eutsi egin diote euren jardunari, eta Okondon Kultura Etxean gauzatu dute kultur programazioa.

Laudioko Lamuza parkeko eraikinen berriketak espazio gehiago eskainiko dizkio herriari. Kultura Etxe guztia erreformatzeaz gain, Kasinoaren erabilera berreskuratu dute, kultur ekitaldietarako.

Lamuza parkea

Laudioren kasuan, espazioen eraberritzea izan da nagusi. Zinemarako, esaterako, Laudioalde ikastetxeko aretoa egokitu zuten, eta Lamuza parkea eraberritzeari

ekin diote azken urteetan. Zentzu horretan, Kasinoaren erabilera izan da nobedadeetako bat. Zentzu horretan, SOS Lamuza Parkea plataformak eginiko prozesua ere ekarri behar da gogora, talde hori izan baitzen parkeko eraikinak birgaitzea eskatzeko mobilizazioak antolatu zituena, eta ondorengo prozesu osoaren jarraipena egin duena.

Urduñan Alondegia ireki zuten 2015ean, herritarren topaleku izateko helburuarekin. Artziniegan hainbat mobilizazio egin zituzten etnografia museoaren itxieraren aurka.

Aiaraldea Ekintzen Faktoriak, bere aldetik, euskarazko sortzaileen emanaldi ugari antolatu ditu azken urtean.

Artziniega nagusi

Artziniegan, museoak markatu du kulturaren bizi erritmoa, oro har. 2019. urtearen hasieran itxi zuten, finantziazio arazoengatik. Herritarrek mobilizazioak egiteari ekin zioten orduan, eta azpiegitura berriz zabaltzea lortu zuten horrela. Horrez gain, Mendieta kultur elkartea sortu zen 2014. urtean herrian, izen bereko auzoko Santo Tomas eliza berritu eta bertan musika zentro bat egokitzeko asmoarekin. Hainbat kultur ekitaldi egin dituzte ordutik hona.

Iñigo Martinez eta Davinia Descals, euren dantza ikuskizuna eskaintzen.

Aiaraldeko oholtzak, herri antzerkiaren erresuma

Antzerki munduko profesionalak egonda ere, eskualdeko oholtzak, gehienbat, herritarren feudoa dira. Horrek ez du esan nahi kalitaterik ez dagoenik, sariek erakutsi dutenez.

Testua: Aitor Aspuru
Argazkia: El Brote kolektiboa

Zaletasunaren eta kalitatearen artean inolako kontraesanik ez dagoela erakutsi dute, behin baino gehiagotan, Aiaraldeko antzerkigileek, eta sari sorta daukate hori frogatzeko. Saridunen artean aipatu ditzakegu Aimara eta Siroko.

Aimara talde amurrioarrak ibilbide luzea eta oparoa egin du, zehazki, 23 urtekoa. Sariak jaso ditu bere jardueragatik, besteak beste, *El enfermo imaginario* lanagatik. Aimarak harrotasunez defendatzen du amateur talde izaera; eta, gainera, modu aktiboan parte hartzen du udalerriko bizitza kulturalean, antzerki laburreko jaialdiaren antolakuntzan lagunduta, besteak beste.

Siroko talde laudioarrarena, ordea, esperientzia laburra izan da, baina bizia. Gehienbat emakumez osatutako taldeak Federico García Lorcaren adaptazioa prestatu zuen *Bernarda 5.0* lanean eta emanaldi gutxi egin bazituen ere, Zaragozako Antzerki Amateurraren Jaialdian epaimahaiaren sari berezia ekarri zuen bueltan. Mugarri hori, tamalez, ez da pizgarri nahikoa izan eta pandemiaren ondorioz erabaki zuten bertan behera uztea euren jarduera. *La familia inventada* Aiaraldeko -Laudio, Orozko, Aiara...- proiektua ere laburra izan zen.

Zorionez, herria ez da geratu umezurtz, Oihala Zabaltzen taldeak eutsi egin baitio. 30 urte baino gehiago bete ditu Laudioko elkarteak, eta konplexurik gabe aitortzen

Eskualdean kalitatezko antzerkiaren zaleak daude, eta baita mundu profesionalean aritzen direnak ere.

duten eurek gogoko dutela antzerki burgesa edo entretenigarria lantzea; maiz, filme komiko arrakastatsuen adaptazioak. Halaber, beste proiektuetan laguntzeko prest daude, eta Solastiar emakume taldeak antzezlana prestatu zutenean, euren babesa izan zuten. Zentzu horretan, Artziniegan ere Hiriska emakume taldeak antzezlanak eskaini ditu zenbait urtez.

Euskarazko ekoizpenari dagokionez, Piszifaktoria Laborategiak *Takoidun zapata gorria* sortu zuen, 20 minutuko pieza, zeinak musika, literatura eta dantza uztartzen zituen. Mikel Ayllonek idatzi zuen gidoia, Igor Arzuagak egin zuen musika, Haizea Paris eta Jabi de la Ydalga izan ziren antzezleak eta Pablo Ibarluzeak hartu zituen bere gain zuzendaritza ardurak. Elkarlana emankorra izan da, 2020an beste abentura batean sartu baitira proiektu horretako zenbait kide: *Ezagutu ginen eguna*. Gasteizko Antzerki Jaialdian estreinatuko dute.

Norbanakoak, profesional

Aipatzekoa da, bestalde, profesionalak ez direla falta eskualdean. Aipatutako Pablo Ibarluzeak Parisen trebatu zuen clown moduan, eta, esaterako *Cirque du Soleil* ospetsuan ordezko lanak egin zituen 6 hilabetez, 2010ean. New York eta Irlandan ere antzeztu du. Laudiora itzulita, Ibarluzea YindeYan taldearen sortzailea da. Edonola ere, ez da eskualdeak duen nazioarteko antzezle bakarra. Leyre Berrocal amurrioarrak Espainiako Estatuan zenbait pelikula eta telesaio egin zituen eta 2019an *The eyes of the night* taularatu zuen Londresen.

Iñigo Martinez laudioarrak ere Europan barrena izan ditu trebatzeko egonaldiak eta Suitzan dantza modernoko pieza prestatu zuen. Berandu topatu zuen bere zaletasuna, 30 urte igarota, baina hori ez da oztopoa izan, ezta aulki gurpilduna ere. Zenbait urtez, dantza jorratu du adierazpen tresna gisa, eta, orain, denbora gehiago eskaintzen dio antzezle hutsa izateari, bestea guztiz alboratu gabe. Aniztasun funtzionala eta artea uztartzen ditu ere Nerea Iglesiasek. Hegoamerikan ibili zen 2016an, eta orain esku artean duen proiektuan aniztasun funtzionala izango du hizpide.

Euskal ekoizpenera etorrita, Agurtzane Intxaurraga orozkoarra ezinbesteko erreferentea da. Hika taldearen eskutik 30 urte bete ditu Donostian, oholtzan istorioak kontatzen. Orozkokoa da ere Kuluxka taldea, berriki *Llueven vacas* antzezlana plazaratu duena, indarkeria matxista hizpide hartuta.

Pantaila handian

hainbat aldiz agertu da Aiaraldea

Azken hamarkadan zinemagile ugari gerturatu dira Aiaraldera euren filmeak girotzeko eszenatoki bila. Aurten, Orozko eta Urduñan egin dira grabaketak, baina Artziniega izan da izar nagusia: hamar urtean hiru film luze grabatu dira udalerrian.

Testua: Txabi Alvarado Bañares

Alde Zahar ederrek, mendi ikusgarriek, basoek... makina bat paisaiak osatzen dute Aiaraldea. Hainbat zinemagile konturatu dira horretaz, eta eskualdeko txokotara gerturatu dira azken hamarkadan, euren ikus-entzunezkoak girotzeko eszenatoki bila.

Urduñakoa da kasu berriena. *Alardea* telesaila grabatu zuten bertan udan, berriki ETB1en estreinatutakoa. Orozkoko Zaloa auzoan grabatutako *Ilargi guztiak* filma, aldiz, datorren urtean estreinatuko dute. Beste herri batzuk ere agertzen dira azken hamarkadan estreinatutako pelikuletan. Maroñon, adibidez, Guda Zibilean girotutako *Baile en el sindicato* ikus-entzunezkoa grabatu zuten 2013. urtean. 2017. urtean *El jardín de Vero* film laburra grabatu zuten Lezaman. Patxi Urkijo zinemagile laudioarrak, bere aldetik, behin baino gehiagotan baliatu du bere herria plato moduan, *Denontzako lekua* (2014) filmerako, adibidez.

Artziniega nagusi

Baina zineman behin baino gehiagotan agertu den Aiaraldeko herri bat badago, Artziniega da hori. Azken hamar urteetan hiru film luze grabatu dira bertan. Algis Arlauskas zuzendari errusiarrak *Patria* pelikula grabatu zuen herrian, 2010. urtean. Africa de las Herasen bizitza kontatzen zuen lanak, Sobietar Batasunaren zerbitzura espioia izandako emakumea eta Leon Trotskiren hilketan zerikusi zuzena izan zuena. Handik bost urtera, aldiz, Koldo Serra zinemagileak hautatu zuen Artziniega, Gernikako bonbardaketan girotutako lana ekoizteko. Eztanda kontrolatuak ohikoak bilakatu ziren grabaketa egunetan. 2018an, aldiz, Telleria izeneko herria bilakatu zen Artziniega, Kepa Sojo

'La pequeña Suiza', 'Gernika' edota 'Ilargi guztiak' filmak grabatu dira Aiaraldean, besteak beste.

zinemagile laudioarraren *La pequeña Suiza* komedian. Laudioko Ermualden eta Aiaraldeko beste toki batzuetan ere grabatu zituzten Netflixen enkarguzko lan horren zenbait eszena.

Horrez gain, Gorbeiako artzainei edota Jose Arrueren margolan bati buruzko dokumentalak grabatu dira, besteak beste.

Pelikula historikoak dira Aiaraldean grabatutako gehienak. Horietako bik ('Gernika' eta 'Baile en el sindicato') Guda Zibila dute hizpide.

Aiaraldean grabatutako pelikula esanguratsuak



Patria

2011

Algis Arlauskas zinemagile errusiarrak Artziniegan grabatu zuen *Patria* filma, duela hamar urte. Pelikulak ez du zerikusirik izen bereko telesailarekin: Africa de las Herasen bizitza du hizpide, Sobietar Batasunaren zerbitzura espioia izandako emakumea eta Leon Trotskiren hilketan zerikusi zuzena izan zuena. Errusiako Telebista Zentralerako grabatu zuten filma, enkarguz, eta eskaintzen zuen paisaia aniztasunagatik aukeratu zuten Artziniega eszenatoki gisa.

Baile en el sindicato

2016

Maroñon grabatu ziren aurrekontu baxuko pelikula honen hainbat eszena. Fran Longoriak zuzendu zuen pelikula. Guda Zibilean girotutako istorioa kontatzen du, Bizkaia eta Arabako frontean kokatutakoa. Anarkista baten eta herri bateko bizilagun baten arteko harremanean datza pelikularen funtsa. Pelikula hainbat aldiz proiektatu dute memoria historikoaren aldeko jardunaldietan, eta YouTube plataforman dago osorik ikusgai.

Gernika

2016

Bilbo eta Gaztelugatxe baliatu zituen Koldo Serra zuzendariak Gernika filmeko eszenatoki gisa, besteak beste. Baina irudirik ikusgarrienak -izen bereko herriaren bonbardaketarenak, hain zuzen- Artziniegan grabatu ziren. Eztandek hainbat egunez hartu zuten herria, benetako leherketa ugari baliatu baitzituzten grabaketetan. Maria Valverde, James D'Arcy edota Ingrid Garcia Jonsson agertzen dira Guda Zibilean girotutako maitasun istorio honetan.

Hainbat motatako filmak grabatu dira eskualdean. Guda Zibilean edota beste une historiko batzuetan girotutakoak dira gehienak, eta badaude ere beste genero batzuetako ikus-entzunezkoak, dokumentalak eta komediak, adibidez.

Nor, nori, nork

2018

Lamuza Eskolako guraso elkartearekin elkarlanean grabatu zuen Esti Urresola zinemagileak -eta zentroko ikasle ohiak- dokumental txiki hau. Ikastetxeko eguneroko errealitatea islatzen du filmak. Etorkinen seme-alaba asko daude zentroan eta, horren ondorioz, euskarak protagonismo berezia hartzen du jatorri ezberdinetako bizilagunen arteko komunikazioan. Film labur honek hainbat sari jaso ditu Espainiako Estatuko zein nazioarteko jaialdietan.

La pequeña Suiza

2019

Kepa Sojo zinemagile laudioarrak Artziniega aukeratu zuen bere bigarren film luzea girotzeko. Telleria izeneko herri baten istorioa kontatzen du pelikulak. Aurkikuntza arkeologiko baten ondorioz, bertako biztanleek Suitzara anexionatzea erabakiko dute, eta horrek hainbat egoera surrealista sortuko ditu. *Ocho apellidos vascos*en estiloko ikus-entzunezkoa da, eta hainbat aktore ezagun agertzen dira. Netflix plataforman ikusi daiteke.

Ilargi guztiak

2020

Iragan martxoan grabatu zen *Ilargi guztiak* filma, Orozkoko Zaloa, Urigoiti eta Ugalde auzoetan. Fantasiazko pelikula da, eta gerra karlistan girotua dago. Igor Legarreta da zuzendaria eta antzezleen artean Itziar Ituño -*La casa de papel*, *Errementari*...- edota Josean Bengoetxea -*Oreina*- daude. EITBk, TVEk eta Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatu dute lana, besteak beste, eta datorren urtean estreinatzea aurreikusi dute.

Autoekoizpena, inoren zain egon gabe sortzaile askok hartutako bidea

Teknologia digitalak aire freskoa ekarri du ekoizpenaren mundura. Izan liburuak, bideoak edo diskoak, norberak bere kabuz egiten du.

Testua: Aitor Aspuru Saez
Argazkia: Aresketa Ikastola

XXI. mendeak betikotzat jotzen genituen toki, kontzeptu eta ohiturak desagerrarazi ditu. Bideoklubak, musika dendak, hedabideak... Gure aurrean dagoen paisaia etengabe aldatzen ari da, eta teknologia berriek zerikusi handia dute horretan.

Kulturgintzari erreparatuta, baliabide digitalek ahalbidetu dute punkaren *Do It Yourself* -zuk zeuk egin- leloa beste maila batera eramatea, eta ez bakarrik musikaren esparruan. Izan ere, aspaldi, musika taldeek euren lanak ekoizten eta banatzen zituzten, disketxe handien beharrik gabe.

Hala ere, ikus-entzunezko baliabideen "demokratizazioak" ezbaian jarri du disko kontzeptua bera. Ez dira gutxi gaur egun euren abestiak Bandcamp plataforman doan eskaintzen dituztenak edo, zuzenean, diskoei lehentasuna kenduta, kanta berriak bideoklip bilakatu eta Youtuben zabaltzen dituztenak. Eskualdean genero ugariko proiektuek aukeratu dute bide hori: Luis Vil & La Brigada Político Social, Lyrican, Rlantz eta Ziztada, Mankaos, Izatefaltsua edota Okherrek, baina baita rock, metal edo rap estiloetatik urrun dauden egileek ere.

Literaturan ere

Edonola ere, musika ez da autoaskitasunaren hautua hartu duen sorkuntza esparru bakarra. Argitaletxeek Aiaraldeko hainbat idazle jaso dituzte: Txani Rodriguez, Mikel Ayllon, Isa Diaz, Inma Roiz edo Patxi Iturregi, baina eskualdeko idazle askok argitalpen murritzak eta eurek sustatutakoak plazaratu dituzte, inguru hurbilenean eu-

Eskualdeko musikari askok hartu dute autoekoizpenaren bidea. Irudian, Aiala Mendieta.

ren kontakizunak zabaltzeko. Horren adibide izan dira Kepa Barañano, memoria politikoa landu duena, eta Luis B. Rodriguez Ibernia, zeinak autismoari buruzko liburua idatzi duen, bere semearekin izandako bizipenak baliatuta. Batzuek liburu bakarra ez ezik, trilogia sortu dute bere herrian girotua, Pedro Ibarrola amurriorrak kasu.

Autoekoizpenean, bestalde, dena ez da eleberria izan. Arantza Alava urduñarrak, adibidez, olerkia hautatu du bere sormena adierazteko, eta gauza bera egin du Roberto Dominguez laudioarrak. Beste kasu batzuetan, psikologia izan da ardatza, Belen Andres eta David Sojoren liburuen kasuetan bezala.

Teknologia berriek musika, bideo edota liburuak sortzeko erraztasunak eman dituzte, autoekoizpenari bidea irekita.

Hainbat egilek euren liburuak argitaratu dituzte, editoreen eskaintzak itxaron gabe. Gainera, literaturaz gain, psikologia testuak ere sortu dituzte Aiaraldean autoekoizpenaren bitartez.

Hamarkadak utzitako artista esanguratsuak

Esti Urresola

Euskal laburmetrairik onenaren saria jaso zuen Zinebi jaialdian Esti Urresolak 2020ko azaroan, *Polvo seremos* lanari esker. Horrez gain, *Nor nori nork* lanarekin Bilboko Zinema Ikusezinaren festibalean gailendu zen zuzendari laudioarra, baita Sardiniako Babel jaialdian ere. Alabaina, proiektu ugari gauzatu ditu azken hamarkadan artista laudioarrak. 2013an *Adri* filma argitaratu zuen, eta 2016. urtean *Voces de papel* dokumentala aurkeztu zuen Donostiako Zinemaldian, ETBn emititu zena.

Kepa Sojo

Loco con ballesta film laburraren sortzaileak aipamenak jaso ditu 26 jaialdi baino gehiagotan. 2013. urtean ekoitzitako lanak Errusian (San Petersburgon) eta San Marinon sariak jaso zituen, besteak beste. Gainera, Goya sarietarako hautatua izan zen. 2016an plazaratutako *Hileta* filmak ere aitortza ugari eskuratu zituen zinema jaialdietan. Laudioarrak euskaraz grabatutako lehen pelikula izan zen gainera. 2019an Gasteizko Pregoilari izateko ere aukeratu zuten Sojo, Artziniegan *La pequeca Suiza* filma grabatu zuen urte berean.

Yolanda Mosquera

Euskadi Literatura Sariak ekimenaren baitan, ilustrazio onenaren aitortza jaso zuen amurrioarrak 2018an, *La pequeca Roque* lanari esker. Formatu ez ohikoa erabili izana saritu zuen epaimahaiak, ilustrazio, espazio eta formatuaren etengabeko jolasa, hain zuzen. Nazioartean ere azpimarratu dituzte bere lanak, hala ere; Portugalen, Txinan, Korean eta Italian kasu. Bestalde, 2011n Peru Abarka lehiaketa irabazi zuen, *Beroki gorria* lanak Euskadi Literatura Sarietako finalera heltzea lortu zuelarik.

Kulturaren diziplina ezberdinetan aiaraldear askok lortu dituzte sariak eta aitortzak. Musikaren alorrean disko eta egitasmo ugari plazaratu dituzte tokiko taldeek eta bestelako bertako musikariek. Antonio Oyarzabal pianojoleak, esaterako, sona handia lortu du Londresen.

Iñigo Martinez

Dantzari laudioarrak 2016an estreinatu zuen bere lehenbiziko lana, Davinia Descalsekin batera. 2017an Suitzan izan zen beste proiektu batean. *AMORfa* izena du bere lehenbiziko lanak, baina bestelako arte diziplinak ere jorratu ditu aiaraldearrak. 2020ko azaroan estreinatu zen, esaterako, *Armugan* pelikula Estonian, Espainiako Estatura zein Euskal Herrira 2021ean iritsiko dena. Horrez gain, dantza, antzerkia eta zinema uztartu ditu azken urteetan, zenbait ikuskizunetako protagonista izan delarik.

Saydi Lubanzadio

Fama a bailar telebista programan hartu zuen parte 2018an, eta geroztik ospe handia hartu du dantzari laudioarrak. Lola Indigo taldeko kidea da, eta Goya sarien galan eman zioten bere talentua zabaltzeko aukera. Ildo beretik, Espainiako zenbait abeslarirekin elkarlanean aritu da, *Operacion Triunfo* programan ibilitako Manuel Carrascorekin bideoa grabatu zuen, besteak beste. Horrez gain, *Gaztea dantzan* lehiaketako epaimahaiko kidea izatea proposatu zioten, dantzariak baloratzeko.



Diego Martin

Opera asko gidatu ditu Amurrioko Diego Martin Etxeberria zuzendariak, Alemanian gehienbat. Bartzelonako Orkestra Sinfonikoarekin eta Albert Guinovarten konposizioekin argitaratu du bere lehenbiziko diska. 2015. urtean Tokioko Nazioarteko Zuzendaritza lehiaketan garaile izan zen, mundu osoko 239 hautagai atzean utzita. 2017an, aldiz, Krefeld eta Mönchengladbacheko opera antzerkien zuzendari nagusi izendatu zuten. Iaztik, Chemnitzeko (Alemania) opera zuzendaria da.

Aiaraldea, ekitaldi handien lekuko

Euskal Herri mailako ekimenen eszenatoki bihurtu da jaialdi erraldoien bidez Aiaraldea. Gazte Topaguneak, Jalgi edo Athleticen Peña Eguna dira horren lekuko.

Testua: Izar M. Cosgaya
Argazkia: Aiaraldea.eus

Zer du Aiaraldeak Euskal Herri mailako ekimenak erakartzeko? Baliabide eta lurraldeekiko konexio egokia izan liteke ekitaldi erraldoiak bertan egitea erabakitzeko arrazoi. Orotariko ekintzak hartu ditu bailarak azken urteetan, politika, kirola edota kultur alorretakoak nagusitu badira ere.

Kirolari dagokionean, Artziniega aukeratu zuten Athleticeko peñek zaleen arteko topaketa gauzatzeko. Duela hiru urte

izan zen hori, 2017an hain zuzen. Hala, Euskal Herriko toki ezberdinetako elkarteak bertaratu ziren egun osoko egitarauaz gozatzera. Bestalde, atletismoko nazioarteko krosek zein ziklokrosak ehunka mundutar gonbidatu ditu kirolaz zein eskualdeko inguruneaz gozatzera.

Kulturaren alorrean, 2016an Jalgi ekimenaren lehen edizioa jaso zuen bailarak. Hala, sei egunez 60 ekitaldi inguru antolatu ziren eskualdeko 9 udalerrietan, euskal sortzaileen plaza bihurtuz Aiaraldea. Jai egun erraldoi batekin eman zioten amaiera dinamikari, euskal kulturako protagonista ospetsu eta sortzaile berrien artean.

Gazte ekimen asko

Edozelan ere, gazteen ekimenak izan dira Aiaraldera jende gehien hurbildu dituztenak. 2010ean iritsi zen nazio mailako ekimenen olatua bertara, 2010ean Amurrioko Refor industriagunean an-

2016.urtean Jalgi jaialdiaren bidez euskal sortzaile ugarik bete zituzten Aiaraldeko plazak. Astebetez 60 ekitaldi baino gehiago antolatu ziren eskualdeko 9 herrietan.

Gorka Urbizuk jo zuen Jalgi ekimenean, besteak beste.

Gazte Danbada Urduñan egin zen 2013. urtean eta Laudion 2016an.

tolatutako Ikasle Eguna medio. Hiru urte beranduago, 2013an, Ernai gazte antolakundeak Urduñan ospatu zuen bere lehenbiziko Gazte Danbada. Aurrez, Gorobel ingurutik igaroa zen 2007an Gazte Mendi Martxa; Okondo eta Laudio ere geltoki izan zituena.

Hala, kontzertu eskaintza zabala egon zen bi herrietan, bukaera

Gazte Danbada jaialdiaren bi edizio ospatu dira Aiaraldean. 2013an Urduñan izan zen, eta 2016an Laudion. Horrez gain, gazte erakundeek beste zenbait nazio ekimen gauzatu dituzte bailaran.

ekitaldia Laudion egin zelarik, milaka gazte Gardeako Arza poligonoan elkartuta. 2016an, aldiz, Danbada ekimenari heldu zioten berriro Laudion.

Bestalde, Askapenak Euskal Herria Arraundeguorl egun internazionalista deitu zuen Arrankudiagan, eta hainbat herrialdetako independentistak bildu ziren. Ikasle Abertzaleak antolakundeak, aldiz, Laudio aukeratu zuen 2016an *Forum To Fight* topaketa egiteko.

Ikastolen aldeko festak

Halaber, ikastolen aldeko festen edizio ezberdinek ere zipriztindu dute hamarkada. 2011n izan zen, esaterako, Laudio Ikastola laguntzeko Araba Euskaraz Jaia. 'Araban bagare' lemapean, urte osoan zehar burutu zituzten jarduerak, eta ohi gisa, egun osoko programazioarekin itxi zuten ekimena.

Amurrioko Aresketa Ikastolak bi urte beranduago hartu zion lekukoa, 2013an hain zuzen. 'Mihian kili-kili' izan zen Amrurioko leloa, eta berebiziko arrakasta izan zuen nola abestiak hala hezigunea planteatutako dinamika zabalak.

2020an ospatu behar zen jaia berriro 'Darabagu' izenpean; baina COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz, ospakizuna ekitaldi jakinetara mugatu behar izan zuen Aresketa Ikastolak. Hala ere, Durangoko Azokako Ahotsenea proiektuaren zati bat herrira ekarrita itxi edo borobildu zuten zikloa Amurrio Antzokian.

Araba Euskarazek bi jaialdi ekarri ditu Amurriora eta Laudiora ikastolak babesteko. Hala, milaka lagun elkartu ziren 2011n eta 2013an Laudion eta Amurrion, 'Araban bagare' eta 'Mihian kili-kili' lemapean.

Hamarkadak utzitako

idazle eta liburu esanguratsuak

Txani Rodrigez

Los últimos romanticos liburuarekin (2020) borobildu du hamarkada idazle laudioarrak Seix Barral argitaletxe esanguratsuaren eskutik. Alabaina, aurrez, beste 8 argitalpen ekoitzi ditu, horietako batzuk haur literaturakoak: *Artzaina izan nahi dut eta zer?* edota *Ez naiz barazkijalea eta zer?*, alegia. Horrez gain, *Pequeco Manuel, gran corazyn* (2016) alea ere ekoitzi zuen gazteentzat. *Agosto* lanak (2013) ere ospe handia lortu du inguru hurbilean. Komikiak, eleberriak... orotariko piezak sortu ditu banaka zein taldean.

Mikel Ayllon

Igartza Sariari esker argitaratu zuen Mikel Aylllon idazle laudioarrak bere lehen eleberria, *Ez egin tiro anbulantziei* (2015). Ordutik, sorkuntza lan ugari aurkeztu ditu. Aurten, berriz, *Zoriontsuak izatea aukeratu genuen* liburua plazaratu du Elkar argitaletxearekin. Horrez gain, 2020an Donostia Hiriko Kutxa Saria jaso du, kontakizunen alorrean. Antzerkigintzan ere ibilbide oparoa egina du: *Takoidun zapata gorria* obrarekin hasi zuen bidea, eta Gasteizko Antzerki Jaialdian lan laburra aurkeztuko du laster.

Inma Roiz

2013. urtean argitaratu zuen Inma Roiz okondoarrak bere lehenbiziko eleberria, *Manuela* izenekoa. 2019an Amurrioko Udalaren laguntzarekin *Guk ere badugu zeresanik* liburua sortu zuen, udalerriko 12 emakumeren bizipenak, oroitzapenak eta testigantzak ardatz hartuta. Antzerako proiektu bat gauzatuko du datozen hilabeteetan, *Aiarako emakumeak: memoriak eta aztarnak* izenburudun istorio bilketa lantzen dihardu eta, Aiarako Udalaren enkarguz. Horrez gain, *El viaje de Aisa* eta *Oro Verde* lanak plazaratu ditu.

Literaturari dagokionez, argitalpen ugari sortu dituzte eskualdeko idazleek. Horrez gain, zenbait sariketetan gailendu dira aiaraldearrak. Haizea Urkixo, esaterako, Urruzuno Sariketako poesia saileko txapeldun izendatu zuten 2017an, 'Hegaka' lanari esker. Haizea Ganzedo menoioarrak, aldiz, bigarren saria lortu zuen Galtzakomik komiki lehiaketan.



Patxi Iturregi

Ur biren artean izeneko liburua aurkeztu zuen Patxi Iturregik 2019an. Bertan, I. Mundu Gerran eta itsasoan girotutako 12 kontakizun bildu zituen. Alabaina, aurrez bestelako lanak ere egin izan ditu. Horien artean daude *Behi eroak* edota zenbait ipuin. 1986an estreinatu zen literaturan *Tropikoan galtzeko gida* lanarekin, 1998an *Hobe ez gogoratzea* istorioa sortu zuen, eta 1991n *Hondarreko distira ahantzi hura*. Geroztik, *Haize kontra*, *Behi eroak* edota *Dioramak* ipuin liburuak kaleratu izan ditu, besteak beste.

Mendiko lagunak

Mendi kantan liburu diskan bildu zituen Amurrioko mendi taldeak eskualdeko tontorrak eta bidean barrena kantatzeko abestien partiturak. 50.urtemugaren baitan kokatu zuten egitasmoa, eta Gorobel mendilerroa ezagutzeko gida praktikoa jaso zuten, euskal kantutegi batekin batera. Horrez gain, 5 abesti grabatu zituzten musikarien zenbait moldaketekin. Testu eta irudiekin batera Gorobeleko hainbat txoko esanguratsuetako GPS koordenatuak daude, gardenki mapa bidez txertatuta, baita otsotegiak zein txabolak ere.

Kokoriko

Kokoriko Hezkuntza Faktoriak *K@ntu k@ntari Aiaraldean* cd liburuxka plazaratu du. Bertan, Aiaraldeko 9 udalerrien kondaira edo ipuin bana, kontakizunaren ilustrazioa eta herriko gertaera batekin lotutako abestia topatuko du ikus-entzuleak. Argitalpenak 15 euro balio ditu (10 euro bazkideentzat). Kantuen letrak Izar Mendiguren bertsolariak egin ditu, eta musika melodiak Igon Olaguenagak eta Egoitz Uriartek. Dena dela, kolaborazio ugari izan ditu egitasmoak, tokiko idazle eta abeslariena kasu.

Historia eta memoria azaleratzeko etengabeko ahalegina

Tokiko historia berreskuratzeko hainbat saiakera egin dira azken urteotan, 3 ardatz jarraiki: antropologia, indusketak eta Gerra Zibila.

Testua: Aitor Aspuru Saez
Argazkia: Aiaraldea.eus

Azken 10 urteak memoria eta historia berpizteko ahalegin anitzen lekuko izan dira Aiaraldean. Ildo ezberdinak jarraitu dituzte protagonistek, baina 3 lan lerrotan banatu daitezke norabide ezberdinak. Alde batetik, egon dira antropologiaren haria jarraiki, eskualdeko usadioak ahaztu ez daitezen orainaldira ekarri dituztenak. Bestetik, denborak lurperatutako antzinako herrixkak eta kokalekuak induskatu dira. Azkenik, egoera politikoak ikusezin bilakatutako pertsonak gurera ekarri dituzte.

Juan Ibarrola militar errepublikarraren biografia plazaratu zuen Laudio Memoriak.

Azken lan ildo horretatik hasita, nabarmentzekoa da Memoria Historikoaren legeak babesa eman diela, nolabait, hainbat egitasmori. Horri gehitu beharra dago Gerra Zibila gero eta drama urrunagoa dela, eta, ondorioz, ez duela hainbesteko gatazkarik sortzen -polemikak egon arren-.

Gauzak horrela, eskualdeko puntu ezberdinetan jende anitzak ekin dio Frankismoaren errepresioak hildako lagunak omentzeari. Urduñan, han egondako presoen kontzentrazio eremua pairatutako lagunetan zentratu ziren. Joseba Egiguren kazetariak idatzitako liburua hauspoa izan zen horretarako, eta, gero, hildakoek eta atxilotuek zein oraindik bizirik zeuden errepresaliatuek omenaldia jaso zuten hirian. Ondoren etorri zen Aranzadik hilerrian egindako indusketa, eta hainbat gorpu topatu zituzten.

Eskualdean Frankismoan eraildako hainbat herritar omendu dira, bai tokikoak, zein kanpokoak. Adibidez, Urduñako kontzentrazio esparruan sufritu zutenak.

Aurkikuntza esanguratsuak egin dituzte Babion, Guda Zibilari lotuta.

Laudio Memoriak ere errepresio frankistak hildako herritar askoren izen eta abizenak jaso zituen plaka batean, eta plazan jarri zuen. Horrez gain, jardunaldiak eta erakusketa antolatu zituen eta, berriki, 2020an, alegia, Juan Ibarrola militar errepublikarraren biografia argitaratu zuen, San Roke Kofradiaren laguntzaz.

Diktadura frankistak zapaldutako herritarrak omentzeko monolitoa instalatu zuten Arrankudiagan, eta Laudion plaka jarri zuten plazan. Orozko, Urduña, Areta eta Arakaldon ere egin dira omenaldiak, besteak beste.

Arrankudiaga-Zollon ere biziki heldu diote gerra garaiko pasarteak berreskuratzeari. Monolitoa inauguratu zuten faxistek

hildakoak aitortzeko, baina horrez gain, ikerketa eta dibulgazio lanak burutu dituzte Txomin Egiluzek eta Markel Iturrizarek -karlistaldietako gertakarietan ere sakondu dute-. Lanetako batek eraman zuen Aretan eta Arakaldon hegazkin naziek hildako herritarrak gogoratzera.

Guda zelaiak ere egon dira interesaren erdigunean. Laudiok eta Arrankudiaga-Zollok Burdin Hesiaren lubakiak garbitu dituzte. Amurrio eta Urduñak Santiago mendian bertako defentsa egituren ikerketa sustatu dute, EHUrekin batera. Izan ere, han bataila odoltsu bezain ahaztuak gertatu ziren 1937an.

Lubakien lerroak azaleratu dituzte ere Aztarna aldizkari eta taldeko kideek, Aiaran zein Amurrion. Baranbion, gainera, auzolana deitu zuten hango defentsa sistema txukuntzeko. Hori gutxi balitz, Gerra Zibilaren kronika liburua argitaratu zuen elkarteak, Goi Nerbioi eskualdean zentratuta.

Eskualdeko aitzindariak

Gerra Zibilari buruzko ikerketa lanek, edonola ere, ez dituzte eragotzi bestelako ikerketak. Indusketak eta laborategiak izan dira horien tresnak eta etengabeko kanpainak behar dituzte mami osoa ateratzeko. Horrelako 3 puntu nagusi daude Aiaraldean: Elexazar, Ermualde eta Babio.

Elexazarren Juanjo Hidalgok hainbat kanpaina bete ditu, kanpaleku erromatar horretako sekretuak ikertzen. Besteak beste,

Aiaraldeko historia azaleratzeko indusketak sustatu dituzte Elezaxarren, Babion eta Ermualden.

Ermualden ere egin dituzte indusketak eta zenbait aztarna topatu dituzte.

taurobolioa, zeramikazko eltze, plater eta erretiluen aztarnak, elementu metalikoak, iltzeak eta puntak, sandalien eta boten tatxetak, brontzezko elementuak eta Alexandro Severo eta Gordiano III.a enperadoreei zegozkien bi txanpon ere aurkitu dira. Alorian dagoen eremuan hainbat panel jarri ditu Amurrioko Udalak, jendeak ondareari buruz gehiago jakin dezan.

Ermualden ere indusketa kanpainak burutu dituzte. Horien helburua izan da eliza baino lehen zegoen biztanleriaren nondik norakoak ezagutzea. Izan ere, uste baino zaharragoa da kokalekua. Zehazki, II. edo III. mendeko hilerri erromatarra aurkitu dute. Sergio Escribanok hainbat urtez hartu zuen bere gain ikerketa lana, baita informazioa zabaltzekoa ere. Horrela, tabernetan hitzaldiak antolatu zituzten eta udalak antzezlanak ere eskaini ditu han. Pandemia dela eta, hainbat hitzaldi utzi behar izan zituzten bertan behera 2020an.

Babioko mendian dagoen Burdin Aroko herri harresituak ere jakin-mina sortu du, eta Jon Obaldia aiararrak zuzendu ditu

Ermualden II. eta III. mendeko hilerri erromatarra aurkitu zuten. Ikerketa egiteaz gain, indarra jarri dute lortutako informazioa ahalik eta gehien zabaltzeko.

indusketak 3 urtez. Aranzadiko kideak defentsa sistemaren egituran sakondu du eta oraindik zenbait galderaren erantzunen bila ari da. Adibidez, non lurperatzen zituzten hildakoak, baldin eta hori egiten bazuten.

Ohiturak bizirik

Amaitzeko, ezin da ahaztu eskualdean dauden egitasmo anitzak tokiko usadioak ez galtzeko. Aztarna elkarteak museoa dauka antzinako tresnekin eta Artziniegako Etnografia Museoak ere ildo bera jarraitzen du; urtero bisitak antolatzen ditu, adibidez, ogibide zaharrak erakusteko.

Juanjo Hidalgok, Felix Mugurutzak edota Iñaki Garcia Uribek hitzaldi ugari eskaini dituzte Orozkoko eta Gorbeiako ohiturak eta kondairak azaltzeko, egindako ikerketen emaitzak zabaltzeko. Beste ekimen batzuk herrikoiagoak izan dira. Adibidez, Orozkoko Gaztaina Eguna, Laudioko San Blas edota Aiaran eta Tertangan egindako gari jotzea.

Zehazki, Orozkon gaztainaren garrantzia gogoratzen dute eta Laudion txerriarena baserrian. Nabarmentzekoa da ere Aiaran gariaren ia ziklo osoa partekatzen dutela. Moztu ondoren, irin bilakatzen dute Añesen, eta azkenik, ogia egiten dute. Dena jai giroan.

Historia arakatu izanak ohitura bitxi berria sortu du Arakaldon. Espartero Jeneralak herriari su eman zionez, orain arakaldoarrek militarraren panpina erretzen dute San Joan jaian.

Antzinako ohiturak, usadioak eta ogibideak aldarrikatu dituzte Aiaraldean museoen edota jaien bitartez.

Herritarrak,
jaien eragile eta giltzarri

Zertan aldatu dira Aiaraldeko festak azken hamarkadan? Kolektibo eta jaialdi berriak sortu dira bailaran, kulturak eta elkarlanak indartsu dirauten seinale.

Testua: Izar M. Cosgaya
Argazkia: Aiaraldea.eus

Jairik gabe bukatu da 2010-2020 hamarkadako azken urtea, koronabirusak eragindako pandemia dela eta. Alabaina, festen alorrean ere nabarmen aldatu dira ekintzak antolatzeko moduak. Edozelan ere, bada urteetan zehar Aiaraldean ezinbestekoa izaten jarraitzen duen osagai bat: gastronomia.

Hain zuzen, paella, patata tortilla, untxia edo gisatua, bakailaoa pil-pilean... Asko dira eskualdeko herrietan sukaldari zein jatu-

nen koilarak zaporez betetzen dituzten ekimenak.

Baina zertan aldatu dira festak 10 urtean? Batetik, musika eskaintzari erreparatu behar zaio: Dj edo musika jartzaileek toki esanguratsua hartu dute herrietako egitarauetan. Bestetik, eragile berriak agertu dira, udaletako jai batzordeei batu zaizkienak: Laudioko Jaiak Koordinakundea, Sorginlarren euskal mitologiako buruhandien taldea, Liborio Musikarien Kolektiboa...

Umeentzat batik bat buruhandi zein erraldoien konpartsek ere bilakatu dituzte handi herrietako egun bereziak. Herri gehienetan figura propioak badaude ere, buruhandi zein erraldoi propioak dituzten eragileak indartu dira; Urduñako Bihotza konpartsa edota Laudioko Sorginlarren taldea kasu. Hala, festarik festa ikusi izan ditugu eskualdean zehar euren pertsonaia edota panpinekin dantzan. Horrez gain, zenbait topaketa esanguratsu egin

Sorginlarren euskal mitologia taldeak buruhandiak sortu zituen hemengo pertsonaiekin. Ekitaldi bitxi ugari antolatu dituzte, halaber, Jai Batzordeek.

Txosna batzordeek ekimen ugari egin dituzte jai herrikoien alde.

izan dira bailaran. Esaterako, Sorginlarrenek 2019an Erraldoiketa izeneko ekimena sortu zuen, Euskal Herriko erraldoi konpartsa ezberdinak gonbidatu zituztelarik kalejira amaigabe eta koloretsua egitera.

Txosna batzordeek lan ugari egin dute jai herrikoien alde, eta indar handia hartu dute Aretan, Laudion, Urduñan, Amurrion zein Orozkon.

Eragile berriak

Horrez gain, Txosna Batzordeek indarra hartu dutela esan daiteke. Amurrion, Jai Herrikoien aldeko Batzordea eratu zuten herriko zenbait eragilek elkarla-

nean; eta parkea bilakatu dute txosnagune edo festa eremu. Laudioko Txosna Batzordeak ere eskaintzan jauzia eman du; eta gaueko musika kontzertuen eskaintzatik egun osoko -eta adin guztientzako- egitaraua osatzera igaro dira.

Urduñan, ekimen ugari

Bestalde, azpimarratzekoa da zenbait eragilek irekitako bidea. Urduñako Liborio Kolektiboak, adibidez, Musika Astea antolatzeari ekin zion 2011n. Hortik atera zen, besteak beste, Poteo musikala.

Geroztik, urtero, azaroko bi asteburutan musika estilo eta emanaldi ezberdinez bete dituzte hiriko tabernak, eguerdi eta iluntzeko tarteetan. Halaber, gogoangarria da musika kontzertuak tabernetara hurbildu dituzten establezimendu andana.

Horrez gain, elkarte edo ekimen propio gehiago jaio dira. Orozkorock elkartea da horren adibide, Orozkoko eragile berria. Hain zuzen, rocka sustatzeko sortu zen, baina sona handiko festibala eraman zuten aurrera iazko maiatzean; eguraldia lagun izan ez bazuten ere, euren lehen edizioan Euskal Herriko eta atzerriko talde ospetsuak hurbildu zituzten jaialdira.

Ildo beretik, Urdufolk jaialdia jarri zuten abian 2013an bertako musikari eta zaleek.

Udalen jarduera eta eskaintzetatik harago, Aiaraldea jaiak antolatzeko modu eta toki asko daudenaren lekuko da horrenbestez.

2013an Urdufolk festibala hasi ziren antolatzen Urduñan. Orozkorock jaialdia, berriz, 2019an egin zuten lehenbizikoz.

Streaming eta bideo-jokoak, etorkizuneko kultur ereduaren orube

Azken hamarkadan pisu handia hartu dute bideo-jokoek eta Interneten ikus-entzunezkoak plazaratuz bizi diren pertsonek. Horretan aritzen diren Aiaraldeko bi bizilagunekin hitz egin dugu.

Testua: Txabi Alvarado Bañares

Azken hamarkadan goitik behera aldatu da munduan kultura ulertzeko modua. 2010ean oraindik gutxi ziren Interneten euren bizitzaz hitz egiteaz bizi ziren pertsonak. Orain, aldiz, youtuber hitza bera zaharkitua geratu dela dirudi. "Plataforma hori ez da oso errentagarria gaur egun", azaldu du Asier Martinez laudioarrak, "hazkuntza handia izan zuen eta jende askok diru asko irabazi zuen horrela. Baina, bat batean, arrazoi batengatik edo besteagatik, markak gutxiago ordaintzen hasi ziren publizitateagatik".

Hori dela eta, Martinezek nahiago du bere burua "eduki sortzaile" gisa definitu. Twitch plataforman *World of warcraft* jokoaren zuzenekoak egiteaz bizi da, eta ez da bakarra: "Zeharo aldatzen ari da entretenimendua. Netflix edo Twitch bezalako plataformek geroz eta erabiltzaile gehiago dituzte".

Bideo-jokoen industria

Abenduan plazaratu da *Cyberpunk 2077*, 2019ko bideo-jokorik desiratuenetariko bat. CD Projekt enpresa poloniar ezaguna dago proiektuaren atzean, eta Imanol Delgado gazte amurrioarrak parte hartu du bere garapenean, 3D ingurugiroen disenatzaile gisa. Ez da sektore horretan dabilen aiaraldear bakarra. Pello Ureta Ofizialdegi artziniegarra Digipen enpresaren unibertsitatean aritu da bideo-jokoen garapena ikasten.

Bi fenomeno horiek (bideo-jokoen industria geroz eta indartsuagoa eta bideo-jokoetan jokatzea bera ikuskizun bilakatu izana) funtsezkoak izango dira datorren hamarkadan emango diren kultur kontsumoaren aldaketak ulertzeko. Martinezek argi dauka: "Duela 15 urte ez genuke inondik inora pentsatuko bideo-jokoen industria gaur egun duen pisua izatera iritsiko zenik. Uste dut Twitch bezalako plataformak entretenimenduaren sektorearen

Imanol Delgado amurrioarra aritu da Cyberpunk 2077 jokoaren garapenean.

adar garrantzitsu bat izango direla etorkizunean. Zenbat haziko diren? Auskalo".

Alde ilunak

Baina aipatutako paradigma berriek badituzte alde ilun ugari, lan baldintzei lotuta batez ere. "Bideo-jokoena ez da soilik azkar garatzen ari den industria bat, oso lehiakorra ere bada", ohartarazi du Delgadok, "badago alde ezkutu bat. Jendeak uste du teknologiak bere kasa eboluzionatzen duela. Baina errealitatea bestelakoa da: jende asko dago lanean hori gerta dadin".

Martinezek, aldiz, "plataformekiko dependentzia handiegia" dagoela jarri du mahai gainean, eta lan baldintzak ohiko lan batean baino txarragoak direla azaldu du: "Orain arte sartutako ordu guztiak jasotako diruarekin alderatuko banitu, emaitza ez litzateke positiboa izango, inondik inora. Lehen, programatzaile gisa egiten nuen lan, eta diru gehiago irabazten nuen".

Hala ere, bera pozik dago eginiko hautuarekin, ondo atera zaio "jokaldia", baina honakoa gaineratu du: "Egia da 'amets amerikarra' izango balitz bezala saltzen dela: esfortzua eta lana eginda lortu daitekeela, eta jende asko dago, hori egin arren, lortu egiten ez duena".

Internet eta plataformen bidezko kontsumoak aurrea hartu dio telebistari, eta bideojokoen industriak zinemarenak eta musikarenak batuta baino diru gehiago mugitzen du gaur egun.

Hezkuntzako hazkuntza

Ikasketa legeetan eta metodologietan aldaketa nabarmena egon da azken hamarkadan. Errebalida frogak, LOMCEren lege erreforma... Sistema aldatzeko saiakerek ez dituzte, ordea, heziguneak gelditu. Hala, D eredua nagusitu da bailarako ikastetxeetan, eta hezkuntza ez-formalean proiektu berriak sortu dira: aisialdi taldeak eta heziketan laguntzeko foroak kasu.

ANTIFAXISTA
UNTZA ERAIKI

Proiektu berri ugari plazaratu dituzte aisialdi eragileek.

Aisialdi taldeak, hezteko proiektu berri

Aisialdi eragile eta dinamika berriak agertu dira azkenaldian bailaran. Horrez gain, Euskal Herri mailako ekimenak garatu dira: Urmuga eta Berbabentura, besteak beste.

Testua: Izar Mendiguren Cosgaya
Argazkia: Aiaraldea.eus eta Kirikiño Atseden Taldea

Amurrioko Skautez gain, eskualdeko aisialdi taldeek gora egin dute azken urteetan. Aretan, esaterako, Pinpili taldea sortu dute, eta udalekuak, txangoak eta tailerrak eskaini dituzte bertako bizilagunentzat.

Orozkon, Artziniegan, Aiaran eta Urduñan Gaztelekuek betetzen dute funtzio hori, udalen finantziazioari esker. Gaur-gaurkoz, umeei bideratutako aisialdi talderik ez duten bailarako herriak Orozko, Arrankudiaga-Zollo, Artziniega, Arakaldo, Urduña eta Okondo dira. Dena den, azpima-

Kokoriko Hezkuntza Faktoriak udaleku ugari antolatu ditu.

rratzekoa da bestelako elkarteen inplikazioa, kirol jardueretan nagusiki.

Aisialdi taldeen igoera

Aspaltzak bezala, urteak daramatza Kirikiño Atseden Taldeak proiektuak sortzen. Hain zuzen, 35. urtemuga bete zuen Laudioko aisialdi taldeak, eta ohiko jarduerei bestelako proiektuak gehitu zizkioten: baratza, sendabelar edo errezeta liburuak, Kirikiño Irratia, webgunea...

Hezkuntzaren espazio ezberdinetan eragiteko asmoarekin sortu zen, halaber, Kokoriko Hezkuntza Faktoria 2018an. Hala, bi urteko ibilbidean heziguneetarako dosierrak, udalekuak, ikuskizunak edota Arimen Gaua bezalako ospakizunak balioz josteko bitartekoak eskaini dituzte. Hamarkadari amaiera borobila emateko, gainera, eskualdeko herri bakoitzaren historia eta kontakizunak jaso dituzte *K@ntu -k@ntari Aiaraldean* izeneko disko liburuan. Hala, 10 abestiko lana zabaldu dute, ilustrazio eta ipuin banarekin jositakoak, hain zuzen.

Aisialdi talde berriak sortzeaz gain, auzolanen lekuko izan da Aiaraldea, Tertangako errota konpontzeko antolatutako udalekuak, esate baterako.

Auzolan ugari

Auzolan udalekuek ere eman dute beretik. Esaterako, azken urteetan Tertangako Etxean antolatutako udaleku komunitarioen eskutik, herriko errota konpondu zuten.

Ekimen berezien lekuko ere izan da bailara. Horien artean daude AEK-k gidatutako Berbabentura egitasmoko zenbait txango, edota Euskal Herria mendirik mendi zeharkatu zuen Urmuga egitasmoa, aisia, mendia eta musika ardatz hartuta. Aisialdiak, ekimen ezberdinen bidez, txoko askotan uzta oparoa utzi duenaren adierazle.

Teknologia berriak
eta hezkuntza

Blanca Duñabeitia
Etxaurren Ikastolako irakaslea

Duela ia 40 urte Etxaurren Ikastolan hasi ginenean ez genuen imajinatu inoiz egungo egoeran egongo ginatekeela. Garai horretan Aiarako Udaletxe zaharrean lan egiten genuen eta ez geneukan ez fotokopiagailurik, ezta telefonorik ere.

Azken 10 urteetan, ordea, ordenagailuen presentzia biderkatu egin da ikastetxean, gizartean egin duen moduan. Izan ere, hezkuntza sistemak gizartearen joera jarraitzen du eta, egia esanda, umeek beldur gutxiago diete teknologia berriei irakasleok baino. Eurentzat naturala bilakatu da pantailekin harremana izatea. Halaber, aitortu beharra dago Internetik eta gailurik gabe, itxialdian klaseak ematea ezinezkoa izango litzatekeela. Teknologia berrietan oinarritu gara pandemian ikasleekin aritzeko, bideodeiak egiteko, lanak bidaltzeko... eta eurek lan izugarria egin dute. Horri esker, umeek ez dute itxialdia eman telebistari begira etengabe.

Edonola ere, tresna berriekin arazo ezezagunak agertu dira. Arbelekin ez bezala, gailu elektronikoak matxuratzen dira eta horren menpe gaude klaseak emateko. Daukagun gailu kopurua aintzat hartuta, ikastetxe bakoitzak bitartekoak izan beharko lituzke konponketak egiteko eta horrelako ezbeharren ondorioz, ikasturtearen erritmoa ez moteltzeko.

Haur bat ordenagailu aurrean bere etxean, konfinamenduan. Argazkia: Dani Gago -El Salto-.

Hezkuntza erreformen aurkako plantoek markatu dute hamarkada

LOMCE legeak borroka dinamika ugari piztu zituen eskualdean, baina COVID-19ak bestelako gatazkak jarri ditu mahai gainean.

Testua: Txabi Alvarado Bañares
Argazkiak: Iban Pagalday eta Aiaraldea.eus

Hamarkada gorabeheratsu eta gatazkatsua bizi izan du hezkuntzaren munduak azken hamar urteetan. 2013ko azaroaren 28an onartu zen LOMCE legea, "Wert legea" bezala ere ezagutu zena, diseinatu zuen ministroaren abizenagatik. "Hezkuntza hobetzeko lege" gisa aurkeztu zen erreforma horrek aurkakotasun handia sortu zuen Espainiako Estatu osoko hezkuntza komunitatean, hainbat arrazoi medio. DBH amaieran azterketa batzuk egin beharra ezartzen zuen legeak, erlijioa ikasgai bezala ezartzen zuen eta ikasgai nagusiak gobernuak zehaztuko zituela jasotzen zuen.

Hezkuntza erreforma horren aurka borrokatzeko sortu zen 2014. urtean Aiaraldeko Gure Hezkuntza plataforma, eskualdeko 12 ikastetxeetako guraso, ikasle eta langileen eskutik. Hainbat ekimen eta mobilizazio egin zituzten hurrengo urteetan zehar, ehunka bizilagunen inplikazioarekin.

Planto dinamikak

Lege horren aurkako aldarriak azterketa zehatz batzuen aurkako borrokan hartu zuen forma hurrengo ikasturteetan, 2017. eta 2018. urteetan batez ere. Aiaraldeko Gure Hezkuntza plataformak eta beste zenbait eragilek plantoaren aldeko jarrera sustatu zuten.

Bi probaren aurka abiatu zituzten planto dinamika horiek: Heziberri planaren baitako Kanpo Ebaluazio Diagnostikoa eta PISA txostena osatze-

2014. urtean aurkeztu zen Aiaraldeko Gure Hezkuntza plataforma.

ko azterketa. Eusko Jaurlaritzak EAEko hainbat ikastetxe aukeratu zituen bi proba horiek egiteko.

Gure Hezkuntza Plataformak salatu zuenez, Heziberri planak LOMCE legea EAEn ezartzea zuen helburu, eta gaineratu zuen kanpo ebaluazio diagnostikoaren azterketak ez zirela "batere hezitzaileak", besteak beste, oso ikasle gazteei ezarriko zitzaizkielako, Lehen Hezkuntza 6. mailakoei, besteak beste. PISA txostenaren azterketari dagokionez, "ikastetxeen arteko katego-

2014. urtean sortu zen Aiaraldeko Gure Hezkuntza plataforma, eta planto dinamikak sustatu zituzten Heziberri planaren Kanpo Ebaluazio Diagnostikoen eta PISA txostena osatzeko azterketen aurka.

riak” sortzea ahalbidetuko zuela salatu zuen plataformak, “lehen mailako eta bigarren mailako” zentroak sortuz.

Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, hori guztia ukatu zuen eta ziurtatu zuen azterketek ez zutela espedienteetan inolako eraginik izango. Hala eta guztiz ere, Aiaraldeko ikasle, langile eta guraso ugari mobilizatu ziren eta planto egiteko deia luzatu zuten Eusko Jaurlaritzak azterketa egiteko hautatutako ikastetxeetan.

Deialdiak arrakasta nabarmena izan zuen, ikastetxe gehienetan egin baitzuten plantoa, eta desobedientzia ekintza hori masiboa izan zen kasu gehienetan. Laudio Ikastolan, adibidez, bi ikasle baino ez ziren geratu PISA azterketa egiten. Laudio Institutuan 3 ikaslek baino ez zuten Kanpo Ebaluazio Diagnostikoa egin eta Laudio Ikastolako eta Zaraobe Institutuko DBH 4. mailako ikasle orok egin zioten planto proba horri.

Hainbat mobilizazio egin dira eskualdean hezkuntza erreformen auka.

Pandemiaren ikasturtea

Hamarkada berriak zeharo eraldatu du eskualdeko hezkuntza zentroen egoera. COVID-19aren pandemiaren ondorioz, eskolak telematikoki ematera igaro ziren ikastetxe guztiak, eta ordura arte ezkutatuta geratu ziren zenbait errealitate agerian geratu ziren: ikasle guztiek etxetik ikasteko aukera eta baliabide berdinak ez dituztela, kasu.

Eskola presentzialetara itzulera ere gatazkatsua izan zen. Hezkuntza langileek greba deitu zuten pandemiaren aurkako

Hainbat ikastetxetan egin zieten planto Eusko Jaurlaritzaren azterketei.

neurriak betetzeko baliabide gehiago eskatzeko. Ordura arte gutxitan ikusitako batasun sindikala izan zuen deialdiak, ELA, LAB, Steilas, CCOO eta UGTk egin baitzuten bat.

Testuinguru horretan kokatzen dira baita ere Latiorroko edota Urduñako Herri ikastetxeetako guraso elkarteek eginiko protestak, jantoki zerbitzua dela eta. Laudioko zentroan hainbat ikasle geratu ziren jantoki zerbitzurik gabe, segurtasun irizpideak betetzeko begirale nahikorik ez zegoelako. Hori salatzeko ekimena egin zuten gurasoek ikastetxe sa-

Aiaraldeko ikastetxe ugari hautatu zituen Eusko Jaurlaritzak Kanpo Ebaluazio Diagnostikoa eta PISA azterketa egiteko, eta kasu gehienetan planto egin zieten probei.

rreran, eta azkenean lortu zuten zerbitzua berrezartzea, eskatutako giza baliabide guztiak lortu ez bazituzten ere. Urduñako ikastetxe publikoan, aldiz, mobilizazioa egin zuten baliabide gehiago eskatu eta sukaldeak "bertako eta sasoiko produktuekin eta irekita" egotea exijitzeko.

Hezkuntza plazara

COVID-19ak sortutako egoera berriari erantzuna emateko aurkeztu da abenduan Hezkuntza Plazara dinamika. Elkarretaratzeak egin zituzten Laudio eta Amurrion, pandemiaren aurrean hezkuntza komunitateak eginiko ahalegina eskertu eta Eusko Jaurlaritzari baliabide gehiago eskatzeko. Etorkizunera begira, aldiz, Aiaraldeko "Hezkuntza Batzorde bat" osatzeko asmoa dute, "eskualdeko beharrei erantzuteko".

COVID-19aren pandemiak eta horren ondorioz ezarritako konfinamenduak agerian utzi ditu hezkuntzaren alorrean zeuden hainbat gabezia.

Ezohiko batasun sindikala lortu duten grebek eta gurasoen mobilizazioek markatu dute 2020-2021 ikasturtearen hasiera.

Aiaraldeko batzorde bat sortu nahi dute Hezkuntza Plazara dinamikako kideek, tokian tokiko beharrei erantzuteko.

Latiorro Ikastetxeko gurasoek protesta egin zuten ikasleen gehiengoa jantoki zerbitzurik gabe geratu zenean.

Eskola jantokiak, aldaketarako plater

Tokiko elikagaiak menuetan txertatzeko apustua egin dute Urduñako Herri Eskolak, Amurrioko Aresketak eta Laudio Ikastolak. Eraldaketen zergatiak azaldu dituzte.

'Jaten duguna gara', dio esaera zaharrak. Eskualdeko eskoletan ere garrantzia berezia hartu du elikadurak, jantokietako menuetan bereziki. Horren adibide dira Urduñako Herri Eskola, Areketa Ikastola edota Laudio Ikastola. Izan ere, hiru tokietan erabaki dute azken bost urteetan elikagaien artean bertako produktuak lehenestea. Urduñan, gainera, ekologikoaren aldeko hautua egin dute, Adinekoen Egoitzako sukalde zerbitzuarekin batera.

Hala ere, bidea ez zen erraza izan. Mobilizazio ugari egin behar izan zituzten Urduñako gurasoek, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak jantokia martxan jartzeko baimena ukatu baitzien hasieran.

Urduñako gurasoek mobilizazio ugari egin behar izan zituzten Osasun Sailari eskatzeko tokiko produktuekin funtzionatuko zuen jantokia baimentzea.

Amurrio eta Laudio

Urduñako esperientzia ezagututa, bidera batu dira Amurrio eta Laudioko Ikastolak. Gainera, plastiko gabeko egunak areagotzea jarri dute erronkatzat, jakien ontziei arreta jarrita. 2020ko otsailean aurkeztu zuen egitasmoa Laudio Ikastolak, egunero bertan prestatutako 540 menu banatzen baititu ikasleen artean. “Erosketen %65 hurbileko hor-

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO
75 urte zurekin

PADI PROGRAMA

INPLANTEAK

3D ERRADIOGRAFIAK
Mediku zentroa RPS: 314/18
Karmen kalea 13, behea, LAUDIO (Araba) - 946 72 31 00

nitzaileengana bideratzen dugu, urtero 80.000 eurotik gora", adierazi zioten ordukoan Aiaraldea Hedabideari. Hala, azalore edo barazki ekologikoekin soilik prestatutako pureak txertatu dituzte eskaintzan, besteak beste.

Amurrion, aldiz, Urduñako esperientzia erreferente izanda abiatu zuten prozesua, 2019an. Zehazki, 300 menutik gora eskaintzen dituzte Aresketan. Menua osatzeko Urduñako Herri Eskolako laguntza, Menjadors Ecologics taldearena eta Maria Manera nutrizionistarena izan dute sukaldariek. "Tokiko produktu ekologikoekin egindako menuak ematen ditugu orain", zehaztu dute.

Eskualdeko baserritar eta ekoizleekin batera jaki ekologikoen aldeko apustua egin dute zenbait ikastetxek. Menuetan barazki ekologikoak, Goiuriko gazta, Urigoitiko txorizoa .. txertatu dituzte.



Argia.eus

IKT pribatuak
ikastetxeetan

Urtzi Odriozola
Informatikaria

Azken urte hauetan, hezkuntzaren digitalizazio prozesuak abiada bizia hartu du. Zer esanik ez, azken ikasturte honetan pandemia hau dela medio. Baina, ondo ari al gara egiten?

Ni ezezkoan nago. Hasteko, esango nuke eskolen gehiengo batek Google moduko enpresen zerbitzuetara jo dutela bere problematika konpontzeko. Zerbitzu hauek, doakoak izateaz gain, sendoak, erraz erabiltzekoak eta bitarteko handikoak dira. Edozein eskoletan IKTetan aditu izan beharrik gabe jartzeko modukoak.

Baina pentsa dezagun apur bat... Horrelako zerbitzu bat doakoa bada, produktua erabiltzailea delako da. Eskoletako gure haurren datuak ematen dizkiegu zerbitzu hauen truke. Datu ikaragarri pila bat, enpresak haur horren profil bat ateratzeraino. Bere nabigazio historia eta milaka datu pertsonal, e-postako edukia tartean. Zer gustatzen zaion eta zein diren bere joerak jakingo ditu, ondoren, iragarkiak jarri nahi dituztenei eskaintzeko.

Baina ez da arazo bakarra! Natibo digitalak direla esaten dugun belaunaldi hau, inoiz baino konpetentzia digital gutxiagokoa da. Google eta enparauen produktuak hain dira errazak erabiltzeko, gaitasun digital eta kritikoa galtzen baitute. Erabat lerrokatzen dira enpresa hauen software ohituretara eta, gauza berdina egiten duten bestelako tresnak menperatzea kosta egiten zaie. Jakinmina eta gauzak ulertzeko grina kaltetzen dizkie.

Horrekin batera, produktu horien mende bihurtzen dituzte. Pentsa datorren urtean Google Photos kobratzen hasiko direla esango balute... Hor daukagun informazio guztiarekin zer?

Eta azkenik, Euskara. Google tresna asko euskaratu dira, baina eskoletan banatzen dituzten eramangarrietako Chrome OS, esaterako, ez. Eta noski, enpresa handien aurrean inork ez digu ziurtatzen orain arteko produktuei euskarazko mantenua emango zaienik eta, are gutxiago, sortuko dituzten berriak ere euskaraz izango direnik.

Oraindik ere ideia ona iruditzen zaizu zerbitzu hauen esku uztea gure haurren hezkuntza?

TRAIL
JOANNA
7

Kirola gailurrean

Zenbatezinak dira Aiaraldean antolatutako kirol ekimenak, praktika eta modalitate berriak agertu baitira gure bizitzetan: trailak indar handiz astindu ditu kirolarien bizitzak, eta *runner* fenomenoak herritar ugari erakarri ditu. Horrez gain, kirol taldeek emaitza historikoak lortu izan dituzte, eta elkarte askok urtemuga borobilak ospatu dituzte. Nekeak ez ditu taldeak ezta kirolzaleak ere kikildu.

CD Orduñak irabazitako Bizkaiko Kopa izan da eskualdeko futbolaren garaipen esanguratsuenetako bat.

Futbola, kirol erregea, gillotina atzean beti

Kirol ugari praktikatzen du jendeak eskualdean, baina ia mundu osoan bezala, futbola da hegemonikoa. Zaletasunak hauspo eta muga argia du maila apalenetan: dirua.

Testua: Aitor Aspuru Saez
Argazkia: Aiaraldea.eus, CD Urduña eta Juanfer Oleaga

Munduan eta gure gizartean kirol bat onena eta okerrena sortzeko gai bada, hori da, dudarik gabe, futbola. Moden, dirutzen, eta haragizko jainkoen sorburu, hegemonikoa da guztiz Europan eta, nola ez, eskualdean. Ehunka gaztek betetzen dituzte hemen euren poltsak astero botekin eta uniformearekin, zelaietan lehiatzeko. Alegia, ehunka umek eta nerabek amesten dute noizbait lehen mailan jokatuko dutela, eta Athletic Clubeko edo beste talde bateko ikuskatzaileak fitxatuko dituela eta, egun batetik bestera, aberats eta milaka zaleren idolo bilakatuko direla.

Futbola ez da, hortaz, kirol hutsa, baizik eta arrakasta, aberastasuna eta osperako zubirik errazena eta, aldi berean, zailena: miloika umek fitxa ordaintzen dute urtero eta euren ilusioa jartzen dute futbolean, baina telebistan agertzen den profesional kopurua txikia da. Alegia, eredu hori -miresmena eta distira sortzen duena- gutxiengo batentzat da. Elitearentzat. Eta eskualdean hautatu horien adibide gutxi daude. Egun, oraindik saltsan dagoena, gainera, ezohikotzat jo dezakegu: Eduardo Iturralde Gonzalez epaile erretiratua.

Hala ere, badirudi inork ez diola uko egin nahi bere ametsari, erreparatu gabe futbolaren fokoa gainean izateko dirutza beharrezkoa dela. Izan ere, zein da prozesua? Futbolak erakartzen du dirua? Edo diruak -hedabideen arreta, iragarkiak, luxuzko auto eta bizimoduak- erakartzen du jendea? Diruak diru gehiago deitzen du, baina ez da beti horrela. Aiaraldean aspaldi egon zen horren adibidea, Amurrio Club. Hainbat urtez 2.B mailan aritu ostean, kategoria galdu zuen. Zaleek albistea etsipenez hartu zuten, baina alkatea lasaiago bizi izan zen, klubera bideratu behar zuen diru kopurua txikiagoa baitzen.

Futbolaren zirrara elikatzen du diruak, eta hori gabe, zaila da elitetik hurbil egotea. Larrutik ordaindu zuen hori CD Laudiok 2.B mailara igotzea lortu zuenean.

Izan ere, futbol herrikoia eta futbol modernoa kontraesanean daudela ematen du, eta hori erakutsi du CD Laudioren esperientziak azken hamarkadan. Hain zuzen, aurreko denboraldian kanporatua izan ostean, 2013ko uztailaren 8an eskuratu zuen 2.B mailako igoera plaza klub laudioarrak, Mar Menor taldea irabazita.

Sekulako poz eztanda ekarri zuen lorpenak. Ehunka futbolzale batu ziren Ellakuriko harmailetan garaipena ospatzeko eta aldagela ere izan zen jaiaren pista. Hori gutxi balitz, udaletxeko balkoia hartu zuten jokalariek eta entrenatzaileek, ia beteta zegoen plaza baten aurrean hitza hartzeko.Kirolaren alde goxoak zuzendaritzaren adimena elikatu zuen eta euren aurrekontuak eginda, anbiziozko jokalariak fitxatu zituzten.

Dena den, amets horren zutabea gaizkiulertua zen. Uda horretan CD Laudioren aurrekontuak osatu zituzten arduradunek pentsatu zuten Arabako Foru Aldundiak 2.B mailan zegoen beste taldeari egiten zion antzeko ekarpen ekonomikoa egingo ziela eurei ere. Usteak erdiak ustel. Deportivo Alavések jasotzen duen diru-laguntzarekin itsututa, zuzendari laudioarrek pentsatu zuten 300.000 euroko hitzarmena erdietsiko zutela Foru Aldundiarekin. Ordea, kopuru hori nekez heldu zen erdira: 155.000 euro.

Horri gehitu behar zaio aukera handia galdu zuela klubak balizko irudi eskubideen bitartez dirua irabazteko. Berez, 2013ko urrian penalti txandan kaleratua izan zen CD Laudio, etxean, Xativaren aurka. Hurrengo kanporaketan, Xativa Real Madridekin neurtu zen.

Defizitak eta aprobetxatu gabeko abaguneez gain beste aldagai bat batu zitzaion CD Laudiori; sekulako bidaiak egitea egokitu zitzaien eta gastuak izugarri biderkatu ziren. Gertakari horien baturaren ondorioz, zorrak pilatzen hasi ziren: jokalariekin, harrobiko trebatzaileekin eta hornitzaileekin. Den-

Naia Landaluzek Athleticen jokatzeari ekin dio.

boraldi erdian, otsailean, egoera ekonomikoa jasangaitza zen; jokalariek salatu zuten 5 hilabeteko soldata zor zaitzaiela eta klubak prentsa agerraldia deitu behar izan zuen egoera zein zen argitzeko eta udalari laguntza gehiago eskatzeko. Edonola ere, eskaera ezer ezean geratu zen. Gogoratu beharra dago, besteak beste, krisialdiaren une oso latzetan zegoela buru-belarri tokiko erakundea, eta ez zuela lehentasunen artean jarri CD Laudioren "erreskatea".

Ametsa, hortaz, amesgaiztoa bihurtu zen denbora gutxian eta, aurreikusi zitekeenez, klubak kategoria galdu zuen. Baina hor ez zen amaitu sufrikarioa; 2015ean desagertzeko zorian egon zen kluba, inork ez baitzuen hondamendi ekonomikoaren ardura hartu nahi. Noraezean jarraitu zuen kirol proiektuak hurrengo urteetan ere, eta 2018an Carlos Larrory gasteiztarrak proposatu zuen bere burua presidente izateko, CD Vitorian izandako esperientzia berme gisa baliatuta. Baina horrek, nolabait, laudioarrak motibatu zituen klubaren gidaritza hartzeko. 7 botoren aldearekin, Javi Zaballa hautatu zuten bazkideek buru. Hori bai, helburu askoz txikiagoekin; zeuden zorrak kitatzea eta kategoria apaletan aritzea. 2.B edo maila gorenetan proiektua sortzeko xedea erabat baztertu zuen, eta izaera herrikoietara itzultzea proposatu zuen. Hau da, udalerriko gazteek osatzea CD Laudio eta hori izatea bere lekua futbolean jokatzeko.

Emakumeen protagonismoa

Hala eta guztiz ere, CD Laudioren gorabeherek ez zituzten soilik albiste txarrak ekarri. Krisialdi horren ondorioz, Altzarrate Kirol Elkartea agertu zen, herriko emakumezkoen lehen kluba. Neskek, zentzu horretan, nahiz eta noizbait Athletic Clubean jokatzeko grina izan, argi dute profesional mailara heldu arren, ez dutela ez aberastasunik ez osperik lortuko. Hortaz, plazer hutsagatik jokatzen dute. Horrek ez du esan nahi euren nahiak jarraitzen ez dituztenik.

Esaterako, Bizkaiko txapelduna izandako CD Orduñako kapitainak, Txitik, Athletic Clubean jokatu zuen bere hiriko taldea lideratu baino lehen. Leire Egia Ibarrola ere Ibaiganeko diziplinaren parte da, Naia Landaluzek ere tokia hartu du Lezaman, Estatu Batuetan denboraldi batez jokatu eta gero. Joana Arranzek ere ibilbide luzea egin du profesionalen esparruan, Athleticen edota Badajozeko San-

Hodei Oleaga atezain laudioarra hainbat taldetatik igaro da.

ta Teresa klubean. Naia Vallejok ere Alaves klubaren interesa piztu zuen. Gizonezkoen artean, Aiaraldean lehen lerroko izarrik agertu ez bada ere, giro profesionalean buru belarri sartu direnak egon dira.

Eliteko futbolean bi aiaraldear daude eta ez-ohiko figurak dira; Eduardo Iturralde Gonzalez epaile erretiratua eta Iñaki Bea Eibarreko 2. entrenatzailea.

Thaylor Lubanzadio Celta eta Eibarren filialetan ibili zen, eta arrazakeria salatu behar izan zuen zelaian. Alaves, Athletic eta Eibarreko diziplinak ezagututa, besteak beste, Numancian dabil Asier Benito amurrioarra. Unai Albizua hainbat klubetan aritu da Espainiako Estatuan, eta orain Suitzako 2. mailan jokatzen du Meho Kodroren aginduetara. Hodei Oleaga ere Athleticeko lehen taldearekin aritu da, eta Melillatik igaro ostean, Barakaldora batu zen. Modu diskretuan, futbolaren elitean dabilen pertsona da Iñaki Bea. Amurrioarrak 1. mailan Valladolidekin jokatu eta gero, 2012an Alemanian eman zuen amaitutzat bere ibilbidea, baina geroztik, Jose Luis Mendilibarren bigarren laguntzaile lanak betetzen ditu.

2.B mailak desagertzera eraman zuen ia ia CD Laudio.

Hamarkadak utzitako

kirolari esanguratsuak



Eli Pinedo

Patri eta Eli Pinedo eskubaloi jokalariek emaitza borobilak lortu izan dituzte profesional gisa. 2016an hartu zuen erretiroa Eli Pinedok, baina 2012. urtean Olinpiar Jokoetan parte hartzera ere iritsi zen. Horrez gain, Europako eta Munduko txapelketan ere aritu izan da kirolari amurrioarra. Patri Pinedok ere jokatu zuen Munduko Txapelketa 2011n, Brasilen. Itxako taldeko kidea izan da urte luzez. Bi ahizpak, ordea, kirol mundu profesionaletik erretiroa hartuta daude egun.

Aritz Arberas

Aritz Arberas txirrindulari prestatzaile amurrioarrak goia jo du hamarkada honetan. Bahrain McLaren talde ospetsua gidatzeko eginkizuna izan du azkenengo Frantziako Tourrean edota Giroan, esate baterako. Besteak beste, Mikel Landa txirrindulari ezagunaren prestatzaile fisikoa izan da 2020an. Aurrez, baina, Euskadi eta Euskaltel-Euskadi fundazioetan aritu zen amurrioarra, baita Orbea Fundazioan ere. Amurrioko Txirrindularitza Elkarteko laguntzailea ere izan da hainbat urtez.

Olga Artiñano

Europako Sokatira txapelketako txapeldunordea izan zen Olga Artiñano Laukizeko Gaztedi taldearekin 2018an. Hain zuzen, Hegoafrikan zilarrezko dominarekin etxeratu zen kirolari laudioarra. Alabaina, hori ez da izan Aiaraldeko kirolariak jasotako sari bakarra. Izan ere, Munduko lehiaketa irabaztea lortu zuen Gaztedirekin, Txina garaitu ostean. 2016an, berriz, zilarrezko domina eskuratu zuten Munduko Sokatira txapelketan, eta 2017an Euskadiko Selekzioa ordezkatu zuen.

40 kirol mota baino gehiago praktikatzen dira Aiaraldean, gaur egun. Horietako batzuk azken urteetan errotu dira, traila kasu. Edozelan ere, asko dira diziplina ezberdinetan nabarmendu diren aiaraldearrak. Kirol komunitatea asko hazi da, horren adierazle da antolatzen diren proba andana.

Ione Basterra

Ione Basterra Olaguenaga orozkoarra izan da, ezbairik gabe, hamarkada honetako kirolari esanguratsuenetako bat. Iaz (2019) zendu zen Saiatu Fundazioko handbike lasterkaria. 1994an jaio arren, Europako zirkuituetan 2 domina eskuratu zituen 2013an. 2016an, berriz, Europako txapelduna izan zen sub-23 kategorian, Italian. 2016an, ordea, Espainiako txapelketan bigarren geratu zen, eta 2017an hirugarren sailkatu zen Rosenauko lasterketan; Frantzian. Bestalde, 2018an Munduko Kopan aritu zen.

Zuriñe Frutos

Euskal Herriko Mendi Duatloien Zirkuituan goi postuetan geratu izan da Zuriñe Frutos. 2018an Bizkaiko Trail Kopa irabazi zuen kirolari artziniegarrak. 2017an, aldiz, Espainiako Duatloi krosean seigarren postua erdietsi zuen. Horrez gain, Arabako lokotx bilketan txapelduna izan da askotan: 2016an eta 2017an kasu. Euskal Herriko txapela ere jantzi izan du Frutosek herri kirol horretan, 2016an eta 2017an, hain zuen. 2018an bigarren geratu zen. Aiaraldeko hainbat lasterketetan ere garaile atera da.



Hodei Oleaga

Athleticen hainbat urtez egon da Hodei Oleaga futbol atezain aiaraldearra. 2017, 2018 eta 2019 urteak Athleticeko bigarren taldean egin zituen kirolari laudioarrak. Gaur egun, Barakaldo CF klubeko jokalaria da, 2019/20 denboraldian Melillan aritu ostean. Dena den, 2019. urtearen amaieran Athelticeko lehen taldearekin aritzeko aukera izan zuen. Hala ere, 2020ko uztailean talde txuri-gorriarekin zuen kontratua deuseztatzea erabaki zuen, 2022. urtean amaitzen zen arren.

Maddi Otaola

Urrezko domina eskuratu zuen Espainiako Gimnasia Erritmikoko Txapelketan Maddi Otaola okondoarrak 2019an. Sakoneta taldearekin lehiatu zen, eta uztaia erabilita lortu zuen lehen postua.

Iñaki Isasi

2012. urtean Euskaltel-Euskadi taldeko kirol zuzendaritza hartu zuen, 2001.urtean erretiratu bazen ere, sprinter gisa askotan nabarmendu ostean. Berriki, duatloi eta proba ugari irabazi ditu.

Geraxane Ussia

Euskadiko txapelduna izan zen 2019an 400 metroko modalitatean Geraxane Ussia. 2016an zilarrezko domina lortu zuen Espainiako txapelketan, baita Europako Iberoamerrikarrean ere.

Aratz Garmendia

Munduko K-1 txapelketan Euskal herriko selekzioarekin lehiatu zen 2016an. Horrez gain, Europako Boxeo txapelketaren irekiera borrokaldian hartu zuen parte, eta milaka lagunen aurrean aritu zen Miribillan eta BECen, MMAn.

Garazi Larrakoetxea

2019an eta 2020an Euskadiko txapelduna izan da altuera jauzian. 2016an Espainiako txapelketan brontzezko domina lortu zuen, eta Euskadikoan urrezkoa. 2013an zilarrezko domina ekarri zuen Espainiatik.

Julen Reketa

Oxigenoa euskarari 6.000 metroan ere proiektuaren sustatzaileetako bat izan da Julen Reketa mendizalea, 2018an gazteak Himalayara gerturatzeko zubi. Horrez gain, 2020an Urmuga egitasmoa gidatu du.

Maria Barbero

Espainiako Abiadura Kopan 3. helmugaratu zen motor-gidari urduñarra 2016an. Urte berean, Espainiako Kopan 2. sailkatu zen, eta 2015ean Amateur 1000 trofeoa eta Open 1000 sariak jaso zituen.



Asier Benito

Eibar taldearekin egin zuen 2. mailara jauzi Asier Benito amurrioarrak 2019an. 2017an Bilbao Athleticek fitxatu zuen, eta 2019an Ponferradina taldeak. Egun, Numancian dago.

Leire Egia

Athleticeko bigarren eta hirugarren taldeetako hamaikakoetan sartzea lortu du Leire Egia Arriolak, 17 urterekin. Txikitatik jokatu du futbolera, eta 2019an fitxatu zuen talde bizkaitarrak.

Ibone Sanchez

Triatloilari laudioarra Espainiako txapeldun izan zen taldeka 2017an, eta 2018an Espainiako Eliteko Duatloi Txapelketako talderik onena. Ildo beretik, Espainiako Erreginaren Kopako txapeldunordea izan zen 2017an.



Aaron Garmendia

Munduko 12. geratu zen 2019an Rogaine diziplinan Aaron Garmendia, Imanol Garairekin. Herrialde Katalanetan ere irabazi ditu norgehiagokak, eta Ipar Liga irabazi zuen Esti Ortizekin 2018an.

Nuria Larrinaga

Nuria Larrinaga hockey jokalaria mundu mailako txapelketan lehiatu zen 2018an, urte luzez goi mailan aritu ostean. Espainiako selekzioarekin bidaiatu zuen Bartzelonara, munduko txapelketan parte hartzeko.

Aimar Amondo

Nazioarteko Eskupilota txapelketa jokatzeko Portugalera bidaiatu zuen euskal selekzioarekin 2020an. Horrez gain, Euskal Herriko trinkete txapelketa irabazi izan du sarri.



Olaia Gurrutxaga

Landa zeharreko Espainiako txapelketako txapelduna da Olaia Gurrutxaga urduñarra, atletismo egokituan. Zazpi urtez lortu du Gurrutxagak lehen postuan sailkatzea, gainera.

Aingeru Castro

Alaitz Urkiolarekin batera, Euskadiko Rally txapelketako irabazlea izan da aiararra. Horrez gain, herri mailako rally ezagun ugari irabazi dituzte, Azpeitiakoa besteak beste.

Maialen Solaun

Goalball kirolean Euskadiko txapelduna izatea lortu du Maialen Solaunek Itxaropena taldearekin. Pilotak txintxarri bat izanik, gola markatzean datza kirola. Bestalde, Espainiako selekzioarekin ere aritu da.

Eneko Martinez

Murgako gidari gazteak trial ugaritan lortu du podiumetik gertu egotea. Espainian lehiatzen ari da eta txapelketetan emaitza onak lortu ditu. 2016an, adibidez, hirugarren postura heldu zen proba batzuetan.

Gentzane Aldai

Emakume Master Cup txapelketako binakako finalera heldu zen 2020an Gentzane Alday Callonge pilotari orozkoarra, Olatz Arrizabalaga bikote zuela. Gainera, lau t'erdiko txapelketako finalerdietaraino heldu zen.

Luisa Ibarrola

Euskal Herrian zein nazioartean garaipen garrantzitsuak lortu zituen txirrindulari saratxoarrak. 2018. urtean ekin zion profesional gisa aritzeari, baina txirrindularitza uztea erabaki zuen iaz.

Iker Larrazabal

Urteetan Amurrioko Pilota Klubean nabarmendu ostean, 2020an lortu zuen profesional kategorian debutatzea Iker Larrazabal gazte amurrioarrak, 18 urte bete berritan.

Bea Isasi

Urte askotan izan da Bea Isasi arespalditzarra Arabako zein Euskadiko Bola txapelketako garailea. Euskal Herriko txapelketa bi bider irabazi du, eta baita Arabakoa ere, eginiko edizio guztietan.

Julen Latorre

Amurrio eta Aiarako Txirrindulari Elkartean aritutako Julen Latorre amurrioarrak laugarren postuan bukatu zuen Espainiako txapelketa, 2020an. Dena den, aurrez, garaipen esanguratsuak bildu izan ditu.

Ane Murga-Aldama

Ane Murga eta Ane Aldama amurrioarrek irabazi zuten 2020an Arabako pala txapelketa, lehenbizikoz. Iradi Perez de Arrilucea eta Irati Alava izan zituzten aurkari, eta 30-12 gailendu ziren bikote gasteiztarraren aurka.



Unai Albizua

2012/2013 denboraldian Athleticeko jokalari onenaren trofeoa irabazi zuen futbolari laudioarrak. 2015ean lortu zuen Athleticeko lehen mailako taldearekin taularatzea, baina 2016an Murciak fitxatu zuen.

‘Runner’ fenomenoa

karriketan korrika

Korrika egitea modan jarri da azken urteetan nonahi. Aiaraldea ere ez da salbuespena izan: korrikalariak biderkatu egin dira, baita kirol horri lotutako probak ere.

Testua: Izar Mendiguren Cosgaya
Argazkia: Aiaraldea.eus

Korrikalariz bete dira azkenaldian ibai ertzetako paseoak. Baita mendiak ere. Finean, Aiaraldea ere gogor astindu du *runner* edo lasterkarien fenomenoak. Orain arte, atletismo pistetan ziharduten korrikalari gehienek, baina azken urteetan mendian zein bestelako bideetan korrika egiteko ohitura hedatu da toki askotan. Eskualdea ere ez da salbuespena izan. Horren adibide dira Nerbioiko parke lineala, Urduñako Arbieto inguruetako bide zidorrak edota beste hamaika paraje. Edozelan ere, sektore ezberdinek indartu egin dute *runner* fenomenoa. Horren adierazle dira arropa industriak, edota korrikaldiaren ezaugarri fisiko eta biologikoak (taupadak, distantzia eta beste) neurtzeko teknologia aplikazioak.

Duela zenbait urte ere bazen korrika egiteko joera. *Footing* deitzen zitzaion orduan ekintzari, baina tendentziak beste izendapen bat jarri dio garaiotan: *Runner*. Baliabideak, ordea, aldatzen joan

Moda bihurtu da ‘runner’ fenomenoa. Kirola praktikatzeko korrika egitera ateratzeak, arrakasta handia izan du aiaraldearren artean ere.

Korrikalari kopurua nabarmen hasi da eskualdeko bideetan.

dira. Duela bi hamarkada zintan korrika egitea zen moda. Orain, ordea, kaleak eta mendiak dira eremu nagusi. Materialetan ere sekulako jauzia eman da, praka motzetatik, muskuluak ez zigortzeko konpresore eta kamiseta termikoetara, alegia.

Hamarkadetan atzera eginez gero, 1980ko hamarkadan kokatuko genuke korrika egitearen *boom*-aren hastapena. 1990eko hamarkadakoa da *footinga*, eta milurte berriarekin heldu zen modaren egituratzea. Hain zuzen, "tribu urbanotzat" jotzen dute adituek "*runner* fenomenoa"; nork bere zapatila, arropa, galtzerdi eta erloju berezia baitarabil. "Bizitza osasungarriaren" filosofia barneratu ahala, kirolari eta nutrizioari eskaintzeko tartea handitu egin da gure bizitzetan.

Korrika egiteko probek, gora

Kirol ekintzetan ere izan du horrek eragina. Horren adibide dira bailaran dauden herri kros andana, edota azken 5-10 urteetan sortutako trail lasterketak. Finean, traila eta korrika jarduera profesional izatetik herritarren hautu izatera igaro dira. Aiaraldean, esaterako, asko dira lasterkariak protagonista dituzten ekimenak: Josito Memoriala, Urduñako Herri Krosa, Peregaña Igoera, Elorritxugauez, Mugagabe Trail, Arrankudiaga-Zollo, Areta edota Arespalditzako Trailak eta abar luze bat.

Sektore ugarik indartu dute 'runner' fenomenoa. Horren adierazle dira arropa dendak, edota jarraipenerako teknologiak. Lasterkarien gorakadak jardueretan ere izan du islada, herri lasterketak eta trailak areagotu egin baitira.



Kirol erronka
bitxiak, gailurrean

Kirol probetatik harago, erronka xelebreak bete dituzte Aiaraldeko kirolariek hamarkada honetan: Babiora non-stop igoera, tandemean egitea Done Jakue bidea...

Testua: Izar Mendiguren Cosgaya
Argazkia: Aiaraldea.eus

Aiaraldearrek ez dute mugarik. Ez, behintzat, erronkak proposatu eta betetzerako orduan. Azken urteetan orotarikoak izan dira herritarren artean sortutako erronkak. Horietako batzuk kolektiboak izan dira, taldean egitekoak. Beste batzuk, aldiz, norbanakoek luzatu eta gauzatu dituzte.

Urduñako Xabi Abajok, esaterako, 12 ordutan Txarlazoko Ama Birjina korrika igotzeko apustua egin zuen 2015ean. "Heroi erronka" deitu zion probari, eta 12 orduko mugan 7 aldiz tontorra igotzeko helburua jarri zion norgehiagokari. 11 ordu eta erdi behar izan zituen 75 kilometroak bukatzeko, 4700 metroko desnibela gaindituta.

Amurrioko Abel Fernandezek (Spiderabel) ere makina bat erronka burutu ditu azken urteetan. Gehienak, baina, elkartasun ekimenak izan dira. 2020ko uztailean, esaterako, maratoia egin zuen Aiaratik AEFAT elkarteari diru dohaintza bideratzeko. Hala,

Mendi erronkak izan dira eskualdean norbanako zein kolektiboek gehien sustatu dituzten jarduerak.

Spiderabelek 42 kilometroko maratoia osatu zuen Aiarako herrietatik.

Amurrio, Aiara, Luiaondo, Murga, Zuatza, Kexaa eta Menagarai lotu zituen, 42 kilometroak osatu arte. Javi Irabienek ere, elkarte bera laguntzeko xedearekin tandemean osatu zuen Done Jakue bidea 2020ko urrian.

Taldekako ekimenak

Banaka ez ezik, taldeka ere deitu dituzte ekimenak. Amurrio Trail taldeak, adibidez, 2018an abiatu zuen Babio non-stop erronka, abenduaren 23an eta 24an ospatu ohi dena, 16 ordutan ahal beste jende herriko tontorrera igotzeko xedearekin.

2017an, aldiz, Aiaraldeko II. Raida jokatu zen. Txapelketak 24 ordu iraun zituen, eta bailara osoan zenbait pista eta kirol modalitate egin behar izan zituzten partaideek. Guztira, 31 kirolarik heldu zioten ekimenari, emakumeak horietatik %20.

Goimazpe Trail taldeko kideek, ostera, Aiarako Bira Abentura izena jarri zioten iragan uztailean egindako itzuliari. Zehazki, 175 kilometro egin zituzten 48 ordutan, Aiaraldeko herri guztietatik igarota. Horrez gain, eskualdeko tontorrik esanguratsuenak zeharkatu zituzten, Gorobel mendilerroa eta Gorbeia kasu. Desnibelari dagokionez, 5.500 metroko aferari egin zioten aurre. Horrenbestez, bistan da Aiaraldeko kirolari zein ideia zoroek ez dutela denboran etenik izan.

Goimazpe Trail taldeko kideek 175 kilometroko zeharkaldia egin zuten 48 ordutan, Ehun Miliak probaren gogortasuna Aiarako Bira Abentura bihurtuta.

Hamarkadan sortutako korrikalarientzako probak

Josito Memoriala

Jose Manuel Fernandez Arza "Josito" omentzeko sortu zuen Laudio Atletismo Klubak Josito Memoriala hamarkada hasieran. Geroztik, ospe handia hartu du ekimenak kros zaleen artean, eta parte hartze muga gainditu izan dute azken edizioetan. Laudion barrena, 10 kilometroko ibilbidea osatu behar izaten dute korrikalariek, urtetik urtera zirkuitua aldatzen badute ere. Ekainean izaten da norgehiagoka, eta 700 dortsal saldu ohi dituzte lasterketan aritzeko, jarraitzaile asko dituenaren adierazle.

Peregaña Igoera

2013an egin zen Erretes Lantenon lehenbiziko Peregaña Igoera mendi lasterketa. Geroztik, ospe handia lortu du ekimenak aiaraldearren artean, eta ehunka lagun bertaratzen dira korrika egitera, edota norgehiagoka ikustera. Izan ere, festen testuinguruan antolatzen dute proba, eta jai giroa izaten da nagusi herrian egun osoan zehar. Normalean, 11 kilometroko zeharkaldia izaten da, eta Peregañako tontorra ez ezik, Aiara zein Artziniegako paisaia ederrak ezagutzeko aukera ematen du zirkuituak.

Babioko igoera

Amurrio Trail taldeak antolatutako ekimenak, Montes Solidarios elkartearen bidez Bihotzez fundazioa laguntzea du xede. Hain zuzen, abenduaren 24an egin izan dute azken 3 urteetan, eta berebiziko arrakasta izan du. Hargatik, bezperan, korrika 16 orduz geratu gabe jendea bertaratzeko deia luzatu izan du Amurrio Trailek; hau da, abenduaren 23an. Lehenbiziko urtean 250 lagun elkartu zituen ekimenak, baina iaz 600 pertsona batu ziren ekintzara, Olentzeroren bisitarekin kointziditu baitzuen.

'Runner' fenomenoarekin lotuta kirol probak ere ugaritu egin dira Aiaraldean. Kros formatuaz gain, mendi jakinetara igoerak proposatu dituzte kirol talde edo sustatzaile ezberdinek. Hala, kirol proben egutegia luzatu egin da denboran eta modalitateetan.

Elorritxugauez

2020an egin zen lehenbiziko aldiz Elorritxugauez proba. Frontalak buruan, iluntzeko 20:00etan abiatu ziren partaideak Laudioko herrigunetik Elorritxugane mendira, eta inguruko bidezidor zein gailurretatik bira eman ostean, herrigunea izan zuten helmuga, 17 kilometroko ibilbidea atzean utzita. Elkartasun ekimena izanik, bildutako dirua buruko gaixotasunak dituzten familien ASASAM elkartera bideratu zuten antolatzaileek. Dortsalak elkartekideek egin zituzten eskuz.

Kilometro Bertikalak

2015ean izan zen Laudioko Santa Luziako Kilometro Bertikalaren lehenbiziko edizioa. Geroztik, urtero antolatu dute proba, 2020an izan ezik (COVID-19a dela eta bertan behera utzi dituzte ekimen gehienak, osasun eta segurtasun neurriengaitk). Ugarteko plazatik Ermualderaino, 4.600 metroko ibilbidea osatzean datza lasterketa, eta maldan gora osatu behar da zirkuitu osoa, helmugako kanpaia jo arte. Jai giroan ospatzen dute urtero zita, maiatzeko azken asteburuan, Ermualdeko festetan.

Berdintasun Milia

Amurrion sortu zuten Berdintasunaren Aldeko Milia Herritarra lasterketa 2007an, eta geroztik errotzen joan da proba, martxoko egitarauaren baitan finkatu dutelarik. Adin guztietarako ekimena izanik, parte hartzea handitu da azken urteetan. Edozelan ere, ez da berdintasunari lotutako kirol ekimen bakarra, Amurrio eta Laudioko futbol taldeek (Kaskagorrik eta Altzarratek) urtero antolatzen baitute Berdintasunaren Aldeko Martxa, Amurriotik Laudiorako ibilbidea ardatz hartuta.

Trail probak, korrikalarientzako gozabide

7 trail lasterketa baino gehiago antolatu dira azken 10 urteetan Aiaraldean. Zale asko erakarri ditu mendi lasterketen proposamenak, eta talde ugari sortu dira.

Mendian korrika egiteari deritzo traila praktikatzea. *Runner* fenomenoarekin batera hazi zen kirola bailaran, eta, egun, talde zein proba ugari ezaugarritu ditu. Batetik, eskualdeko trail lasterketak daude, tokian toki, edizioek aurrera egin ahala ospea hartu dutenak. Bestetik, kirol taldeak sortu dira, praktika indibiduala izan arren, kolektiboki lehiatzeko edota federatzeko. Hala, gaur-gaurkoz, 7 talde daude Aiaraldean: Amurrio Trail (Amurrio), Areta Trail (Areta), Aiaramendi korrikalariak (Aiara), Oinkariak (Amurrio), Goimazpe (Arrankudiaga-Zollo), Orkatzak (Laudio) edota Gualdetxu (Urduña) kasu.

Eskualdeko korrikalariek Aiaraldeko zein Euskal Herriko proba ugaritan hartu dute parte. Argazkietan, Amurrioko eta Aretako Trailak.

Trail lasterketak nonahi

Ez da harritzekoa, beraz, azkenik, hamarkadan horrenbeste trail lasterketa antolatu izana bailaran. Urduñan, Mendi Lasterketa (eta duatloia zein maratoia) burutu izan dute azken urteetan; Arespalditzan, Arrankudiagan, Amurrion, Aretan eta Okondon trailak, eta Laudion Mugagabe lasterketa. Horrez gain, bestelako erronkak ere gauzatu izan dira: Santa Luziako Erronka Bertikala (Laudio) edota Peregañako Igoera (Erretes) besteak beste. Urduñako Txolope Erronka aurten egitekoa zen, baina COVID-19a dela eta, bertan behera utzi behar izan zuten proba.

Horrenbestez, sasoiko dago traila Aiaraldean, baita hemendik kanpo ere; izan ere, korrikalari ugarik hartzen dute parte beste toki batzuetan antolatutako lasterketetan, eta podiuma zapaldu dute zenbaitetan.

Urduña,
elkarlana lantzen

Urduñako eragileen, herritarren eta Udalaren lankidetza nabarmen handitu da azken urte hauetan. Proiektu eta ekintza berritzaile andana gauzatu dira.

Historia adina bizitza dauka Urduñak kontatzeko. Guzti hori bistaratzeko azpimarratzekoa da herritar, udal eta elkarteen jarduna, elkarlanean sustatu eta antolatzen baitituzte ekintza gehienak. "Otxomaioetako elkarlanei esker, esaterako, oso ideia politak eta berritzaileak atera ziren: Otxomaio Irratia, banderolen banaketa masiboa udal aldizkariarekin batera; *streaming* bidezko kontzertuak (Xabi Solano, Siroka...) edota bertsolari ezagunekin egindako saioa kasu, Otxomaio Irratian entzun zirelarik guztiak", azaldu dute Urduñako kultur, kirol eta euskara zinegotzi zein teknikariek. Zentzu horretan, Urduña proiektu berritzaileen aitzindari bihurtu da hainbat alorretan, COVID-19ak eragindako krisiaren aurrean, "testuinguru zailenetan ere, urduñarren ideia, sormen eta elkarlanari eskerrak", azpimarratu dute udaleko kideek.

Elkarlanaren fruitu dira, halaber, beste hamaika egitasmo ere: Urduña Hiria museoa, Musika Astea (poteo musikala barne), Urduña Hiria Herri Krosa, Urduñako Mendi Duatloia, Urduñako Ziklokross proba eta abar luze bat. Izan ere, asko dira Urduñako norbanako eta eragileek elkarlanean antolatzen dituzten ekimenak.

Arkupeetako margolanak

Bestalde, Porrilló margolari urduñarrak, Bizkaiko beste artista ospetsu batzuekin batera, Foru plazako arkupeak margotu zituen, Udalaren ekimenez. Turismo Bulegoko kideek nabarmen dutenez, "Europan dimentsio horietan eta sabaian dauden lan bakarretarikoak dira".

Herritar eta elkarteen ekimenez, 2020ko jaietan Otxomaio Irratia sortu zuten festa giroa zabaltzeko, COVID-19a medio. Bihotza erretzeko, berriz, paperezko panpinak banatu zituzten etxeetan.

Futboletik harago
hedatu da kirola Aiaraldean

Futbolaren hegemonia ez da erabatekoa eskualdean. Azken hamarkadan kirol talde eta proba anitzak sortu dira, gustu guztietarako eskaintza eratuz.

Mendi probak dira, seguraski, parte hartzaile gehien biltzen dituzten ekimenak. 30 urte baino gehiago igaro dira lehen mendi taldeak sortu zirenetik, baina azken urteetan gehiago jaio dira eskualdean.

Txirrindularitza probek kirolari eta zale ugari erakarri ohi dituzte.

Auto lasterketen mundua ez da asko errotu eskualdean, baina egon dira ekimen puntual batzuk, eta aiaraldear batzuk Afrikan egon dira proba gogorretan parte hartzen.

Dantzak eta gimnasia erritmikoak ere pisu handia dute Aiaraldean. Hainbat sari lortu dituzte eskualdeko taldeek, eta topaketa arrakastatsuak ere antolatu dira.

Borroka kirolek zabalpen handia izan dute eskualdean azken hamarkadan, hainbat klub eta kirolariren lanari esker. Norgehiagoka garrantzitsuak egin dira eskualdean, Euskal Herriaren eta Palestinaren artekoa kasu.

Hockeyak ere protagonismoa mantendu du Laudion, Ganbegi taldearen jardunari esker.

Patin talde ugari sortu dira eskualdean azken urteetan, eta nabarmen zabaldu da lau gurpilen gainean ibiltzeko zaletasuna.

Parapentea eta arku tiroa dira Aiaraldean praktikatzen diren beste bi kirol. Hala ere, asko utzi ditugu aipatu gabe: Aiaraldea.eus webgunean jaso daiteke eskualdeko proba eta talde guztien berri.

Ba gure
etxean ez

Xabi Zalbide
Kirolaria

Lehengoan, jakinda eskuan duzun orrialdearen txoko honetan zerbait bota behar nuela, eta kirolean inposatzen den indibidualismo merkantilistaz edo pandemiaren monotemaz idazteko aukera baztertuta, hausnarketa txiki bat bota nuen sarean. Hausnarketa txiki bat, aspalditxotik kirol-globerismoan izan dudan esperientziatik abiatuta eta gizonemakume nagusion kirol-jardunaren alderdi oso lotsagarri bat oinarrian duena: kirol-praktika ez profesionala gizonok gure pribilejioak baliatzeko esparrua dela.

Ez dakit zu, baina ni, oso aspalditik, askoz gazteago nintzenean ere, sano harritu izan nau nolako maila mantentzen zuten, esaterako, lasterkari edo ziklista ez profesional askok, etxean ume txikiak eta horrek dakartzan ardura guztiak izanda ere. Esaten nion nire buruari: "Nola egingo du podiumean dagoen morroi horrek egunero denbora ateratzeko, nik ozta-ozta ateratzen badut?". Susmatzen nuen, jakina, eta susmo hori uste erabatekoa bihurtu da lubakiaren beste aldean egotea tokatu zaidanean. Eta idatzi nuen, labur, gauza xinple bat: "Seme-alaba txikiak badituzu eta, hala ere, egunero-edo entrenatzeko tarterik hartzen baduzu, etxeko zereginen bat beste norbaiten bizkar ari zara uzten. Eta badakizu nor den beste hori". Gehitu nezakeen: "Eta lan egiten baduzu" edo "izan daiteke zure bikotekidea ez den beste pertsona bat ardura hartzen duena", baina berdin dio, funtsean dagoena gauza bera da.

Azken batean, mahai gainean jarri nahi nuen gizonok -"kirolaita" euskaldun aliatu feminista superjatorrok ere bai, edo batez ere-, familia-unitate normatibo bat eratzen dugunean, kirol-praktika baliatzen dugula gure pribilejioak berriz ere gauzatzeko, eta emakumeek hartzen dutela, berriz ere, umeak jagoteko eta bestelako ardurak. Patriarkatuaren beste adierazpen bat da, besterik ez, baina kirolak duen ospe onarekin eta onarpenarekin gozotua, urardotua, eta kirolaren mundutxoan ostendua, salbuespenak salbuespen.

Karmele Jaiok kirol-praktika hori tabernaren ordezkotzat jo zuen duela ez asko artikulu batean, eta hautsak harrotu zituen kirolarien artean. Pentsatzekoa zen, beraz, antzeko erreakzio (murritzago) bat izango zela nik idatzitakoaren harira; hala izan da, ez zen ustekaberik izan: emakumeek baieztatu zuten kontua, eta profil-argazkian kirola egiten agertzen diren gizon batzuek, berriz, ukatu, kontua arlo indibidualera eroanda ("ba ni ez", "ba gure etxean ez", "antolaketa kontua da"...) eta arazoaren izaera estrukturala onartu gabe.

Ezer harrigarririk ez, noski, ez gara Amerika deskubritzen ari. Baina ondo dator, gogoratu dezagun aurretik zein bide luzea dugun egiteko. Denon etxeetan.

Herri galdeketen aroa

Nazio burujabetzari buruzko herri galdeketek bide berriak ireki dituzte. Bestalde, udal hauteskundeek hegemonia politikoa jeltzaleen (EAJ) esku utzi badute ere, herri plataformen (Adie, Aiara Batuz, Omnia) eta alderdi politiko berrien agerpenak (VOX) markatu du, besteak beste, hamarkada. Halaber, espetxe politikak medio, sarekadak eta espetxeratzeak ere gertatu dira.

Iñigo Errejon Amurrion, artean Podemoseko kidea zela.

Alderdi berrien agerpena, azken urteetako albistea

Krisialdi ekonomikoak eragina izan du ere egitura politikoan eta herritarrek alderdi berrien alde egin dute horri erantzuteko. Bestalde, ETAren desagerpenak eszenatoki politiko "berria" ekarri du.

Testua: Aitor Aspuru
Argazkia: Aiaraldea.eus

Egon zen garai bat, higiezinen burbuila eta finantza krisialdia baino lehen, zeinean Espainiako Estatuko eta baita Hego Euskal Herriko egitura politikoek ere itxura monolitikoa zutena. Alderdi gutxik zuten eragina esparru politikoan, eta inor ez zen ateratzen gidoi horretatik.

Zailtasun ekonomikoek, ordea, erakutsi zuten klase politikoak ez zuela gaitasunik merkatuaren gorabeherei aurre egiteko, eta horrek ohiko sistemaren aurkako mesfidantza eta amorrua eragin zituen. Joerak isla izan zuen txoko eta eremu askotan, eta Aiaraldea ez zen izan salbuespena.

Talde berriak

Tokiko gatazkak edo desadostasunak direla medio, udala beste modu batean kudeatzeko proposamenak agertu ziren: Orozkon ADIE -3. aldiz jarraian alkatetza lortu duena-, Omnia Laudion, Aiara Batuz, eta Amurrio Guk Bai. Egitasmo guztiek zerrenda independenteen eredua jarraitu zuten, bestelako alderdiekin harremana izan gabe. Horietara batu zen geroago Okondo Aurrera, EAn eta EH Bildun egondako gobernu taldeetako zenbait kidek euren aukera sustatu eta gero. Lau urtez izan zuten alkatetza.

ETAren etena

Tokikotasunetik harago, edonola ere, lurrikara politikoa nabarmena izan zen. Ziurrenik, horren adierazle handiena ETA erakunde armatuaren behin betiko su etena izan zen, zeinak Bilduren sorrera ekarri zuen. EA eta Ezker Abertzalearen koaliziora gehitu zen Aralar, eta, horrela, EH Bildu gorpuztu zuten. Alderdi horien guztien metaketak arrakasta azpimarragarriak izan zituen bere lehen hauteskundeetan, eta baita geroko hitzorduetan ere, nahiz eta ematen duen hasieran goia jo zuela.

Koalizioak Urduñako, Artziniegako, Laudioko, Arakaldoko, Aiarako, Okondoko eta Arrankudiaga-Zolloko alkatetzak izan ditu, esaterako, azken 10 urteetan bizitako esperientzian, eta ezustekoak izan dira, bereziki, Urduña eta Artziniegako kasuak, historian ez baitzuten horrelako emaitzarik eskuratu EH Bildu osatzen duten indarrek.

Podemos fenomenoa

Euskal Herriko politikaren aldaketa haizea ez da izan eskualdean ufada sortu duen bakarra. Izan ere, Podemos alderdiak agerpen sendoa izan zuen Aiaraldean. Amurrion eta Laudion zirkuluak sortu ziren, eta emaitza onak erdietsi zituzten.

Hori bai, batez ere 2016ko ekainean zapaldu zuen gailurra, Kongresu eta Senatuko hauteskundeetan, hain zuzen; Podemos Ahal Dugu, Equo eta Unidad Popular alderdiek osatutako koalizioa Aiaraldeko indar bozkatuena izan zen eta, zenbait alderdi abertzaleren harridurarako.

Edonola ere, arrakasta horrek ez du gehiegi iraun. Espainiako Estatuan izandako krisialdiak, barne desadostasunek eta familia politiko ezberdinen arteko ikamikek isla izan zuten eskualdean ere, eta, osasunez hazten ari zen proiektua, apurka-apurka zimeltzen joan zen.

Horri gehitu behar zaio beheraldia ez zela graduala izan eta barne gatazkek Amurrion izan zutela Arabako gudu zelai. Edo, behintzat, borroka eremuetako bat.Alde batetik, Dani Trujillano batzarkidea eta beste ordezkari batzuk kaleratu zituen alderdiko zuzendaritzak, tokiko zirkuluek euren erabakiak babestu arren. Horrez gain, Orain Amurrio taldeak Podemosen diziplinarekin apurtu zuen, eta bere kabuz aurkezten da udal hauteskundeetan.

Vox alderdiaren agerpena

Espainiako Estatuko politikan ere bere aztarna utzi du Amurriok Santiago Abascalen bitartez. Hainbat urtez PP alderdian ibili eta gero, amurrioarrak eskuin muturreko proiektua antolatu zuen: Vox. Zenbait urtez oihartzun gutxi izan ostean lurralde espainiarrean, 2018an Andaluziako hauteskundeek mapa politikoan jarri zuten bere alderdia, eta 2019an Espainiako Kongresuan 52 ordezkari lortu zituen. Hala eta guztiz ere, Abascal ez da profeta izan bere lurraldean eta Voxen emaitzak oso txikiak izan dira Aiaraldean behin eta berriro.

Gatazka politikoak

forma berriak hartu ditu Aiaraldean

Azken hamarkadan hainbat aiaraldear epaitu eta espetxeratu dituzte jarduera politikoa egin edota sare sozialetan idazteagatik. Amurrio egon da jo puntuan batez ere.

Testua: Txabi Alvarado Bañares
Argazkiak: Aiaraldea.eus

2011ko urrian jakinarazi zuen ETAk jarduera armatua behin betiko utziko zuela. Bederatzi urte igaro dira ordutik hona, baina Euskal Herriko gatazka politikoa ez da desagertu. Atxiloketa eta epaiketek bere horretan jarraitzen dute, forma berriak hartu dituzten arren.

Debekuak

Debekuek hartu zuten protagonismoa hamarkadaren lehen erdialdean. 2013an Pablo Gorostiaga preso politikoa izendatu zuten Laudioko Jaietako pregoilari, baina Gasteizko epaitegiak bertan behera utzi zuen izendapena, Carlos Urquijok -garai hartan Espainiako Gobernuko ordezkaria zena- hala eskatu ostean.

Judith Uriarte -Gorostiagaren emaztea- handik hilabete batera zendu zen, denbora luzez gaixorik egon ostean. Laudioko alkate ohiak ez zuen bera bisitatzerik izan, horretarako baimenak tramitatuak zeuden arren. Gertatutakoa salatzeko elkarretaratzea egin zuten Laudioko Herriko plazan, eta Ertzaintza agertu zen Gorostiagaren argazkia kentzeko. 2015ean atera zen kartzelatik. Aitor Kortazar presoaren ongi etorria ere debekatu zuen Auzitegi Nazionalak, 2013. urtean.

Espainiako bandera

Gorabeheratsua izan zen baita ere Laudioko udaletxeko balkoiko banderen afera. 2010. urtean Espainiako bandera jarri zuten udaletxean, Auzitegi Gorenak hala eskatuta. Eskualdeko beste herri batzuetan -Orozko eta Artziniega kasu- berdin jokatu behar izan zuten, baina Laudioko egoera korapilatsuagoa izan zen. EH Bilduren gobernuak beste hainbat herrietako banderak jarri zituen balkoian.

Julen Ibarrola eta Alfredo Remirezek urtebete eman zuten preso. Irudian, bi amurrioarren egoera salatzeko ekimena.

Gauzak hala, Carlos Urquijok epaitegietara jo zuen ikurren legea betetzen ez zela argudiatuta. Epaileak arrazoia eman zion, eta 1.500 euroko isuna ezarri zion Natxo Urkixo alkateari.

Epaiketak

2012an 19 aiaraldear joan behar izan ziren Auzitegi Nazionalera. 2003ko udal osaketa udalbatzan, ezker abertzalearen hautagaitza legez kanpo utzi zen, eginiko protestengatik. Momentuan arreta berezirik deitu ez bazuen ere, gaurko ikuspegitik, aipatzekoa da Santiago Abascalek akusazio partikularra aurkeztu zuela epaiketan, PPko gainontzeko kideengandik bereizita, eta bere abokatua Javier Ortega Smith izan zela, gaur egun Vox alderdi ultraeskuindarreko idazkari nagusia dena.

Akusazio partikularrak 76,5 urteko kartzela zigorra eskatzen zuen guztira auziperatuentzat. Zigortu egin zituzten, baina ez espetxean sartzeko haina. Hori bai, epaituetako bat, Oier Amorrortu laudioarra, kartzelaratua izateko zorian egon zen, aurrekariak zituelako. Baina azkenean epaileak abokatuaren helegitea onartu zuen, eta bertan behera geratu zen auzia.

GALek sinatutako heriotza mehatxuekin hasi, eta Lezamako ezker abertzaleko familia baten etxearen aurkako tiroketarekin amaitu da hamarkada.

Polizia Nazional erretiratu bat auziperatu zuten ezker abertzaleko familia baten etxearen aurkako tiorketagatik.

Handik urtebetera Santi Hernando laudioarra joan behar izan zen Auzitegi Nazionalera, Batasunaren eta Herriko tabernen aurkako auzia zela eta, baina bere aurkako akusazioa erretiratu zuten azkenean.

Alaitz Aramendi orozkoarrari, aldiz, 40 urteko kartzela zigorra ezarri diote Espainiako Estatuan, 2005. urtean Madrilen atentatu batean parte hartzea egotzita. Frantzian dago kartzelaratuta, eta 2021ean Espainiaratuko dute.

Armiarma sarea

2014. urtean ekin zion Guardia Zibilak Twitterren idatzitako mezuengatik jendea atxilotzeari. Espainiako Estatu osoan egin zituzten atxiloketak, baina Aiaraldean zeresan handia izan zuten. Lehen Armiarma operazioan Aitor Martinez gazte laudioarra atxilotu zuten. 2016an, aldiz, @xboeguileor izeneko txiolaria atzeman zuten. Bien auziak ezerezean geratu ziren, baina Martinezek Auzitegi Nazionalean deklaratu behar izan zuen 2017an, Beñat Ereño gaztearekin, ETAren aldeko margoketa batzuk egitea egotzita. Biak absolbitu zituzten orduan ere.

Alfredo Remirez amurrioarra ere atxilotu zuten txiolarien aurkako operazio batean. 18 hilabete kartzela zigorra ezarri zion Auzitegi Nazionalak. Berez, kondena hura ez zen nahikoa bera kartzelan sartzeko, baina epaileak erabaki zuen 2009an Remirezi ezarritako beste zigor bat betearaztea; urtebeteko kartzela zigorra ezarri zioten amurriorrari aurreko hamarkadaren amaieran, bere herriko jaietan preso baten irudia ateratzeagatik. Gauzak hala, zigor hura bete behar izan zuen Remirezek. 2018an sartu zen kartzelan, Darocara (Aragoi) dipertsatu zuten eta bere senideek istripua izan zuten bera bisitatzera zihoazela.

Remirez kartzelan sartu eta hilabete gutxira beste amurrioar bat kartzelaratu zuten: Julen Ibarrola gaztea. Errotulki batekin pintaketa bat egiteagatik urtebeteko kartzela zigorra ezarri zion Auzitegi Nazionalak. Kasu honetan ere, zigorra ez zen nahikoa gaztea espetxean sartzeko, baina epaileak sententzia aplikatzea erabaki zuen, gazteak berrerortzea egin zuela argudiatuta, aurrekariak zituelako Landazuri etxearen okupazioagatik. Urtebete egon zen Basauriko kartzelan preso. Ibarrola kartzelatik atera baino egun batzuk lehenago atxilotu zuen Ertzaintzak herri bereko bizilaguna zen Galder Barbado, Aitor Zelaia gasteiztarrarekin batera, sabotaje

batzuk egitea egotzita. Urte erdi eman zuen preso, baldintzapean aske geratu zen arte. Ez zen atxilotzen zuten lehengo aldia. 2016an Guardia Zibilak atzeman zuen Laudioko Gazte Danbadan agertutako pankarta baten harira, baina egun berean utzi zuten aske.

Juanjo Basterra kazetariaren kasua ere hor dago. Dignidad y Justicia elkarteak salatu zuen preso politiko bati buruzko txio bat idazteagatik, eta Auzitegi Nazionalean deklaratu behar izan zuen, Amurrioko epaitegitik streaming bidez. Azkenean, ezerezean geratu zen akusazioa.

Amurrio jo puntuan

Aipatutako atxiloketez gain, beste gertakari batek astindu zuen Aiaraldea 2019an. Polizia nazional erretiratu bat auziperatu zuten Lezamako ezker abertzaleko familia baten etxea tirokatzea egotzita. 27 arma labur eta 9 luze zituen erasotzaileak etxean gordeta, baina fidantza gabe geratu zen, epaitegitik igaro ostean. Hilabete bat lehenago pintaketak agertu ziren Orain Amurrioko zinegotzi baten familiaren etxebizitzan eta autoetan. Bi gertakari horiek hamarkada hasieran Urduñan jazotako beste kontu larri bat dakarte gogora: Urduñako gazte batek posta eta telefono bidez GALek sinatutako heriotza mehatxuak jaso zituenekoa.

Amurrion eta inguruetan jazotako gertakari horiek guztiek bat egin zuten denboran Vox-en gorakadarekin. Horren ondorioz, Espainiako Estatuko hainbat hedabidek Aiaraldeko udalerri horretan jarri zuten fokua. Espainiako "kaberna mediatikoko" kide den Eduardo Inda kazetariak, adibidez, herria bisitatu zuen Santiago Abascal elkarrizketatzeko. Hori guztia dela eta, Amurrion “bigarren Altsasu bat” eraikitzeko saiakera salatu zuten zenbait eragilek.

Historia ez da amaitu. Lezamako tiroketaren eta Galder Barbadoren auziek irekita jarraitzen dute. Beraz, hamarkada berrian jarraipena izango du errelatoak.

Azken bost urteetan lau pertsona atxilotu dituzte adierazpen askatasunarekin lotutako auziengatik; horietako bik urtebete eman dute kartzelan.

Mobilizazio eta prentsaurreko ugari egin dira atxiloketa eta bestelako gertakariak salatzeko.

Herri galdeketak
erabakien zubi

Tokiko zein nazio gaien inguruan 9 erreferendum burutu dira Aiaraldean azken urteetan.

Testua: Izar Mendiguren Cosgaya
Argazkiak: Aiaraldea.eus

Herri galdeketaren formulak emaitza ezberdinak utzi ditu Aiaraldean. Laudion, herriko jaien datak erabakitzeko egin zuten galdeketa. Parte hartzea, ordea, ez zen erronkaren neurrikoa izan: %13 bertaratu ziren bozkatzera, eta %55k eskatu zuten data aldatzea. Alabaina, erabakia ez zen loteslea izan (parte hartzea %20koa izan behar zen loteslea izateko), eta beraz, gaur-gaurkoz ez du aldaketarik ekarri festen antolakuntzan.

Estatu propioa izatea galdegai

Arrankudiaga-Zollo izan zen aintzindaria (2014) Euskal Herrian erabakitze eskubideari buruzko herri galdeketak antolatzeko orduan, Etxarri-Aranatz udalerriarekin batera (Nafarroa), lehenbizikoak izan baitziren erreferenduma deitzen. Ados plataforma sortu zuten horretarako. Atzetik etorri ziren Orozkoko ekimena (2017) eta Aiaraldea Bat elkarteak sustatutarikoa (2018). Herri guztietan estatu propioa izateko nahia nagusitu zen, baina parte hartzea ez zen "handia" izan, herri txikienetan salbu: Arrankudiaga-Zollon %89.69 agertu ziren estatu burujabea eratzearen alde, %61eko parte hartzearekin; Arakaldon %100, %25a bozkatuta; eta Orozkon %89, %44k deialdia babestuta. Gainontzeko herrietako emaitzetan euskal estatuaren aldeko aldarria izan zen nagusi, baina parte hartze datu "txikiekin": Amurrion %17, Aiaran %18, Okondon %27, Laudion %14 eta Artziniegan %19. Horrez gain, erabakitze eskubidearen aldeko giza katea osatu zuten 2018an, eskualdeko errepideak milaka pertsonaren eskuekin lotuz.

Galdera

Erabakimena zalantzan izanik ere, ondorengo galderak luzatu zizkieten herritarrei galdeketetan. Arrankudiaga-Zolloko kasuan, "Nahi duzu euskal

estatu subirano bateko herritar izan?" izan zen galdegaia, eta Orozkon "Izan gure dozu Euskal Herri independente bateko herritarra?" erantzun zuten biztanleek. Aiaraldea Bat elkartearen deialdian, berriz, hurrengo korapiloa askatu zuten 6 herritan (Amurrion, Laudion, Okondon, Aiaran, Arakaldon eta Artziniegan): "Nahi duzu gure geroa erabakitzeko eskubidea erabili, muga bakarra Euskal Herriko herritarron borondatea aske eta demokratikoa izanik?".

Laudioko jaiei buruzko kontsultaren kasuan, aldiz, bestelakoa izan zen plazaratutako auzia: "Zein egutegi iruditzen zaizu egokien Laudioko jaietarako?". Hiru aukera eman zituzten: egungo sistema mantentzea, jaiak "Sanrokeren aurreko ostiralean hasi eta hurrengo asteko igandean amaitzea", (alegia, 10 egun irautea), edo abuztuaren 15ean hasita 10 egun irautea". Eolikoei buruzko galdeketa ere egin zen hamarkada hasieran, gai hori pil-pilean zegoenean.

Arrankudiaga-Zollo izan zen aintzindaria erabakitzeko eskubideari lotutako herri galdeketetan. Orozkok hartu zuen lekukoa jarraian.

Egin dira bestelako galdeketak ere Aiaraldean, Laudioko Jaien datei edota eolikoei buruzkoak, besteak beste.

K@NTU K@NTARI

AIARALDEAN

FAMILIENTZAKO CD-LIBURUA

9 udalerri, 10 abesti, 11 istorio...

Udalerri bakoitzeko abesti bat, istorio bat eta ilustrazio bat topatuko dituzue eskualdeko hainbat artisten eskutik.

URTE BERRIRAKO **OPARI BIKAINA**

1. Artearen sustraiak (Artziniega)
2. Lezeagako sorginak (Laudio)
3. Mariaka indartsua (Amurrio)
4. Espartero ipurdi-bero (Arakaldo)
5. Suaren bueltan (Okondo)
6. Mugan jausi (Urduña)
7. Txintxarrien barruan (Aiara)
8. Kirikiñausi (Orozko)
9. Eguen zuri (Arrankudiaga-Zollo)
10. Xanduli-manduli (Aiaraldea)

DAGOENEKO SALGAI

www.labur.eus/kontari

AIARALDEA EKINTZEN FAKTORIA

KOKORIKO

Gazte Konturako arriskuaren adierazlea

1/6

Zenbaki hau produktuaren arriskuaren adierazlea da: 1/6 zenbakiak arrisku txikiagoa adierazten du, eta 6/6 zenbakiak, berriz, handiagoa.

Kutxabank Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsari atxikita dago. Funts hori urriaren 14ko 16/2011 Errege Dekretuan aurreikusita dago. Funts horrek gaur egun gehienez 100.000 euro bermatzen ditu gordailugile bakoitzeko.

Kutxabank SA. Kale Nagusia 30-32. 48009 Bilbo. IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. Tomoa: 5226; Liburua: 0; Orria: BI-58729; Folioa: 1; Inskripzioa: 1.

KOMISIORIK EZ
KOMISIORIK EZ
KOMISIORIK EZ
KOMISIORIK EZ
KOMISIORIK EZ

GAZTEA bazara, **komisioak alde batera**

Komisiorik ez **gazte-kontuan** eta **K26 txartela** mantentze-kuotarik gabe*.

*Gazte Kontua: Titular guztiek 30 urte baino gutxiago eduki behar dituzte. ITN / UTB: %0.
K26 txartela: 18 eta 26 urte arteko gazteentzat.

AMETS EGITEA BAINO,
EDUKITZEA HOBE

KUTXABANK KORNER
kutxabankkorner.eus